

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2013-01-14
ASTELEHENA
393. ZENBAKIA
9. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



MARKEL URIARTE

"Enduroan lehiatzeko kanpora joan behar izaten dugu, gurean modalitate berria da"

Markel Uriarte | Txirrindularia | 27

Festa eta ska Oñatiko gaztelekuan, Betagarriren disko aurkezpenaz | 29



50 urte dira Arrasaten AMAT kooperatiba sortu zela | 11



Ardoiri ondo irabazi eta urtea amaitu bezala hasi du Natra Oñatik | 24

Iraganeko eta etorkizuneko maizterrak, Oñatiko gaztetxean

Antixenako gune berriak atek ireki dizkie ume eta gurasoei, Irrien Lagunek eskainitako dantza eta kantu saioarekin | 13



Umeak pozik kantuan eta dantzan Irrien Lagunak taldeko pertsonaiekin batera.

JOSETXO ARANTZABAL



Zapatuko manifestazioa. | JON BEREZIBAR

"Inflexio puntua", presoen eskubideen aldarrikapenean

Horrela definitu zuten, besteak beste, zapatuko manifestazioa Debagoienetik Bilbora joandako ehundaka lagunetako batzuek. Herrirako kide Illart Azkarate arrasatearrarena da, zehazki, gogoeta, baina antzera mintzatu ziren beste hainbat lagun. | 4

Zakarrontziak aldatzen ari dira Bergaran, gaika biltzen hasteko | 17

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 |
ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22
JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34
TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38
JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39



WOK
zabaldu berria
Arrasaten!


Menua, postrea barne.
10 menu hartuta, 1 DOAN

BEREZITASUNAK

- Itsaski-janak
- Frijituak
- Plantxa
- Sushia
- Parrilladak



943 79 90 29 / 629 41 59 58
Mugarrieta industrialdea 10, C-B pab.
San Andres auzoa.
ARRASATE



Jean Louis David
Ile Apain

Urtarrilaren 7tik otsailaren 28ra
Astelenean, astearte eta asteazkenetan

%20_{ko}
deskontua ile-apaindegian*

Ibargarai 43 - Bergara • 943 76 22 48
www.jeanlouisdavid.com
Astelenean Ostegunera:
09:30 - 12:00 / 15:30 - 18:30
Ostirala: 09:30 - 18:30
Larunbata: 08:30 - 12:30

*Deskontuak ez ditu produktuak barne hartzen.



Automobil berriak Arrasateko Udalaiz kontzesionarioan ikusgai. | LEIRE KORTABARRIA

Piverekin eta ahaleginarekin, urtea salbatu dute saltzaileek

- ▶ Auto-kontzesionarioek 2012 zaila izan dute
- ▶ Pive dirulaguntza plana ona izan dela esaten dute
- ▶ Markek deskontuak egiten dituzte bestela ere

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Automobil-saltzaileek sektorearendako laguntzak eskatzen dituzte. Krisiak gogorren astindutako sektoreetako bat da ibilgailuena, eta Debagoienean ere igarri dute hori. Oraindik indarrean dago automobil zaharra abantaila ekonomikoarekin aldatzeko Pive programa, Espainiako Gobernuarena; baina diru-poltsa azkenetan dago, nahiz eta programaren bukaera-data martxoaren 31 den, eta automobil ekoizleek eta saltzaileek piztu dituzte berriz alarman guztiak: "2013a beste urte zail bat izango da kontsumo aldetik; horregatik, Pive bezalako programek asko lagunduko ligukete", esan du auto-ekoizleen Espainiako patronalaren (Anfac) alor ekonomikoko arduradunak, Aranzazu Murrek.

Zifrek ez dute azalpenik behar: Hego Euskal Herriko eta Espai-

niako automobilgintza sektorean, azken bost urtean, 3.500 enpresa txiki eta ertain eta 40.000 lanpostu desagertu dira, krisiaren ondorioz. Automobil-kontzesionarioen patronaleko (Faconauto) presidentek, Jaume Rourak, "guztiz ezinbestekotzat" jo du Pive planak 2013an ere indarrean jarrai dezan.

Dena dela, itxaropenerako arrazoiak ere badaude: Motorreko Ibilgailuen Salmenta, Konponketa eta Ordezko Piezen enpresen Espainiako elkarteko presidentek, Juan Antonio Sanchez Torresek, esan du Pive planari esker "2012a hasi genuen baino baikorrago bukatu" dutela saltzaileek, eta 2013a "oraindik

oso gogorra izan arren, 2013 bukaeran edo 2014 hasieran etorriko den biziberritzearen ataria" izango dela.

Bigarren eskukoak, gora

Debagoieneko kontzesionarioek ere gutxiago saltzen dute edo, behintzat, krisi aurretiko garaietatik hona aldatu egin da lan egiteko modua eta saltzen dutena.

Kanpazar Fiat kontzesionarioko Carlos Ruz saltzaileak honako dio: "Arrasateko kooperatibak nola, gu hala gabilta. Asko igartzten dugu. Lehen, gazteek oso auto onak erosten zituzten, berri-berriak, haien aitak ere ez zituenak modukoak. Lana zegoen eta gazteek asko gastatzen zuten autoetan, kilometroak egiten zituzten... Baina hori bukatu da". Orain, bestelako eskaerak dituzte: "Lehen, bigarren eskuko automobilaren merkaturik ez zegoen hemen, eta orain, bai. Automobil berri samarrak, gehienez ere lau urtekoak, ondo saltzen dira".

Lan egiteko modua ere garaietara egokitu behar izan dute komertzialek: "Krisiak adimena zorroztera behartu gaitu, bai", esaten du Ruzek.

Pive planarekin eta ekoizleak eta kontzesionarioak egindako ahaleginekin, "2012a uste baino ondoxeago bukatu dugu; ez ditugu helburuak bete, baina tira, moldatu gara", esaten du Kanpazar Fiat-eko saltzaileak.

Eragin handia jendearengan

Pive planaren gainean, alde guztien ahalegina azpimarratzen dute saltzaile debagoiendarrek: "Plan horren aurretik, ekoizlea dagoeneko bazebilen deskontuak ematen. Azkenean, gainerakoak, Espainia-

ko Gobernuak ipini dituenak, 1.000 euro bakarrik izan dira, izan ere, ze ekoizleek ez zuen lehendik ere 1.000 euroko deskontua ematen?", esaten du Arrasateko Udalaiz kontzesionarioko Tomas Muñoz komertzialek. Bere esanetan, Pive "pizgarria" izan da eta "joan-etorria sortu" zuen azken hilabeteotan; baina azpimarratzen du "ekoizleak, Pive aurretik, bazebiltzan 3.000, 4.000... euroko deskontuak eskaintzen, baina asmatu dute dirulaguntzak jakinarazteko moduan, jendearengan eragin handiagoa izan baitu Pivek ohiko deskontuek baino". Gaineratzen duenez, arrakasta hain handia izan denez, oso zaila izango da epe bukaeraraino irautaraztea: "75 milioi euroko fondoa zegoen, 75.000 salerosketa ingururendako, eta urriaren 1etik martxoaren 31ra arte edo dirua bukatu arte zen; bada, oso-oso diru gutxi gelditzen da". Horren aurrean, ekoizleak eta saltzaileak "luzatu dezatela eskatzen" dabilta.

Diru-baliabide guztiak, eskura

Baina gobernuaren laguntzen zain ezin izan dira geratu auto-saltzaileak; ez da ahaztu behar Pive plana urrian hasi zela. "Krisian, geu eta beste denok gabilta ahalegin berezia egiten", azpimarratzen du Udalaiz kontzesionarioko Tomas Muñozek. "Aspalditik gabilta automobilak ia-ia kostuaren adinako prezioetan saltzen. Erosle gutxiago dago, eta ekoizleek produkzioari eusteko modu bakarra pizgarriak ematea da".

Eta bezeroari gero eta pizgarri gehiago ematen zaizkiola esaten du: "Berritasun gisa, lehen, autoa finantzatzen zenuenean, marken interesak ia-ia edozein bankurenak baino handiagoak ziren. Gaur egun, ahalegin osoa marjinen, irabaziaren gainean egiten dabiltzanez, bankuen interes-tipoaren azpitik dagoen finantziazioa eskaintzen dabilta markak, eta finantziazio horrek sortzen dituen interesak automobil berriaren deskontuan islatzen dira. Adibidez: Audi A4 autoa 12.000 euroko finantziazioarekin erosten badidazu, 2.000 euro deskontatuko dizkizut. Horiek nondik irteten dira? Bada, interesetatik. Labur esanda, garai baten banketxearendako izango liratekeen interesak deskontatu egiten zaizkio

DATUA

2.000

EURO

Pive planaren bidez, Espainiako Gobernuak 1.000 euro ipintzen zituen, eta autoaren ekoizleak beste 1.000.

40.000

LANPOSTU

Azken bost urteetan, Hego Euskal Herrian eta Espainian 40.000 lanpostu galdu dira automobilgintza sektorean, eta 3.500 enpresa itxi.

3.000

EURO

Pive aurretik ere, markek 3.000 euro eta hortik gorako deskontuak ematen zituztela gogorarazten du Udalaiz kontzesionarioak.



Carlos Ruz, Kanpazar Fiat kontzesionarioko saltzailea. | L.K.



Mikel Loiti, Chapime auto-kontzesionarioko saltzailea. | L.K.

bezeroari. Hau da, baliabide guztiak bere eskura ipintzen dira".

Hasi zenetik, luzatzeko eskatu Markak, kasu honetan Citroenek egindako deskontuak ere aipatzen ditu Arrasateko Chapime kontzesionarioko Mikel Loitik. "Iaz zailtasunak izan arren, aurreko urtean baino %9 gehiago saldu genuen, etxearen deskontuei esker eta Pive planari esker", dio berak. "Citroenen politika beti izan da deskontuak egitekoa eta beti egon dira laguntzak. Orain, Piverekin, autoak sekula baino merkeago eta ekipamendu gehiagorekin saldu dira". Eta datuek arrazoa ematen diote: autoa aldatzeko inoiz baino baldintza ekonomiko hobeak izan dira honakoak, eta Hego Euskal Herrian eta Espainian 699.589 automobil eta lur-orotariko matrikulatu dira 2012an, aurreko urtean baino %13,4 gutxiago.

Pive plana bukatzen denean, ordea, "irailean gertatu zena gertatuko da: BEZa igo zen momentuan geldialdi handia igarri genuen, eta, laguntza luzatzen ez bada, horixe gertatuko da", esaten du Mikel Loiti komertzialak. Horregatik, Pive "hasi zenetik" eskatu zuten auto-saltzaileek berau luzatzeko modukoa izatea, eta 2013. urte osoan iraun zezala. "Industria

ministreak esan du ez duela luza-pena baztertzen", gaineratzen du, itxaropentsu.

Pive planaren helburuetako bat zen Hego Euskal Herriko eta Espainiako automobil-parkea berritzen joatea eta kontsumo eta ekologia aldetik automobil eragingarriagoak zabaltzea. Eta, Mikel Loitiren iritziz, "laguntza programak behar dira, noski baietz. Europako automobil-parke zaharrenetarikoa izanda, auto horiek erditik kentzeko eta jario kutsagarriak txikitzeko, horrelako programak behar dira, are gehiago krisi egoera honetan". Udalaizteko Tomas Muñozen iritziz berekoa da: "Geuk aurreratzen dugu dirua. Matrikulazio-zerga Gobernuarendako da, eta BEZa ere bai. Beraz, ezer ez bada saltzen, ez dute inondik inora ezer kobratuko".

Bezere guztiek, informazioa

Krisiaren ondorioz, jendeak beste modu batera erosten duela uste du Mikel Loitik: "Gaur egun, gehiago begiratzen da dena: erdi-berria beti eskatu izan da, 0 kilometroko autoak ere bai... baina, azkenaldian, gehiago, norberaren aurrekontua asko txikitu delako, finantzaketa zailagoa delako eta beldur handia dagoelako. Logikoa

den moduan, gauzak ez dira lehen bezala, eta, seguru asko, ez dira izango".

Auto-kontzesionario guztiak ez dira berdin; bakoitzak bere politika du eta badago, segun eta ze aurrekonturekin joaten zaizkien bezeroak errefusatzan dituzten salmenta-lekurik. Mikel Loitik dioenez, Chapimera ere jende asko joaten da aurrekontu itxia-rekin. "Guk daukagun produktua eskaini diezaiokegu, edo gestioak egin prezio horretan sartu daitekeen auto bat lortzeko. Gu saiitzen gara aurrekontu hori eta bezeroaren eskaerak betetzen; produktua ez baldin badaukagu, hortik gertu dagoena eskaintzen diogu, eta bestela, aukera ematen diogu gestioa egiteko, inguruan begiratzeko; baina gaur ez gaude inondik inora bezero bat informazio barik bidaltzeko moduan. Hobe da zeozor saltzea, ezer ez saltzea baino".

Pisu handia Euskal Herrian

Ezkorra da Ford Mugarrri kontzesionarioko arduraduna, Rafa Etxabe. Hark *Goiena Magazine*a saioan esan zuenez, ez du uste erakundeek Pive luzatuko dutenik, "dirurik ez" dutelako. "Erakundeek borondatea izango dute, baina Espainian oso txarra da egoera. Ea Urkullu-rekin mirariren bat-edo datorkigun!", esaten zuen.

Pive planaren ganean, balorazio ona egiten du, baina beste aldea ere ikusten dio: "Uste genuen plus bat izango zela, baina, azkenean, salmenta gehienak Piverekin lotutakoak bakarrik izan dira".

Euskal Herrian automobilgintzak duen garrantziaz ohartarazi zuen, eta sektoreari eutsi behar zaiola azpimarratu: "Euskal Herrian, enpresa banatzaileetatik hasi, ikerkuntza enpresetara, fabrikanteetara... automobilaren sektorea hemendik joango balitz, lur jota geldituko litzateke dena". Iruñea ematen du horren adibide on gisa, baina Debagoienean ere pisu handia duela esaten du: "Pentsa gure bailaran, automobilgintzan, zenbat lanpostu dauden; orain arte, Alemaniak tiratu du, orain badi-rudi zerbait moteldu dela... Automobilaren mundua izugarri garrantzitsua da".

RAFA ETXABE | AUTO-SALTZAILEA

"Autoen frankizien sarean langile pilo gaude; Gipuzkoan, 4.000tik gora"

Auto-kontzesionario gehienak frankiziaz dira, hau da, marka handi baten agenteak. Ford Mugarrri kontzesionarioko arduradun Rafa Etxaberen esanetan, "inbertsioak, langileak... dena frankiziaz duden ardurak, ez markarena".

Nola zabiltzate Ford Mugarrri, frankiziaz zaretan aldetik?

Jendeak pentsatzen du gu garelako autoen jabeak. Gu, azkenean, marka baten eta eroslearen arteko bitartekariak gara. Ford etxeak marka eta produktua ematen digu, baina geurea da inbertsioa, pabilioiak, lantaldearen ardurak osoa... Ez dago alde handirik marka bate-tik bestera. Frankiziaz zaren unean, markaren esku zaude, eta, beste aldetik, bezeroaren esku. Egoera estutzen denean, normala da gure marjinak ere estutzea. Markak promozio handiak egiten ditu, eta gure poltsikoan ere eskua sartzen du, irabaziekiko gure portzentajea txikituz.

Erregimen horretan zer hobetua ikusten duzu?

Bai, hobetu daiteke, baina hau Europako arauetatik dator eta oso konplikatu da hor sartzea. Elkarre-tan komentatzen da ea ikara egin diezaiokegun araudiari, baina oso lotuta dago dena. Asko gara, sare moduan; bailaran bertan, langileak zenbatzen hasita, automobilaren salmentan edo saldu ondorengoko zerbitzuan, langile

kopuru izugarria izango ginatete; Gipuzkoan, 4.000 baino gehiago gara. Kopurua oso handia da; baina hori ukitzea soka luzea da.

Frankiziaz zaretan neurrian, marjinak ateratzea zaila da, ezta?

Bai. Lehia handia dago, egoera ere estua da, markak ere esaten du erasokorragoa izan behar duzula... eta gu bagara, baina ondokoa ere bai. Marjinak txikitu egiten dira. Autoa saldu gura baduzu, konpetentziarekin lehiatu behar duzu; markak eskaintza handia antolatzen badu, zuri ere zerbait ipintzeko esaten dizu... Etengabeko borroka da.

Frankiziaz baten sartzea gomendatuko zenioke bateren bati?

Niri lanbide hau, automobilak, salmentak... beti gustatu izan zait. Lana izanez gero, gauzak itxura baten egonez gero, gustura nago. Baina hasieratik jakin izan banu... ez dakit, ez dakit. Nolabait esatearren, sekta baten sartzea modukoa da; eta orain, honaino ailegatu-tuta, jarraitu egingo dugu.

Bezeroa exijenteagoa da?

Bai; mugitzen da apur bat. Baina, lehia baino gehiago, konkurrentzia da arazoa, marka berarekin gerra egotea. Adibidez, Nafarroan autoak merkeagoak direla dio jendeak, eta ez da egia. Baina momentu honetan, jendeak begiratzen du, bai, baina guk ere ezin dugu gehiago egin, autoak ere kostea duelako.

Laguntza publikoak, krisia hasi zenetik

VIVE ETA 2000E

Krisia hasi zenetik, Espainiako Gobernuak automobila erosteko laguntza planak egin ditu. Hala, 2008an Vive izenekoa egin zuen, automobil zahar baten truke berria erosteko 30.000 euroko laguntzarekin; eta, 2009 hasi berri zela, 2000E izeneko plana, markaren 500 euro eta Gobernuaren 1.000 euro arteko laguntzekin; erkidegoek beste 500 ipin zezaketan.

75 MILIOI EURO

Pive plana 75 milioiko poltsarekin sortu zen, 75.000 salmenta inguru ahalbidetzeko. Helburua zen Espainiako automobil-parkea

berritzea eta ibilgailu zaharren partez ibilgailu eragingarriagoak erabil daitezen.

26 MILIOI LITRO AURREZTU

IDAIEk, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Espainiako erakundeak, kalkulatu du Piveri esker 26,1 milioi litro erregai aurreztuko direla, 166.000 petrolio-barrika inguru. Gastu hori saihestuta, Espainiak 16 milioi euro aurreztuko ditu urtean.

BULTZADA BAT

Bultzada ederra eman dio Pivek merkatuari: iaz 699.589 matrikulazio egin ziren.



LEIRE KORTABARRIA

Espetxe politika aldatzeko dei ozena egin zuten milaka lagunek Bilbon

- ▶ Debagoieneko ehunka herritar ere batu zitzaizkion mobilizazio erraldoiari
- ▶ Aurrerantzean ere herri mailan lanarekin jarraitzeko deia egin zuten senideek

JON BEREZIBAR | BILBO

Autonomia kaletik hasi eta Hurtado Ametzagatik behera, udal-tereraino ia hutsunerik ez zen egon manifestazioa amaitu arte. Debagoieneko ehunka herritar ere euskal preso eskubideen aldeko eskaera horren eramaile izan ziren Bilbon. Zazpina autobus Arrasate eta Oñatitik, bederati Bergararik eta bana Eskoriatza eta Elgetatik, eta horiei autoz joandakoak batuta, ehunka izan ziren ibarretik ere mobilizatu zirenak.

Senideak buruan

Irudirik ikusgarriena, kriselua eskuan, preso senideek osatutako jende zerrenda luzea izan zen, manifestazioaren buru eta egungo espetxe politikak eragiten dituen egoera eta bizipenen testigu. Euriak lausotu zuen bakarra argazkia izan zen, hala eta guztiz ere manifestazioak aurrera egin zuen-eta jendetza guztiarekin.

Senideen taldearen lehen lerroan aurkitzen zen Illart Azkarate Herrira taldekoa. "Inflexio puntu" argizat jo zuen arrasatearrak zapatukoa "preso politiko ere" eta iheslari senideentzako ere" eta manifestazioa artean hasteko zegoela ere, "aurrerabidean asmatu beharrean" insistitzen zuen Azkaratek, "herrira

itzultzean lan dinamika horiek indartzen" jarraitzeko, "behingoz eskubide horiek errespetatzea lortzeko". Zapatukoaren oihartzunaz galdetuta, Azkaratek irmoki uste du hala: "Kaleak betetzen direnean despatxuetako gai-ordenetan ere gaiak jartzen dira".

Jendetza ikusita hunkituta eta pozik ere ikus zitekeen Txomin Azpitarte senide eskoriatzarrak, hura ere indarren metaketaren alde dei egin. Emaztea alboan eta ibilaldiari ekiteko prest ikusten zuen "seinale ona dela halako jendetza batzea" baina "pausuak guztiek eman beharrekoak" direla zioen, "bakea lortzeko eta barruan direnak kanpoan egoteko", "batzuei gorria komeni bazaie ere".

Herritar eta senideekin batera ibarreko ordezkari politiko zabalak ere hartu zuen parte eta lehen lerroetan Martin Garitano ahaldu nagusia eta Pello Urizar eta Rebeka Ubera legebiltzarkideak aurkitzen ziren, besteak beste, ordezkari politiko nagusiekin batera, pankarta nagusitik gertu. Senideek gidatu zuten manifestazioa eta haien atzetik ordezkari politikoei eta nazioarteko gonbidatuei hartu zuten lekukoa. Maite Aristegi diputatua ere talde horretan aurkitzen zen, mezu argi batekin: "Kartzeletako politika behingoz mugitu beharra" dagoela, "egun bat bera ere itxaron gabe". Kanean emandako erantzuna garrantzitsutzat jota ere, bergararrak nabarmentzen zuen orain dagokiela "politikariei, gobernuei eta hemen ere agintean daudenei hau mugitzea".

Politika aldaketa

Manifestazioaren burua udaletxe aurrera iristerako, jende lerro luzearen amaierak oraindik ia La Casillan jarraitzen zuen eta Hurtado Ametzagatik behera



Autonomia kalea, manifestazioaren erdialdean. | ANDER MONEDERO

inguruko kaleak ere hartu zituen jendetzak, aterki izara luze eta zabal baten gisara. Amaierako ekitaldian euskaraz, gazteleraz eta frantsesez irakurri zuten mezua milaka eta milaka pertsonaren aurrean, udaletxe inguru osoan ezin kabituta. Trantsizio-rako politika eskatu zuten, bake-rako eta konponbiderako. Ekitaldia musikarekin amaitu zen: Ines Osinaga Gose taldekoarekin batera Txuma Murugarrenek, Pettik eta Josu Zabalak abestu zuten.



Presoen senideez osatutako taldea. | J.B.

ESANAK

"Uste dut kaleak horrela betetzen direnean despatxuetako gai-ordenetan ere gaiak jartzen direla"

ILLART AZKARATE | ARRASATE

"Batzuei gorria komeni bazaie ere, pausuak guztiek eman beharrekoak dira, bakea lortu eta etxeratzeko"

TXOMIN AZPITARTE | ESKORIATZA

"Herriak berba egin du: kartzeletako politika mugitu beharra dago egun bat bera ere itxaron gabe"

MAITE ARISTEGI | BERGARA

DATUA

1,5
KILOMETRO

Milaka, dozenaka mila ala 110.00 lagunetik gora, hedabideen arabera. Jende lerroaren luzera, oster, kilometro eta erdikoa.

Eguenean, lehen txotxa Iturrietan, Aramaion

Gose taldea izango da Arabako Sagardo Berriaren Eguneko gonbidatua


J.B. | ARRASATE

Sagardotegi denboraldia hasteko guztia prest daukate Aramaion, Iturrieta sagardotegian. Txotx ekitaldia datorren egunean izango da eta lehen txotxa egiteaz Gose musika taldekoak arduratuko dira. Arabako Sagardo Berriaren eguna izango da egunekoa eta aurten Aramaion izango da ekitaldia, 20:00etan egue-

nean, txalaparta, bertsolari eta trikitilariekin. Iturrietan, datorren astean hasi eta maiatzera artean egiten dute sagardotegi denboraldia. Araban ez dira asko sagardotegiak, Aramaion bi daude, Iturrietakoa eta Unzueta baita ere. Beste sagardotegia Trebiñun dago eta arabarren asmoa da herrialdean ere sagardoaren kultura hori hedatzea.

Aurtengo sagardo berria

Kopuru aldetik, aurtengo ekoizpena ez da nahi bestekoa izan Aramaion eta kanpotik ekarri behar izan dute sagarra Iturrietara, Debagoienetik eta Gipuzkoatik batik bat. Iaz baino sagar gutxiago egon da aurten. 17.500 bat litro ekoiztu dituzte aurten azkenean. Guztia prest izango dute egunerako.



Juango Peciña, Iturrietakoa, sagardoa zerbitzatzen. | J.B.

Maiatzerako bizikletan joan ahal izango da Oñatitik Arrasateraino

Madalenako gasolindegia inguruko pasabidea martxorako bukatuko dute

MIRARI ALTUBE | OÑATI

Oñatiko Zubillaga auzoa eta Arrasateko Epele ingurua lotuko dituen bidegorriaren lanak aurrera doaz. Martxan onean joan ere; ondo bidean apiril ingururako bukatuta izango dira, nahiz eta amaiera epea maiatzaren 8a izan.

Oñatitik Zubillagaraino doan tarteko lanak, ostera, atzeratu egin dira trazatu aldaketagatik. Martxorako bukatuko dituztelakoan daude, eta orduan Oñatitik Arrasateraino –zortzi kilometro baino gehiago– bizikletan eta oinez, lasai eta eroso, joan ahal izango dira debagoiendarrak.

Biribilgune azpitik

Zubillaga-San Prudentzio-Epele bidegorri zatiaren lanak ezusteko barik doaz aurrera. Vasco-Navarro trenbide zaharraren trazatuan dago oinarrituta, eta inguru guztia dabilteza egokitzen, 4.556 metro.

Zubillagatik San Prudentzio arteko tartea dagoeneko asfaltatuta dago eta barandak ere jarri dituzte. Bukatutzat emateko argiteria jartzea geratzen da; horre-



Bidegorriaren lanak Elorregin. | IMANOL SORIANO



Lanengatik jarritako semaforoa, Oñati eta Zubillaga artean. | IMANOL SORIANO

tarako azpiegitura lanak eginda dituzte, baina instalakuntza osoa egin beharra dago gero. Argi horiek, gainera, led motakoak izango dira ibilbide guztian; aire zabaleko zatietan, 35 metrotik behin jarriko dituzte, eta tuneletan, 12 metrotik behin. Tarte horrek 2.756 metro ditu.

San Prudentziora iritsitakoan –Oñati ibaiaren zubi gainetik, Tavesa enpresako instalazioetatik bueltan– biribilgunearen azpitik pasatuko da bidegorria, eta desbideratze horretan dihardute lanean. San Prudentzian hasita Epeleko hondakin uren araztegiaren pareraino joango

da bidea, eta GI-627 errepidearen paralelo dagoen plataforma aprobetxatu dute horretarako. 1.800 metro dituen ibilbide horretan bi tunel daude –Errekabaltz, 145 metrokoa, eta Minazulueta, 165 metrokoa–, eta horiek dagoeneko konpondu dituzte, eta asfaltatu ere bai.

Lau kilometro eta erdi dituen bidegorri horrek guztiak 3,5 metro zabal izango du; bi metro bizikletendako, eta gainerakoa oinezkoendako. Eta bidearen tarterik handiena laua da (batez besteko aldapa %1,66). Lanok egiten Murias S.A. enpresa dabil, eta 1.365.480,15 euroko aurrekontua dute.

Tranbiarentzat pentsatutakoa Zubillagatik Oñatira doan tartea, ostera, abendurako bukatuta izan behar zen, baina trazatua aldatzea erabaki zuten gero, eta martxorako izango da gertu. Hasierako asmoa zen Fagorren atzeko partetik pasatzea, baina gas hodiekin arazoak sortu zituzten biribilgunean, eta gainera trazatua bera ere ez zela guztiz egokia iritzi zioten (%6tik gorako desnibela). Hala, sasoi baten tranbiarendako aurreikusitako ibilbidetik jotzea erabaki dute: biribilgunetik gasolindegia aurrera eta errepidea azpitik gurutzatuta Madalenako ermita aldera. "Trazatua zuzenagoa eta aproposagoa da horrela" jakinarazi dute Aldundiko ordezkariak. Aldaketak zertxobait garestitu egin dezakeela hasierako aurrekontua onartu dute, "baina asko ez dugu uste".

DATUA

8

KILOMETRO

Lan guztiak bukatutakoan 8 kilometrotik gorako bidegorri tartea izango da.

Beñi Agirre | Historialaria

"Sakabanatuta egotik erakunde politiko bakarra sortu zuten 824an"

- ▶ Baskoiek bi aldiz garaitu zituzten frankoak: 778an eta 824an
- ▶ Musulmanek garaitu izan zituztela frankoak Orreagako guduan kontatu da

T.MADINA/M.ALTUBE | ARRASATE

Orreagako guduan (778-824) gertatutakoak argitzen izan da astean Beñi Agirre historialaria Arrasateko Udalaren, Zuztarrak Errotuz taldearen eta Nabarralderen eskutik.

778ko abuztuan izan zen Orreagako gudua zerk eragin zuen?

Kokatze jakin behar da garai hartan musulmanek irabazita zutela penintsula iberiar ia osoa, eta iparraldean Erromako elizaren eta Karloagnoren indarra beste botere handi bat zela. Lurraren kontrola zen bi indarrek gura zutena, eta tartean euskaldunak –garai hartan, baskoiek–.

Baskoien eta frankoen arteko gudua izan arren zabaldu izan da baskoien ordez musulmanak izan zirela frankoak garaitu zituztenak.

Mito bat sortu zen horren inguruan, batez ere historia garaileek kontatu izan dutelako. Karloagnoren kronista Eginardok jaso zuen baskoiek garaitu zutela; baina enperadore izango zena



Beñi Agirre. | Z. VELEZ DE MENDIZABAL

ezin zen galtzaile agertu eta Turoldus monjeak bildutako 4.000 bat bertotan musulmanek garaitu zutela dio –*Rolanden kantua*–. **Gezurdatu duzen beste datu bat da baskoiek 300 bat artzain zirela, inolako antolakuntza barik...**

Bai, epika dago hor ere, "enperadore handi bat ezin zuen garaitu herri txiki batek", baina Eginardoren testuek oso garbi diote baskoiek direla. Mito hori erortzean, beste bat sortu behar dute, eta da kasualitatearena: segada

bat izan zela, ezustean harrapatu zutela... Hau da, baskoiek gutxieste. Baina garai hartan baskoiek ez ziren herri txiki bat, frankoen pareko indarra baizik.

Eta 824. urtean zer gertatu zen? Frankoek eta baskoiek etengabeko borrokan jarraitu zuten eta 824. urtean Karloagnoren iloba Pipinio berriro saiatu zen baskoien lurraldean sartzen. Beste borroka handi bat izan zen, eta berriro ere frankoak garaituak. Hortaz, baskoien artean bazegoen antolaketa bat, gutxienez besteen parekoa. Hala, erabaki zuten ordura arteko egitura –buruzagi, noble...– antolatzea, eta Europako eredu politiko bat kopiatzea: erresuma. Sakabanatuta ibiltzetik erakunde politiko bakarra sortu zuten baskoiek 824an: Iruñako erresuma. Hori da mugarrira euskaldunontzat, Europako herrien pareko egitura sortzea. **DVDean jaso duzue hori guztia; nora jo eskuratzeko?** Nabarraldera.



IMANOL SORIANO

Suhiltzaileak Aprendizen Eskolara

Su txiki bat sortu zen egubakoitz arratsaldean Arrasaten, Aprendizen Eskola moduan ezagutzen den erakinean. Udaltzaingoa eta Zubillagako suhiltzaileak bertaratu ziren eta gertaera ez zen gehiagorako izan. Arratsaldeko 17:00ak inguruan jaso zuten abisua suhiltzaileek eta berehala egin zuten egin beharrekoa.

Erakunde eta entitate publikoak zuzentzen laguntzeko unibertsitate titulua sortu dute MUK eta LKSk

Gobernatzearen gaineko unibertsitate titulua sortu dute MUK eta LKSk, politikariei eta agintariei erakunde eta entitate publikoak zuzentzen laguntzeko. *Gobernua eta Zuzendaritza Exekutiboa Tokiko eta Lurraldeko Erakundeetan* izeneko ikastaroa urtarrilean hasi eta ekainean amaituko da, eta Rafael Jimenez adituak koordinatuko du. Ikastaroa da tokiko erakundeetako, lurralde-administrazioetako, erakunde publikoetako eta alderdi politikoetako langileentzat; kargu politikodunentzat; eta sektore publikoko zuzendari, goi-funtzionario eta arloko arduradunentzat.

Debagoieneko populazioa %0,69 handitu da, Gipuzkoakoaren halako bi

Gure bailarako ia herri guztietan dago biztanle gehiago; bestalde, hiriburuetan, Gasteiz hazi da asko

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Debagoieneko biztanleria Gipuzkoako eta Hego Euskal Herriko baina gehiago hazi da azken urtean. Hain zuzen, bailarako populazioa %0,69 hazi zen 2011ko urtarrilaren 1etik 2012ko urtarrilaren 1era arte, eta Gipuzkoakoa, %0,35.

Gipuzkoan, 2.490 biztanle gehiago zenbatu dira epe horretan: 709.607 izan ziren 2011ko urtarrilaren 1ean, eta 712.097, iazko urtarrilaren 1ean. Deba-

goiengan, epe berean, 428 bizilagun gehitu ziren: 61.915 biztanletik 62.343ra, hain zuzen ere.

Espainiako Estatistika Erakundeak Hego Euskal Herriko eta Espainiako udalerrri guztien biztanleria datuak batu ditu, eta Estatuaren Aldizkari Ofizialean, 2012ko abenduaren 29an, abenduaren 21ko 1697/2012 Errege Dekretua argitaratu da, biztanleriaren gaineko datu berriak indarrean sartzen dituena. Datu horiek udal erroldetatik datoz

eta balio ofiziala dute.

Araba hazi da gehien

Debagoieneko bi herritan bakarrik zenbatu dira aurreko urtean baino biztanle gutxiago: Antzuolan (-10) eta Leintz Gatzagan (-16). 2.177 eta 256 biztanlerekin, hurrenez hurren, bukatu zuten zenbaketa-epea. Beste herri guztietan, hauek dira biztanleria datuak eta aldea: Aretxabaletan, 6.850 biztanle (+125); Arrasaten, 22.027 (+55); Bergaran, 14.708 (+131); Oñatin, 11.151 (+118); Eskoriatzan, 4.054 (+11); eta Elgetan, 1.120 (+14).

Hego Euskal Herriari dago-kionez, 2012ko urtarrilaren 1an 2.193.093 biztanle zituen Euskal Autonomia Erkidegoak (+8.487), eta 644.566, Nafarroak (+2.515); populazioa %0,38 handitu zen. Bizkaian, %0,23 ugariatu zen populazioa, eta Araban, %1.

Hiriburuetan, Gasteiz argi nabarmentzen da, populazioa %1,1 hazi zelako: 242.223 biztanle ditu (+2.661). Donostiako biztanleria ere hazi egin da: %0,12 (186.409 biztanle gaur egun, 224 gehiago). Aldiz, 1.071 biztanle gutxiago zenbatu ziren Bilbon (351.629 ditu orain; -%0,30), eta 328 gutxiago Iruñean (197.604 biztanle dira orain, -%0,16).

DEBAGOIENEN POPULAZIOA, URTE BETEAN

| HERRIA | 2011-01-01EKO ERROLDA | 2012-01-01EKO ERROLDA |
|-----------------------|-----------------------|-----------------------|
| Antzuola | 2.187 | 2.177 (-10) |
| Aretxabaleta | 6.725 | 6.850 (+125) |
| Arrasate | 21.972 | 22.027 (+55) |
| Bergara | 14.577 | 14.708 (+131) |
| Elgeta | 1.106 | 1.120 (+14) |
| Eskoriatza | 4.043 | 4.054 (+11) |
| Leintz Gatzaga | 272 | 256 (-16) |
| Oñati | 11.033 | 11.151 (+118) |
| GUZTIRA | 61.915 | 62.343 (+428) |

ITURRIA: ESPAINIAKO ESTADISTIKA ERAKUNDEA (INE)



Auto elektrikoa kargatzeko postea daude Eroskin. | GOIENA

Automobil elektrikoa 'txispa' berri eske dago

Salmenta-aurreikuspenak jakinarazi dituzte Europako ekoizleek: asko jota, merkatuaren %8

L.K. | ARRASATE

Automobil elektrikoak porrot egingo du gaur egungo baldintzek irauten badute. Hori ohartarazi du Europako Automobil-Egileen Elkarteak (Acea).

Aceak okertu egin ditu ibilgailu horretarako zituen salmenta-aurreikuspenak: datorren hamarkadan, merkatuaren %2 eta %8 artean bakarrik izango duela esan du.

Salmenta anekdotikoak

Acearen iritziz, automobil elektrikoaren porrota neurri baten bakarrik azaldu daiteke krisiarengatik; izan ere, birkargatzeko estandarrek oso poliki garatzen dabiltzala, merkatua oso zatitua dagoela, ikerketa eta garapenak babes txikiak duela eta azpiegiturekiko ikuspegia "iluna eta zatitua" dela ere esan du.

Aceako idazkari orokorrak, Ivan Hodac-ek, esan duenez, ibilgailu elektrikoak aurrera egingo du baldin eta eragile guztiek "erabateko elkarlana" badute eta gobernuen eta Europako erakundearen babesa baldin badute.

Beste produktu batzuen artean, automobil elektrikoak ere eskaintzen ditu Arrasateko En-medio dendak. Bertako Juanma Gayk esaten duenez, "automobil elektrikoaren arazo nagusia autonomia falta da; ez da autonomia handitzeko teknologiarik garatu eta, horrela den bitartean, automobil elektrikoak ezingo du errekuntzako automobila ordezkatu". Gaur egun, automobil elektrikoak "ezin da 600 km baino gehiago ibili berriz kargatu gabe". Horregatik, "ibilbide motzetan eta bigarren ibilgailu gisa bai, erabili daiteke; baina ez familiaren ibilgailu bakar gisa". Gayk esaten duenez, halako automobilen salmentak "marjinalak" dira.

Sektore berria

Debagoieneko enpresak ere sartu ziren automobil elektrikoaren arloan. Besteak beste, Mondragon Korporazioak Citycar auto elektrikoa aurkeztu zuen 2010ean. Automobil elektrikoak kargatzeko guneak daude hainbat Eroski zentrotan; tartean, Arrasateko hipermerkatu kanpoan.

Zergen gaineko informazioa euskaraz laburtu du gida-liburu baten Foru Ogasun Departamentuak

2012ko zerga gida kaleratu berri du Gipuzkoako Foru Aldundiak, euskaraz. Helburua da zergadunei lana erraztea. Horretarako, hainbat eduki batzen ditu: araudia, zerga gaiak, salbuespenak, zortzapena, oinarri ezargarriak, tasak... Zerga garrantzitsuenak era laburtuan biltzen ditu. Material hori euskaraz eskaini nahi izan du Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak. Hemendik deskarga daiteke: www.gipuzkoa.net/ogasuna.

Lagun Aro Aseguruen zerbitzua banku-sukurtsaletan integratu du Euskadiko Kutxa Ipar Kutxak

Euskadiko Kutxa Ipar Kutxaren sukurtsaletan daude aurrerantzean Lagun Aro aseguru negozioko 200 profesional inguru. Kreditu kooperatibak banka-aseguru negozioa inauguratu du urtarrilean; bere esanetan, Hego Euskal Herrian eta Espainian eredu berria da hori. Euskadiko Kutxa Ipar Kutxak aseguru-zerbitzuekin aberastu nahi du bere negozioa. Orain urtebete, Lagun Aro Aseguruak negozioa erosi zuen iaz, eta orain biak integratu ditu.

Mondragon bisitatu zuten Belgikako kazetariak

Belgikako VRT telebistako bost kazetari Mondragon Korporazioaren gaineko erreportajea egitera etorri ziren martitzenean. Orbea, Arizmendiarietaren Museoa eta Euskadiko Kutxan grabatu zuten, besteak beste. Arrasate ere erakutsi zieten korporazioko ordezkariak.



MONDRAGON

Leire Aperribai | Psikologian doktorea

"Hilerokoarekin lotutako sinesmenak apurtzeko, zientifikoki frogatutako tresna baliagarria da"

- ▶ Hilerokoaren aurreko nahaste disforikoa detektatzeko tresna egin du doktore tesian
- ▶ Profesionalek erabiltzeko galdera-sorta EHUko 3.916 emakumerekin frogatu du

AITZIBER ARANBURUZABALA | ARRASATE
Leire Aperribai (Arrasate, 1974) psikologian doktorea da. EHUko Psikologia Fakultateko Nortasun, Baliospen eta Psikologia Tratamendu Saisetiko, hilerokoaren aurreko nahaste disforikoa detektatzeko tresna bat garatu du, amaitu berri duen tesian jaso duena. Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolako irakasle atxikia da.

Hilerokoaren aurreko nahaste disforikoa detektatzeko tresna bat egin duzu. Zer da eta zertarako?

Emakume batzuek hilerokoaren aurreko egun eta astean hainbat asaldura edo sintoma fisiko edo psikologiko pairatzen dituzte. Batzuei ez digute eragozpen handirik sortzen, baina beste batzuei, berriz, modu larriagoan eragiten diete, eta eguneroko bizimodu egiteko trabak eragin. Horiek antzemateko screening-tresna edo kriba-tresna bat egin dugu; profesionalek erabiltzeko galdera sorta bat da.

Zeintzuk dira sintoma horiek eta zer garrantzi dute?

Sintoma fisikoak edo psikologikoak izan daitezke: tripako minak, buruko minak eta horrelakoak, fisikoei dagokienez; eta psikologikoak, berriz, depresio, herstura edo antsietateari edo portaera ezberdinei lotutakoak; hau da, gehiago jan beharra edo loaren portaeran aldaketak. Hilerokoaren aurreko astetik edo bezperan etor daitezke sintoma horiek eta hilerokoarekin batera edo hurrengo egunetan desagertu egin beharko lirake.

Desagertzen ez badira, beste arazo edo gaixotasunen bat dugula adieraziko luke?

Bai; nagusitzen diren sintomak depresiboak badira, adibidez, depresioarekin lotutako zerbait izan dezakegula erakutsi ahal du edo ditugun sintomak herstura edo antsietatearekin lotutakoak badira, hersturarekin lotutako nahaste batekin pentsatu beharko dugu eta ez hilerokoarekin lotutako nahaste baten.

Egin duzun tesi honekin mitoak apurtu dituzula esan genezake, orduan.

Bai; berez, mitoak alde ezberdinetatik daude: batetik, badaude emakumeak, asaldurak dituzten arren, hilerokoarekin lotu nahi ez dituztenak. Hau da, hilerokoaren aurreko nahaste hau existitzen ez den sinesmena dagoelako. Baina badago beste muturrean, beste mito bat, emakume guztiok hilerokoaren aurretik gorabehera handiak ditugula. Egin dudaz azterketa honek balio du mito horiek apurtu eta esan ahal izateko.

teko badaudela asaldura horiek jasaten dituzten emakumeak, baina gutxiengoa direla. Hilerokoa dugun emakumeetatik, %5 lirake aldaketa edo sintoma horiek dituztenak.

Zergatik aukeratu zenuen tesirako gai hau? Zein izan da prozesua?

Urteetan egin dut lan emakumearen inguruan, besteak beste, Ekin Emakumeak elkartean; oraindik ere kolaboratzailea naiz. Emakumeen inguruko balio eta estereotipoen inguruko ikerketak egiten ditugu. Ekinen nengoela erabaki nuen doktorego tesia egin behar nuela eta horrela hasi nintzen doktoregoko klaseetara joaten, ikerketa nahikotasunak egiten eta horrelakoak. Nire profila ikusita, garai hartan nire tutorea zen Itziar Alonso Arbiolen proposatu zidan hilerokoaren aurreko nahaste disforikoen gainean ikerketa egitea; hura ere gai horrekin lotutako azterketatan ziharduen. Lanean hasi bezain laster konturatu ginen ez zegoela tresna egokirik.

Zegoen hutsunea betetzea, beraz, hasierako helburua.

Bai, hala da. Ez zegoen nahaste disforikoa detektatzeko tresna baliagarririk; hau da, frogatutako testik, galde-sortarik edo elkarrizketa zientifikorik. Zeudenak oso tresna nahasiak ziren, beste zerbait diagnostikatzen zutenak, aldaketak diagnostikatzen zituztenak, eta ez nahasteak, hain zuzen ere. Baziren beste batzuk sintoma mordo bat detektatzen zituztenak eta arazoak ematen zituztenak gero, diagnostikoa egiteko orduan. Bazeuden, era berean, sintomatologia nahiko onartua zuten tresnak, baina zientziaren ziurtasun frogarik ez zutenak. Edozein tresna psikologikok behar du zientifikoki frogatuta izatea. Hainbat froga pasatu behar ditu horretarako, eta zeuden tresnek ez zuten segurtatzen froga horiek pasatuta zituzten edo ez.

Lehen lana, beraz, asaldura definitzea izan da; AEBetako Psikiatria Elkartearen buru-nahasteen diagnosi eta estatistika-eskiliburua erabili duzu oinarrian.

Bai, psikiatria edo psikologia klinikoaren barruan, nahaste ezberdinen inguruan, hainbat sailkapen daude: Osasunerako Mundu Erakundeak ezartzen duena eta AEBetako psikiatrien elkargoak zehazten dituen irizpideak. Nik hori aukeratu nuen, ikerketa munduan onarpen handien daukana delako.

Tresna prestatu, eta 3.916 emakumerekin frogatu zenuen.



Leire Aperribai arrasatearra, psikologian doktorea. | AITZIBER ARANBURUZABALA

Bai; EHUko campus ezberdinetako emakumeak guztiak, profil ezberdinetakoak ikas-maila edo lan baldintzei dagokienez. Galdeketa lehengo zatiak 27 sintoma bereizten ditu eta ondoren, sintoma horiek sortzen dizkieten ezintasunen gainekoak jasotzen ditu.

Ateratako ondorioak, berriz?

Testa pasatu dugunen artean atara zaigun datua %15 da, baina gurea kribako tresna bat denez, diren kasu errealak baino datu handiagoa ateratzen da. Diagnosi zehatzagoa egiteko, gutxienez, beste bi hilabetetan beste proba batzuk egin beharko lirake emakume horiekin.

Tresna baliagarria dela frogatu duzu. Zein da hurrengo pausoa?

Zabalkunde lanetan nabil orain. Zientziaren ezagutzagatik egiten diren ikerketek ez dute horrenbesteko zabalkunderik izaten eta emakumeen gaiek, are txikiagoa. Ikusi behar da benetan ze interes dagoen komunitate zientifikoa hau zabaldu ahal izateko. Biltzeko proposamen batzuk jaso ditut; hala ere, oso lasai nabil, eskolak ere ematen ditut, eta, beraz, asti luzerik ez dut. Pausoz pauso!

Merkaturatzeko aukerarik?

Merkaturatzea esaten dugunean, gureta bi zentzu dauka: irabazi ekonomikoa lortzeko izan daiteke, batetik; edo zabalkunde zientifikoa emateko. Beraz, bi ikuspegi daude: enpresa bati saltzea, baina momentuz ez dut hori aurreikusten, ez dut uste zabalkunderako modurik onena izango litzatekeenik; eta bigarrena, beste zientzialariendako eskuragarri jartzea, erabili aurretik beti baimena emanda, noski.

Gustura zaude egindakoaz?

Bai; nola kaleratu behar dugun ikusi behar dut orain. Ez da bakarrik galdera sorta esatea, baizik eta galdera sorta hori nola interpretatu behar den, nola landu behar den, nola aztertu behar den... hori guztia egin beharra daukat orain.

Karpeta itxita, beraz? Ala ikertzaile batek ez du karpetarik izten?

Ez... [Barre] Gainera, karpeta hori itxi gabe, beste batzuk zabaldu ditut.

Hemendik abiatuta?

Ez; 2006an Ekin elkartean abian jarri genuen neska eta mutil gazteen balioen inguruko da; zehatzago, euskara eta emakumea gaitzat hartuta. Orain hasiko gara Arizmendi ikastolarekin batera datu bilketa bat egiten.

"Emakume guztiak jasan arren, larriki batzuei bakarrik eragiten die"

"Profesionalek erabiltzeko screening edo kriba testa egin dugu"

"Sintomek hilerokoarekin batera desagertu behar dute"

"Testa pasatu dugunen artean, %15 da atara zaigun datua"

ZABALIK

RUFINA OLASAGASTI
http://goiena.net/iritzia/



Emakumeen adorea

Bailara honetan emakumeek frankismoa nola bizi izan zuten azaltzeko erakusketa bat prestatzen ari gara EKIN Emakumeak elkarteak.

Ukazioa eta zigor gogorrak nozitu zituzten eskolan, euskaraz egiteagatik. Erljioa zuten irakasgai nagusia eta ikasgai guztiak umeak espainiartzera gidatuak zeuden. Elizaren aldetik kontrol zorrotza zeukaten herritarrek, neskak eta emakumeak, batez ere: sexuen arteko harremanak arautuz, apalak eta obedianteak izatea exijituz, aisialdian zer egin zezaketen eta zer ez esanez.

Ezkondu ostean gizonaren zerbitzaria da andrea. Gizona dela buru eta haren esanera jokatu behar duela erakusten da eta horretara behartzen du estatuak, senarraren baimena (edo aitarena) derrigorrezkoa izanik aurrezki kartila zabal-tzeko, pasaporte ateratzeko...

Emakumeak behar bezala doktrinatzeko Estatuak Emakume Atalak kudeatzen duen Gizarte Zerbitzua egitera behartzen dituzte emakumeak edozer gauzatarako, baita tailerretan lan egiteko ere. Umeak nola zaindu eta etxeko martxa nola eraman erakusten dute hor, Nazio Espiritua zer zen erakustez gain. Jainkoak bidalitako umeak hazi behar dituzte. Umeak sortzeko ez ziren sexu harremanak, antisorgailuak eta abortua debekatzen ditu Elizak eta erabileraz zigortzen du estatuak. Bide batez, familia ugariak laguntzako ematen dizkie ume kopuruaren arabera. Lana eta sufrimenduzko bizitza pairatu zuten andre askok, beste bizitzan horren saria jasoko zutelakoan.

Duela 40 urte inguru emakumea konturatzen da bera ere pertsona dela eta gainerako jendeak bezalako eskubideak dituela, ez dela inoren menpeko. Ukazioa, menpekotasuna eta kontrola nozitu duen emakumea organizatu egin da eta bere buruaren jabetza eskuratzen ari da. Elizak oraindik ez dio onartu emakumeari pertsona izatearen duintasuna.

"Gizona dela buru eta haren esanera jokatu behar duela erakusten da"

USTEAK USTE

MIRARI ALTUBE | aretxabaleta@goiena.com

Helduen jostailuak

Gabonak joan dira, bai, baina zer pentsatua eman didate Gabonetan entzundako kontu batzuek (urterokoak). Oparien kontuak. Sasoi horretan ohitura dugu komunikabideok adituen esanak jasotzeko: "Opari gehiegi izaten dituzte egungo umeak; bat edo bi hautatu eta besteak kendu egin beharko genizkieke; lagunei ikusitakoa gura dute, zer den ere jakin barik...". Eta egia da, sarritan. Baina ez al dugu helduok horixe egiten? Telefono ultramodernoak erosi, nahiz eta dituzten aplikazioetatik herena ere erabili ez; ordenagailua izanda ere tablet politikak erosi lankideek ere badutelako... Eta sagartxodunak badira, askoz modernoagoak gara! Badugu zer hausnartu, edo?

KALE INKESTA

Urte berri honetarako jarri diozu erronkarik zure buruari?



JESUS IGNACIO AZURMENDI
ARRASATE

"Gehienetan, ez diot proposamen finko edo berririk jartzen nire buruari. Betiko gauzak egiten jarraitzen dut.



FRANCISCO GALIOT
ARRASATE

Erronka bakarra ibili eta bizitza osasungarria eramatea da, eta lortzen dut. Ahal dudanean ibiltzera joaten naiz.



AMAIA ITURRARAN
ARRASATE

laz langabezian gelditu nintzen, erronka nagusia lana aurkitzea da. Eta bikotekidea aurkitzen badut, hobeto.



ROSARIO VALOR
ARRASATE

Dudan erronka bakarra nire burua zaintzea da, betikoa. Normalean, jartzen ditudan erronkak lortu egiten ditut.

HANDIK ETA HEMENDIK

Irakaspen nimiño modura

Aritz Galarraga
http://berria.info/blogak/ekografiak/

Hildakoa gutxi-asko bada ezaguna, haren gaineko informazio apur bat ematen digute egun batez, bitan gehienez, hedabideetako uhin-orri-pantailek. Gertatu da asteen Enrique Meneses kazetari espainiarrarekin. Hil dela, alegia, eta hedabideek, astelehen-astearte, hartu dituztela haren gaineko lausengu eta losintxak. Ez baita ohitura hildakoaz gaizki hitz egitea, nahiz bizitzan gauza ederrik apenas entzun duen. Eta, zer nahi duzue esatea, nardagarri zaizkit benetan halakoak. [...]

Gainera, denek errepikatzen dute gauza bera. Manolete zezenketariaren heriotzaren berri ematea izan zuela 17 urterekin lehenengo kazetari lana, adibidez. Bost ez, niri hamabost. Ez nuen Meneses ezagutzen ez Kubako Iraultzan eginiko lanagatik, ez 16 urte nitularik *Africa de Cairo A Cabo* liburuarekin txundituta geratu nintzelako. Ez *Paris Match*-eko azalengatik, ez *The New York*

Times-eko argazkiengatik, ez *Espainiako Playboy*-ko zuzendari izan zelako ere –eta azken horrek, agian, harritzen nau gehien–. Berripaper honetan ere pasieran baino aipatzen ez zen UtopiaTV telebista kateagatik ezagutzen nuen nik, "zahartzaroan murgildu zen hainbat proiektu digitalen arteko bat" izan zela azpimarratu den horregatik.

Urtzi Urkizuk orri honetantxe argitaratutako elkarrizketa batean aitortu zuen Meneses zenak etxeko komuna erabiltzen zutela makillatzeko, eta liburutegia fokua jartzeko. Telebista bat denik eta negoziarik garestienetakoa dela dirudienean, hara non, 2011. urte hondarrean, martxan jartzen duen UtopiaTV, Interneteko telebista kate bat, 400 euroko gastuarekin. [...]

Baina katea bera baino gehiago, katearen atzeko ideia gustatu zitzaidan. Azkenaldian, kazetari gazteekin hitz egitea atsegin omen zuen Menesesek. Hedabide propioak sortzera animatzen zituen, beren kasa lan egitera; esaten omen zien ez erortzeko erosotasunean, ez konformismoan. Eta epitafio gisa ez dakit horrek balio duen; bai, ziurrenik, irakaspen nimiño modura.

Arrazoi politikoengandik... ezin izan

Luis Aranberri 'Amatiño'
http://eibar.org/blogak/amatiño/

Ondarretako kartzelaren (1890-1948) oroitarria jarri zen, orain dela hilabete, Donostiako Ondarreta hondartzaren inguruan. "Arrazoi politikoengandik" atxilotuak izan ostean, ehundaka gipuzkoarrek bertan igaro behar izan omen zuten azken gaua, egunsentian fusilatuko izan aurretik. Benetan? Arrazoi politikoengandik ote? Ez dakit ba... Bai, badakigu, gerra garaian eta frankismoaren diktadurapean, edozein atxilotu izan zena, kartzela hartan. [...] Baina, horratik, arrazoi politikoengatik, ez politikoengandik. Arrazoiok okerrak edo zuzenak izan daitezke, sakonak edo arolak, bidezkoak edo maltzurak, baina sekula ez, ostera, bizidunak. Pertsonak eta animaliak dirateke bizidunak; eta, aspaldiotan, behar bada, baita marrazki biziak ere. Baina, arrazoiak? Ez dakit ba nik... Ezta arrazoi politikorik gorenak izan arren ere.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola

Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iratxe Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Julen Iriando
Maketaria Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetzea eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetzea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetzea@goiena.com

Legu Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Baliteke gidariren bati teleordainketa berria ez interesatzea

Gipuzkoako autobideetan, gehienez

25,64€ /hilean
(gipuzkoarrentzat bakarrik)



Martetik ez bazatoz eta Gipuzkoan erroldatuta bazaude, interesgarria irudituko zaizu zifra hau: 25,64€/ hilean. Teleordainketaren gehieneko tarifa berria duzu, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bidegik martxan jarria, AP-1ean eta AP-8an egunero ibiltzen diren milaka gipuzkoarren gastua arintzeko.

www.bidegi.net



Gipuzkoa
BERRIA

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Aitor Irure | Herri Batasuna alderdiko zinegotzia Aretxabaletan (1987-1995)

- ▶ Hizkuntza eta Normalizazio arloko ardura zuen HBk
- ▶ Euskara batzordeko buru izan zen, eta alkateorde
- ▶ Bi egitasmo gelditu ez izanaren pena dauka

"Gobernuan zein oposizioan zintzo eta serio aritu ginen lanean eta eragina izan zuen osteko hauteskundeetan"

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Aitor Irure (Aretxabaleta, 1961) Herri Batasuna alderdiko zinegotzi izan zen bi agintalditan; 1987tik 1991ra. "Ustekabea" sartu zela dio, laugarren hautagaia zela; bigarren (1991-1995), ostera, zerrendaburu izan zen.

EArekin batera Udal Gobernu osoa zuten 1987tik 1991ra.

Bai, HBk Hizkuntza eta Normalizazio arloko ardura hartu zuen eta nik, Euskara batzordeko arduraria. Egoeraren hausnarketa sakona egin ostean (hainbat erakunderekin batera), Euskara teknikaria sustatu eta lortu genuen.

Udal Gobernuan urtebete egin ondoren, kaleratuak izan ginen, kalean jartzen zen publizitatearen kudeaketa zela eta. Guk bereizi egiten genuen aldarrikapen politikoa eta beste zenbait propaganda. Alkateak ikuspegi hori partekatzen ez zuenez, bota egin gintuen Udal Gobernutik.

Bigarren agintaldian EArekin eta PSE-EErekin osatu zuten Udal Gobernu osoa. Zela moldatu zineten?

Alkateak, Pedro Mendietak, udal ordezkari zuten alderdi guztiekin nahi izan zuen osatu gobernu osoa, baina EAJ-PNVk bien arteko soilik aldarrikatu zuen; eta bere kabuz hartutako erabakiz, gobernutik kanpo geratu zen.

Gorabehera dezente izan genituen, baina, tira, gai izan ginen hainbat egitasmo aurrera ateratzeko, eta agintaldi itxurosoa osatu.

Zelako giroa zegoen udaletxean alderdion artean?

Egunerokotasunean giroa nahiko normala zen. Desadostasunak gai konkretuetan azaltzen ziren (mozio politikoak, hirigintza egitasmoak, kudeatzeko erak...), batzuetan indar edo berotasun handiagoarekin, baina, oro har, ondo bereizten genituen makro (nazio) eta mikro (herri) politika.

Une gogorrik pasatu zenuen?

Bat baino gehiago. Estreinako agintaldian lau zinegotzi ginen, eta ez genuen esperientziarik.

"Kaleko publizitatea zela-eta kaleratu egin gintuzten Udal Gobernutik"

"Ondo bereizten genituen makro (nazio) eta mikro (herri) politika"

Eskerrak garai hartako idazkariak, Arrate Urretak, emandako laguntzari; pazientzia handia izan zuen gurekin.

Bestalde, artean gaztea nintzen, eta nahiko odol berokoa. Hainbat erabaki ulergaitz egiten zitzaizkidan, eta halaxe, bere gordintasunean, adierazten nuen. Alde horretatik ez nintzen batere politikoa, eta horrek bazuen bere alderdi txarra arlo pertsonalean. Baina momentu onak gailentzen zaizkie; besteak beste, taldekide batzuk lagunak izatera pasatu dira eta gaur egun harreman horiek bizirik diraute.

Garai hartan egindako edo lortutako zer daukazu gogoan?

Lorpen bat izan zen hirigintza mailan planteaturiko egitasmo bat hizkuntzaren normalizazio arlori bideratzea; hau da, udal txeharren berrikuntza Euskal Txokoa izatea. Zoritxarrez, Euskal Txoko horrek ez zuen jarraipenik izan ondorengo agintaldietan.

Eta zerbait egin gabe geratu izanaren penarik baduzu?

Egin gabe baino gehiago, bi egitasmo gelditzeko izan genuen gaitasunik ezak ematen dit pena. Bata, Araba ibilbidean eratu zen industrialdea. Guretzat ez zen lekurik egokiena eta hala ikusi



Aitor Irure, udaletxe aurrean. | M.A.

zuten herriko beste hainbat lagunek ere. Ia 1.000 sinadura aurkeztu genituen proiektuaren aurka, baina ez zuen ezertarako balio izan. Industrialde hori bainuetxera eramatea zen gure alternatiba, bertan aisialdirako parke bat eraikita.

"Araba ibilbideko industrialdearen aurka ia 1.000 sinadura jaso ziren"

"Zinegotzi lanak herria ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen du"

Bestea Otxalorako (Aozaratz) bigarren eraikuntzarena izan zen, legearen zirrikituak erabiliz aurrera eraman zena. Guk Iruikua baserria jotzen genuen alternatibatzat, eta, inguruak ondoren izan duen bilakaera ikusita (bidegorri berria, baserria erortzen...), uste dut zuzen genbiltzala.

Zortzi urte egon ostean, zein ikasgarekin joan zinen?

Harro sentitzen naiz egindako lanarekin. Gu zinegotzi sartu aurretik ezker abertzaleko ordezkarietara leporatzen ziguten "ezetz" esaten baino ez genekiela. Gu Gobernuan zein oposizioan zintzo eta serio aritu ginen lanean, eta esango nuke horrek eragin zuzena izan zuela osteko udal hauteskundeetan. Bestalde, zinegotzi lanak aukera paregabea eskaintzen du herria ezagutzeko. Hori guztia gutxi balitz, emaztegaiarekin ere joan nintzen.

2013
urtarrila | otsaila
Elgetako Espaloia
kafé antzokian

Elgetako

I. MONOLOGO MOSTRA

KAFÉ ANTZOKIA
espaloia
ELGETA

Urtarrilak 18 eta 19 - 22:30
ERNESTO SEVILLA

'Monologos Coconut' ikuskizuna.

Gidoilari eta aktorea, baina batez ere komikoa. Ernesto Sevillak dioen moduan: "Barrez lehertuko gara gaur gauean".

sarrerak erosteko: www.espaloia.com



HERRIAK

ARRASATE

50 urte AMAT sortu zutela

- ▶ Urtarrilaren 2an AMAT kooperatiba izan zenaren 50. urteurrena bete zen
- ▶ Ramon Aperribaik gogorarazi du urteurrena, bertako langileak errekonozitzeko asmoz

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Hainbat arrazoi tarteko AMAT izango da Arrasateko kooperatiben artean errekonozimendu gutxien jaso duen lantegia. Horren ustea du Ramon Aperribaik –kalean ere halaxe aitortu izan diote– eta arrasatearraren ustetan ez da bidezkoa: "AMAT-ek urte onenatan herriko 400 familiei jaten eman zielako, eta bertako langileek gogor egin zutelako lan. Uste dut langile horiek guztiak errekonozimendua merezi dutela. Esaterako, deigarria da, egunotan Kulturaten egon den erakusketan Arrasaten sortutako enpresen artean ez zeto-rella AMAT-en berri".

Hain zuzen, duela bi aste bete zen AMAT sortu zuteneko 50. urteurrena, eta Aperribai bera arduratu da enpresaren historian errebasoa egiteaz, ezaugarri bitxiak izan zituen lantegia izan zena.

1963ko urtarrilaren 2a

Egun hartan sortu zuten AMAT kooperatiba industrialia (Accesorio Maleable de Tuberia): "Kuriosoa da, baina AMAT ez zen sortu Arrasateko Kooperatiba taldearen barruan. Modu paraleloan sortu zen, izan ere, ELMA enpresak ekoizten zuen produktu berbera ekoizten zen AMAT-en (*fittings* hoditeria osagarriak) eta konpetentzia horrek orduko mugimendu kooperatibaren araudiaz talka egiten zuen".

Hori horrela, AMAT-ek bere kabuz ekin zion ibilbideari, Euskadiko Kutxatik kanpoko kooperatiba moduan, baina kooperatibako estatutuek adierazitako baldintza guztiak zorrotz beteta: "Hastapeneko urte haiek ez ziren



AMAT lantegiaren sarrera, erretratu zaharrean; egun, Ederlanek Urribarrin duen lantegietako bat da. | RAMON APERRIBAI

batere errazak izan, ederrak entzun behar izan genituen", dio Aperribaik. Baina, batere etorkizunik ez zutela ziotenei entzungor, 23 laguneko lan-taldeak gogor ekin zion jardunari: "Ilusio galantaz hasi ginen, lan-bazkide guztiak ziren enpresako bazkide, ez genuen bazkide kapitalistarik onartu".

Hala, 1963ko urtarrilaren 2an sozietatea eta lehenengo zuzendaritza batzordea osatu zuten. Hasierako 23 langileetatik 40ra handitu zuten lantaldeak, eta Otolara kaleko Argi tindategian hazi zuten lantegiaren ibilbidea. Lokal hura txiki geratuta, urte hartan bertan hasi zituzten Urribarrin (Mendibarreneko lur-zoruan) lan-

tegia eraikitzeko obrak: "Prozesu erabat positiboa izan zen, eta ordurako lantegian 300 lagun genduz lanean. Garrantzitsua da azpimarratzea inbertsio horiek guztiak egiteko Donostiako Aurrezki Kutxaren, Bizkaiko Bankuaren eta Santander bankuaren finantziazioa izan genduela".

Urte oparoak izan ziren haiek AMATendako (1964-1966 urte artekoak, esaterako): "Kostuetan dezente aurreztu ahal izan genuen, Bixente Urtzelai berak egin zituelako pabilioiko planoak, eta baita etorkizunean enpresak berak erabili beharreko zenbait elementuren diseinuak ere. Horrek asko lagundu zuen kostuak txikitzen, eta urte gutxitan enpresak zor guztiak kitatu zituen". Aldi berean, aurreikuspen-fondo soziala ere ezarri zuten bazkideek, orduan Lagun Arok egiten zuen moduan: "1966an, berriz, lege bat tarteko derrigorrezkoa ezarri zuten Gizar-

te Segurantzaren kotizatu beharra, eta horretarako mutua batera jo behar genuen".

Ondo egonkortuta

Erabaki hori hartu zuteneko, Aperribairen esanetan, AMAT ondo egonkortuta zegoen enpresa zen: "Kooperatiba taldetik kanpo generaman ibilbide alternatiboa aztertu genuen, eta emaitza erabat positiboak genituen. Baina, kanpoko mutua batera jo beharrean Lagun Aron sartu ginen. Aurreko urteetan bizi izandakoak bizi ostean askok ez lukete halakorik egingo, baina etorkizunean pentsatuz, solidaritatez jokatu eta pentsamendu sozial kooperatibistaz kontzektuente izanda horixe erabaki genuen".

Pauso hori eginda Euskadiko Kutxan sartu ziren jarraian, eta bertako zerbitzu teknikoak eta ekonomikoak baliatuta sakoneko industri-garapen prozesua bizi

izan zuen enpresak: "AMATen bertan sortutako irabaziekin finantziazten zen enpresa, eta horrek produkzioa handitzea ekarri zuen, baita irabaziak handitzea ere. Hala, *fitting*-etan produkzio maila eta errentagarritasunean Espainiako lehen enpresa bilakatu zen, eta Euskadiko Kutxan zeuden kooperatiba guztien artean salmenta mailan lehen hamabosten artean kokatu zen. Arrasateri dagokionez, langile kopurua kontutan hartuta bost handien artean kokatu zen".

Giroa nahasten hasi zen

Aperribaik garbi adierazten du Caja Laboralen sartzean lankidetzaren autonomia, zintzoa eta laguntasunekoia izan zela, eta 1975era arte enpresak garapen oso ona izan zuela. Hortik aurrera, baina, giroa nahasten hasi zen: "Zatartu egin zen enpresako giroa eta gerente karguan geunden Bixente Urtzelairi eta bioi egotzi ziguten txarto kudeatzen ari ginela lantegia. Ordura arte AMATen egindako gestioa erabat independentea izan zen, eta behin kooperatiba taldean sartuta, baliteke arazoa hura izatea. Hala, egoera hura ikusita, eta arduraz jokatu, enpresa banatzea baino nahiago izan genuen dimisioa aurkeztea, zuzendaritza talde berriak egoera zuzenduko zuten itxaropenaz".

Ez zen halakorik lortu, eta hurrengo urteak zailak izan ziren AMATen, 1990era arte enpresaren irabaziak jaisten joan ziren. Azkenean, *fitting* produkzioa bertan behera uztea erabaki zuten, berau produzitzeko makinaria guztia saldu, eta gaur egungo Ederlan kooperatibak bereganatu zuten, hortik aurrerako jarduna fundizioan zentratuz: "Uste dut errekonozimendua merezi dutela orduko AMATEko bazkideek, urtetan ilusioz, zorrotasunez, solidaritatez eta idealez beteta lan egin zutelako. Eta, urteurren honetan uste dut aipamen berezia merezi duela Bixente Urtzelai zenak, enpresako fundatzaile eta AMATEko garapenean ezinbestekoa gizona. Langile horiek guztiak egin zuten enpresa gizatiarragoa, justuagoa eta solidarioagoa. Eta besteak beste, euren ekarpenari esker da gaur egun Ederlan halako enpresa sendoa". Memoria historikoa berreskuratzeko ahalginean, horra Ramon Aperribairen ekarpena.



1964an, Urribarriko parrokoa lantegia bedeinkatzen. | RAMON APERRIBAI

DATUA

400

LANGILE

AMAT kooperatiba ia 400 langile izatera iritsi zen sasoi onetan.

ESANAK

"AMATEko bazkideek agur bat merezi dutela uste dut"

RAMON APERRIBAI | GERENTE OHIA

ELGETA

Jendetsua izan da aurten ere gudarien omenez Intxortara egindako igoera

Ekitaldia eta argazkia egin zituzten atzo eguerdi partean tontorrean

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

11:00etan zuten hitzordua Intxorta tontorrean, eta euri arriskuari zein hotzari aurre eginez talde polita elkartu zen Intxortako

txabola ondoan. Antolatzaileek 150 bat lagun kontatu zituzten. Jendeak gustura hartu zituen han banatutako sagardoa eta, batez ere, salda beroa.

Hamaiketakoaren ostean ekitaldia egin zuten mendi tontorrean bertsolarien dozena erdi bertsoekin lagunduta. Elgetako kaleetan jarraitu zuen festa giroak.



Intxortan batutakoek ateratako argazkia. | ENAITZ EZPELETA



ARETXABALETA

XABIER URTZELAI

Motorra, oraingoan, kabinan

Ezustekeetarako kutxa bihurtuta dago azkenaldian Aretxabaletako plaza ondoko telefono kabina. Basurde bat agertu zen aurrena, fruta utzi zuten gero, barruko arropa esekita ondoren eta atzo goizean motor bat agertu zen kabina gainean. Ertzaintza ere joan zen lekura, eta garabi baten laguntzarekin jaitsi zuten ibilgailua han goitik. Baten batek hartzen ditu lanak aldrebeskeria horietan!

OÑATI

Urbia: elurra bai, mendian behintzat

Astebururako iragarritako txaraldia iritsi zen eta giroa hozteaz gainera prezipitazioak ere nahikotxo izan dira egunotan. Domekan, adibidez, elurretan egin zuen Arantzazutik gora, eta Urbian geruza polita zegoen pilatuta eguerdi parterako. Jende askorik ez mendian, baina zirenek zuria zapaltzeko modua izan zuten.



GOIATZ ARANA

OÑATI

70 lagun baino gehiago Oñatiko Misio taldearen afari solidarioan

ANDER MONEDERO | OÑATI

Egubakoitz iluntzean, Oñatiko Pastoral Barrutiko Misio taldeak afari solidarioa egin zuen Bidaurretako monasterioan. Bertan, letxuga eta patata tortilla afaltzen 70 lagun baino gehiago izan ziren. Misio taldeko kideak pozik agertu ziren afariak izandako harrearekin, izan ere, espero baino jende gehiago etorri zen eta espero baino diru gehiago batu zuten.

Afari solidarioan lortutako diruarekin, eta 2012an egindako

ekintzekin lortutakoarekin, Misio taldeak proiektua aurrera eramateko aurreikusitako 12.000 euroak batu ditu.

Saint Paul ikastetxea

Oñatiko Pastoral Barrutiko Misio taldeak 2012. urtean batutako dirua Maliko Togo herrian dagoen Saint Paul ikastetxean egin beharreko lanetara bideratuko dute. Izan ere, Malik bizi duen egoera oso larria da: lehorte handia dago eta elikagaien falta handia dute.



Egubakoitzean afari solidarioan parte hartu zuteneko batzuk. | ANDER MONEDERO



Marikalanbre eta Largabista pertsonaiak, hurrekin kantuan. | JOSETXO ARANTZABAL



Marikalanbrek ezustekoa eman zien txikiei. | JOSETXO ARANTZABAL

ONATI

Dantza, ipuin, kantu eta irrien lagun talde handia

Irrien Lagunak Antixena gaztetxean izan ziren atzo, herriko txikien eta gurasoen pozerako

JON BEREZIBAR | OÑATI

Izerdi nahikoa botata amaitu zuten arratsaldea Oñatiko txikien atzo Antixena gaztetxean. Aretoa dantzaleku bihurtu eta geratu barik ibili ziren atzokoan.

Abesti, ipuin eta jolas ezagunekin osatzen dute ikuskizuna Irrien Lagunak taldekoek, koreografia erraz eta jostagarriekin eta hurrei aspertzeko betarik eman gabe. Pirritx eta Porrotx pailazoek

hasi eta bete betean asmatutako bide beretik dihardute hauek baina formatu txikian eta dantza eta kantuari pisu gehiago emanez, pertsonaia berriekin. Etxeko txikienek ez dute gehiago behar, bistan denez, eta guraso asko eta asko ere animatu zitzaizkien atzo dantza eta kantura.

Antixena gaztetxea behintzat bete zen atzo iluntze busti eta hotzean eta atea ireki eta bestelako bisitariei leku eginda gaztetxe berria ezagutzeko aukera izan zuten askok eta askok. Giroa behintzat bikaina izan zen.



Largabista zezentxoarekin. | JOSETXO ARANTZABAL



ESTI ETA EGOI
OÑATI

"Oso polita izan da. Ume txikiak dauzkagunendako oso ondo dago eta gu askotan joan izan gara ikuskizunak ikustera. Gu txikiak ginenean ez zen halako ezer egoten, egon ere ez zegoen. Orain denetarik dago eta umeak oso gustura etortzen dira Irrien Lagunak ikustera. Guraso taldea etorri gara oraingoan eta umeek ezin hobeto pasatzen dute jolasean, dantzan eta kantuan".



KELTZE ETA AINHOA
OÑATI

"Gaurkoa moduko egun hotz eta busti baterako sekulako plana da txikiekin etortzeko. Ederto pasatu dugu. Gauza desberdinak egiteko aukerak eskertu egiten dira. Halako gauzak egotea oso ona da, gu txikiak ginel, gogoratu ere ez naiz egiten halakorik egon bazegoenik. Gu etxean oso Pirritx eta Porrotx zaleak gara eta kantu eta bideo guztiak buruz dakizkigu. Hona ere abestiak ikasita etorri gara".



HAIZE, ASIER ETA IRATI
OÑATI

"Oso plan ona izan da gaurko eguraldiarentzako. Gaztetxekoei ere eskertu behar zaie eman duten bitzesunarengatik. Pirritx eta Porrotxek eta Irrien Lagunek pare parean harrapatu gaituzte eta egun guztia gaude kantuekin bueltaka. Nik bat bera ere ez dakit baina ezagunak, guztiak. Umeekin guk ere, guraso moduan, ondo pasatzeko aukera ematen dute halako ikuskizunak".



ANTZUOLA

JESUS KORTABARRIA

Mus txapelketa Mox-en

Mus txapelketako bigarren kanporaketa egin zuten barikuan Antzuolako Mox tabernan. Herriko zazpi bikote berrik hartu zuten parte. Finalerako bikote bakarra sailkatu zen ostiraleko saioan, Sergio Sanchez eta Jabi Berraondok osatutakoa, hain zuzen. Datorren asteburuan beste bi kanporaketa egingo dituzte eta orduan jakingo dira finalean parte hartuko duten bikote guztien izenak.



ARETXABAETA

JOSETXO ARANTZABAL

Wii txapelketa egin zuten ludotekan

Kaleko eguraldiak bestelako planetarako oso motibo gutxi ematen atzo eta Aretxabaletako ludotekan halakoetarako plan ezin hobea zeukaten gertu arratsalderako. Hala, Nintendo Wii bideojoko txapelketa antolatuta izan eta han ibili ziren, ludotekan, 17:00etatik aurrera, nor baino nor kotsola ezaguneko pertsonaiekin jolasean pantailatik begiak kendu ezinik puntu gehien lortuko abilezia erakusten. Arratsaldea konturatzerako pasa zitzairen han bildutakoei.



Besaidek ia 2.000 bazkide ditu egun eta denetariko ekintzak antolatzen dira urtean zehar. | GOIENA

Zuzendaritzan sartzeko kide berririk ez Besaiden

Egueneko Batzar Orokorrean arazoa gogora ekarriko du egungo taldeak: "Prest gaude hasieran laguntzeko"

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"Urtero federatu txartela berri- tzeke bidaltzen dugun eskutitzean jakinarazi genien bazkideei gure aroa amaitu denez, zuzendaritza taldea berritzea beharra zegoela eta guregana beldur barik etor zitezela. Oraindik ez da inor agertu". Aitor Zubiaga Besaide mendizale elkarteke zuzendaritza taldeko kidearen hitzak dira. Haren bitartez saiatu gara ulertzen nola ia 2.000 bazkide eta milatik gora federatu dituen elkarte bateko zuzendaritza taldeak zergatik ez duen hautagai berririk: "Arazoa ez da berria, gu ere elkartearen etorkizuna arriskuan zegoelako sartu ginen zuzendaritzan".

Lantaldeetan arazorik ez

Harritzekoa da, izan ere, urtean zehar Besaidek denetariko ekintzak antolatzen ditu: "Kontu kurioso bat gertatzen da. Besaideko lantalde ezberdinak ondo finkatuta daude: BTT taldea, mendiko eskirako taldea, espi alpinorako taldea, Leixergarateko aterpetxe- rako arduraduna... Horiek guztiek euren martxa daramate. Baina zer gertatzen da hori guztia koordinatu behar duen zuzendaritza taldearekin? Bada, kudeaketa lan minimo bat eskatzen duela eta jendea ez dagoela prest konpromiso hori hartzeko". Halako elkarte baten hainbat lan sortzen dira eta lan hori gauzatzeko ideia

berrien beharra azpimarratu du Zubiagak: "Erreleboa ona izango da denondako; ideia berriak, haize freskoa. Penagarriena dena da ekintzak antolatzen dituzten lantaldeen funtzionamendu ona arriskuan jartzea kudeaketa orokorrerako inor ez egoteagatik. Oraingoz *in extremis* libratu gara, eta aurrerantzean ikusi beharko. Arazoa handitzen joan da azkenaldian".

Joera orokorra denik ezin ukatu, boluntariora ez dago-eta bere unerik gozoanean: "Daramagun bizimodu honekin oso zaila da ulertzea ordu batzuk sartzeara, espainolez esaten den moduan, *por amor al arte*. Baina esan beha-

ESANAK

"Erreleboa ona da denondako; ideia berriak, haize freskoa"

AITOR ZUBIAGA | ZUZENDARITZAKO KIDEA

rra dago tarteka poztasun uneak ere eskaintzen dituela. Norberak ikusi behar du noraino hel daitekeen".

Arazoa, Batzar Orokorrean

Eguen honetan egingo dute urteroko Batzar Orokorra Kulturateko Jokin Zaitegi gelan (19:00). Diru kontuak eta ekintza plana aurkezteaz gain, aurten gogora ekarriko dute zuzendaritza batzorde berria hautatzeko beharra.

Inor aurkezten ez bada –"Nor- bait pertsonalki presidente kargurako aurkeztea oso arraroa izango litzateke", aitortu digu Zubiagak–, lehen hilabeteetan aurreko taldeak jarraituko du lanean; oraingoz ez dira estatutuak aldatuko: "Prest gaude oraindik azken esfortzu bat egin eta hasierako hilabeteetan talde berriarekin batera lan egiteko. Baina hori, noski, erantzunaren arabera izango da".

Jende gehiago Leixargaratera

Bestalde, diru aldetik ondo dago elkarte eta beste albiste pozgarri batzuk ere badira. Horren adibidea da Aizkorri-Aratz parke naturalean dagoen Leixargarateko aterpetxea: "Mendiko aterpea txukundu eta *goxotu* genuenetik gero eta jende gehiago erabiltzen du. Garrantzitsua da jendeak aterpetxea erabilgarri dagoela jakitea; paraje ederrean dago".

Zineforuma gaztetxean, Askapenak antolatuta

J.B. | ARRASATE

Arrasateko Askapenak Zineforuma antolatu du Arrasateko gaztetxean. Adierazi dutenez, domekero izango da film edo dokumental bat ikusteko aukera gaztetxean bertan. Urtarrilean Palestinako herria izango da gaia. Ekimenaren estreinaldia atzo izan zen; lehen dokumentala Palestine (Off the record) izan zen.

Palestinako eta Israelgo gizarteko hainbat elkarte eta aktibisten iritziak elkartrukatzeko dira lan horretan, nabarmenak eta garrantzitsuak diren gai eta ikuspuntuak elkartrukatzeko. Palestinaren okupazioaren arrazoi sakonei buruz hitz egiten da.

Asteon, 'Domicilio Privado'

Beraz, datozen bi domeketan ere egongo da zer ikusi gaztetxean Palestinaren eta Israelen arteko auzia interesatzen zaionarendako. Asteon, *Domicilio Privado* ikusteko aukera izango da, 18:30ean. Saverio Costanzo italiarrak zuzendutako filmak Palestina eta Israelen arteko puntu estrategiko baten bizi den familia baten istorioa kontatzen du –benetako istorio baten oinarrituta dago–. Oso kritika onak jaso zituen 2004an estreinatua zenean.

Urtarrileko emanaldiek in amaitzeko, hilaren 27an Ghetto 2009 filma ikusteko aukera egongo da.

Ikastaro berria antolatu du Loixe zeramika taldeak

Urritik abendura egon zirendako jarraipena eta hastapen saioak egingo dira; bihar hasiko da

J.B. | ARRASATE

1980eko hamarkada hasieran jaio zen Loixe elkarteak, zeramika lantzen zuten zenbait arrasatearren eskutik. Hainbat urtez



Imanol Aranburu Loixeko kidea. | J.B.

lozorroan izan ondoren, aspaldiko zaletasunari berriro ere eutsi lanean hasi ziren berriro. Joan den urrian antolatu zuten lehen ikastaroa: "Bost lagunek eman zuten izena eta oso gustura aritu ginen, lan giro ederrean. Gainera, lanak Santamasetako artisau azokan erakutsi genituen. Gainera, guztiek erakutsi dute jarraitzeko asmoa; oso pozik gaude. Era berean, zeramika ezagutzen ez dutenendako ere badago lekua", adierazi du Imanol Aranburu Loixeko kidea. Bihar hasiko da ikastaroa; martitzenetan zein eguenean elkartuko dira (18:30-20:30), ospitale atzean duten egoitzan. Aurrera begira, ikastaroak antolatzen jarraituko dute: "Tailerrek ematen diote bizitasuna elkar- teari berari", dio.



JOKIN BEREZIARTUA

Gipuzkoa etorbideko lanak, laster

Argindar sarea osatzeko Iberdrolaren linea berri batzuk jarri behar izan dituzte Gipuzkoa etorbidean eta horretarako zoria altxatu behar izan dute, noranzkoetako bat itxiz. Horregatik jarri dituzte semaforoak. Egoera normaltasunerako noiz itzuliko den jakiteko data zehatzik ez dago baina egubakoitzean lanean harrapatu genuen langile baten arabera, ia dena amaituta dago: "Azken erremateak falta dira bakarrik".

Asfaltatze planaren barruko obren esleipena, Tokikora

Astelehenero moduan, gaur ere hainbat gai landuko dira Tokiko Gobernu batzarrean. Besteak beste, Kontratazio Mahaiak iaz zehaztutako asfaltatze planaren barruan dauden lanak esleitzeko proposamena onartu beharko du. Horrez gain, Tokiko Agenda 21eko ekintza planean zenbait aldaketa egitea ere aztertuko dute.

Haurren konfiantza lantzeko hitzaldia hilaren 24an

Txatxilipurdik antolatuta, Nerea Mendizabal psikopedagogoa *Gure beldurrei begiratu, haurren konfiantza bermatzen* izenburu duen hitzaldia eskainiko du hilaren 24an, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan (17:30). Haurrek dituzten beldurrei aurre egiteko estrategiak azalduko ditu Mendizabalek, besteak beste.



Mozambikeko proiektuaz egingo du berba Beñat Arzadun proiektuen kudeatzaileak. | MUNDUKIDE

Mozambikeko proiektuen berri emango dute Kulturaten

Beñat Arzadunen hitzaldia etzi, Harreman GKE eta Mundukidek antolatuta

ZURIÑE V.DE MENDIZABAL | ARRASATE
Aspaldi hasi ziren Harreman Gobernu Kanpoko Erakundea eta Mundukide Mozambikeren hainbat proiektu garatzen. Hala, eguaztenean, Kulturateko areto

nagusian hitzaldia eskainiko du Beñat Arzadun Mozambikeko proiektuen kudeatzaileetarikoa batek. Hala, lehenengo pertsona ezagutu ahal izango dute arrasatearrek egitasmoa.

Sentsibilizazio kanpaina baten barruan hitzaldiak eman izan ohi ditu Harreman GKEk eta eguaztenean hala izango dela esan digu Cristina Etxenausia erakundeko kideak. "Mundukidek

zuzentzen eta Harremanek kolaboratzen duen proiektua da Mozambikekoa".

Duela gutxi iritsi zen Beñat Arzadun Afrikatik, eta bere bizipenak gerturatuko dizkie Kulturatera bertaraten direnei, Etxenausiaren esanetan.

Gainera, hirugarren urtez jarraian Txorbela Otxotea alboan izango dute. "Oso pozik kolaboratzen dute Harremanekin, eta jendeak ere gustura entzuten ditu beraien kantuak". Ekitaldiaren amaieran abestuko du taldeak.

Harremanen deskargua

"Oso labor bada ere, ekitaldia aprobetxatu gura dugu Harreman GKEen egiten dugunari buruz berba egiteko". Arrasaten erakundea ezaguna den arren, deskargua egingo dute: "Ekintzen berri eman eta batutako dirua zenbatekoa izan den eta horretatik zenbat ematen dugun azalduko dugu. Normalean jasotako dirua inbertitzen dugu, Mozambikeko proiekturako edota Ankur egitasmorako (nesken umezurtz-etxea)".

Hala, interesa duten guztiak animatzen ditu Etxenausiak eguaztenean ekitaldira: "Beti izaten da interesgarria horrelako proiektuak ezagutzea eta ematen den dirua nora doan ikustea".

Diru kontuak aipatuta, krisi garaian egonda, zenbait kontutan atzeraldia igarri duten arren, "herriarrek beraien ekarpenak egiten jarraitzen dute", eta eskerak eman dizkie guztiei beraien laguntzagatik.

Xabi San Sebastian Band-en rocka eguenean

Z.V.D.M. | ARRASATE

Porco Bravo bizkaitarren punk doinu zikinen ostean, Xabi San Sebastian Band taldearen txanda izango da eguen honean, 22:00etatik aurrera.

Iker Barandiaran Kooltur Osteguneko kideak Arrasate Irratiari kontatu bezala, "musikari beteranoa da, ez horrenbeste adinagatik, baina bai bizkarrean daukan ibilbideagatik".

Bakarka, taldean edota Kepa Junkera moduko musikariek aritu izan da San Sebastian. "Duela urte batzuk sortu zuen taldea eta hiru disko kaleratu ditu. Ospela izan zen aurrenekoa, folk eta pop-rock doinuez josita".

Denborarekin, baina, doinu *rockeroagoak* egiten hasi eta horixe eskainiko du eguenean gaztetxean.

Arrasate Zientzia Elkartearen batzar orokorra

Z.V.D.M. | ARRASATE

Arrasate Zientzia Elkartek batzar orokorra deitu du hilaren 19rako, zapatua. Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan izango da hitzordua, 11:00etan hasita.

"AZE berriro ere martxan ipini zenetik (2012ko urtarrilean) aurreneko batzar orokorra izango da": Hala esan digu Arantza Otaduy elkartearen kideak. "Izan ere, ez dugu ahaztu behar 90. hamarkadan sortu zela". Hain zuzen ere, 1990 eta 1993 urteen artean jardun zuen aurreneko eta ia hamarkada bat lozorroan pasa ostean, azken urtetik hona lanean buru-belarri dihardu elkarteak.

Zapatuko batzar orokorrean bazkide eta ez bazkideek parte hartu dezaketela esan digu Arantza Otaduy: "Interesa duten guztiak etor daitezke".

Inauterietako kartel lehiaketak 400 euroko saria dakar berarekin

Urtarrilaren 23ko 19:00ak bitartean aurkeztu daitezke BAZen inauterietako kartel lehiaketako lanak. Estilo librean eginak, *2013 Inauterietako Arrasate* testua agertu behar da idatzita. Oinarri guztiak udaletxeko iragarki taulan zein <http://www.arrasate-mon-dragon.org/> helbidean kontsulta daitezke.



Beñi Agirre berbalduko une batean. | Z.V.D.M.

Orreaga gerturatu zien Beñi Agirrek arrasatearrei

Eguenean eman zuen berbaldian Orreagako guduaz eta euskaldunen protagonismoaz aritu zen

Z.V.D.M. | ARRASATE

Kulturateko areto nagusira herriar ugari gerturatu ziren eguenean Arrasateko Udalak, Zuztarrak Errotuz taldeak eta Nabarralde antolatutako berbaldia entzuterako. Beñi Agirre historialari eta Naba-

rraldeko kideak hartu zuen hitza eta ostean, 'Orreaga 778-824' DVD emanaldia ere eskaini zuten.

Datu interesgarriak partekatu zituen Agirrek, eta ohiko bertsoaz haratago joan zen Orreagako gudua azaltzerakoan.

Berramesten proiektuaren alde, otarra banatuta

Txatxilipurdiko Berramesten proiektuaren alde ateratako txartelen zenbaki saritua 203 izan da. Santi Rajadok irabazi du eta jolas eta musikaz osatutako otarra eraman du etxera. Argazkian, Rajadoren ordezkaria jaso zuten lagunak. Zorionak!



TXATXILIPURDI

Emakumeen sexu eta ugalketa eskubideen urraketaren gaineko erakusketa udaletxean

Osoko bilkuren aretoan egongo da ikusgai, astelehenetik domekara, urtarrilaren 27ra arte

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Medicmundi Gipuzkoako Udaleko Berdintasun Zerbitzuen laguntzarekin *Sexu eta ugalketa eskubideak, eskubiderik gizatiarrak* erakusketa ekarri du Bergarako udaletxera. Gaur hasi eta urtarrilaren 27ra arte egongo da ikusgai osoko bilkuren aretoan. Astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik eta zapatu eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Kontzientzia piztu nahian

Peruko Manuela Ramos Mugimenduari laguntzaz eta Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatuta prestatu da erakusketa. Haren helburua da sexu eta ugalketa eskubideek munduan bizi duten egoeraz gipuzkoar biztanleak sentsibilizatea.

Emakumea da, nola ez, erakusketaren protagonista. Izan ere, abiapuntutzat hartzen da emakumeek eskubide horiek bermatuta izatea eta erabili ahal izatea funtsezko elementua dela herrialdeen garapenerako eta generoen arteko berdintasuna lortzeko.

Eskubideak eta oztopoak

Hamaika panelen bitartez, sexu eta ugalketa eskubideak zer diren azaltzen ahalegintzen da erakusketa eta horietako batzuetara hurbiltzen da: bortizkeriarik gabeko bizitza izateko eskubidera; segurtasun fisiko eta men-



Erakusketako irudi bat. | GOIENA

talaren eskubidera; sexualitate osoa eta arriskurik gabekoa izateko eskubidera; edota amatasun gogozko, libre eta osasuntsua izateko eskubidera. Era berean, eskubide horiek erabili ahal izateko dauden oztopoak azaltzen ditu.

Datu kezagarriak

Erakusketak datu esanguratsuek azaltzen ditu. Sexu eta ugalketa osasunerako aukerarik eza osasun publikoko arazo garrantzitsua da, herrialde txirotuetan batez ere. 530.000 emakume inguru hiltzen dira munduan amatasunarekin lotutako arazoengatik, eta, Nazio Batuen Biztanleria Funtzak dioenez, munduan sufritzen diren gaixotasunen zama globalaren %18k sexu eta ugalketa osasunari lotutako arazoekin zerikusia dute. Horien adibide dira hiesa -kutsatuta dauden %52 emakumeak dira- eta TSEak (Transmisio Sexualeko Eritasunak).

Gainera, 200 milioi emakumek baino gehiagok beren haurdunaldi kopurua bakandu edo mugatu nahiko luketela uste da, baina ez daukate familia-plan-



gintzako zerbitzu eta metodoetara sarbiderik. Horrez gain, 2.400.000 emakume eta neska sexu esplotazioaren biktima dira.

Herrialde askotan emakumeek ez daukate beren gorputzaren kontrolrik, ez eta beren sexu harremanen, beren ezkontza eta seme-alaba kopuruaren inguruan ere. Horrek dakar haurdunaldi eta hazkuntza garaiek beren bizitzaren zatirik handiena hartzea, eta, ondorioz, murriztuta edukitzea ikasketak hasi edo osatzeko, lanpostu bat lortzeko edo beste espazio publikoetan parte hartzeko aukera.

Begoña Otxoa-Azpiazu | San Martin eskolako zuzendaria

"Jasangarritasuna da errespetua ingurumenari eta gizakiari"

- Eskola Jasangarria kalitatezko ziurtagiria jaso du San Martin eskolak
- Duela zazpi urte sartu ziren Agenda 21 programan, hondakinen gaiarekin

A.B. | BERGARA

Bergarako San Martin eskolak Eskola Jasangarria ziurtagiria jaso berri du. Eskolako zuzendariaren hitzetan aitoren horrek lanean kementsu jarraitzeko nahia sendotu die.

Zer da Eskola Jasangarria ziurtagiria?

Etorkizun orekatuago eta jasangarriago baten alde lana eginez, ikasleen parte-hartze aktiboan, baliabide kudeaketa arduratsuan eta medio lokalaren zein sozialaren azterketan oinarritzen den hezkuntza praktikaren aitortpena da, datozen belaunaldiekiko errespetuzko jarrera sustatu eta elkar-tasunezko baloreak transmititzen ahalegintzen den eskola komunitate baten lana aintzat hartzen duena.

Zer suposatzen du ziurtagiria jaso izanak?

Kalitatezko hezkuntzaren alde ondo egindako lan baten errekonozimendua dela uste dugu. Ziurtagiriak etengabeko hobekuntza prozesuan kementsu jarraitzeko



Begoña Otxoa-Azpiazu ziurtagiria atzean duela. | ARRITXU BARRUSO

"Eskolan burutzen duguna sarri ez dator bat gizartearen ikusten denarekin"

nahia sendotu digu.

Zertan gauzatzen da San Martin eskolak jasangarritasunaren alde egiten duen lana?

Duela zazpi urte sartu ginen Agenda 21 programan. Hondakinen kudeaketa eta kontsumo

arduratsua izan ziren orduan jorratutako gaiak. Urteetan, gaia irakasleen bidez ikasturteko plangintza orokorrean txertatutako beste ekintza bat bezala antolatuta izan genuen, baina barneko bizi-pena botatzen genuen faltan. Konpromiso handia genuen eskola bezala, batez ere ospakizunetan sortzen ziren hondakinak kudeatzeko garaian edo ura nahiz energia aurreratzeko ahaleginetan. Baina bihotza falta zitzaioela ikusten genuen. Horregatik hasi ginen ikasleen bidez antolatzen jasangarritasunarekin zer ikusia zuen guztia eta, ardura beraiengan jarri ondoren, behatutakoaren azterketa gauzatzera animatzen genituen eta animatzen ditugu eten gabe. Gero dagokion hausnarketa egiten da eta azken urratsa da konbentzimendutik gertara jokabide jasangarriak eta ez eskolan horrela egin behar dutela esaten diegulako.

Jasangarritasunaren aldeko lanean zeintzuk dira hurrengo erronkak?

Ildo beretik jarraitzea. San Martin Agirre eskolak duen hezkuntza proiektuaren lerro nagusietariko bat ikasleak jasangarritasunerako hezte da. Ez da erraza, askotan eskolan burutzen saiatzen garena ez datorrelako bat gizartean ikusten diren jokabideekin. Jasangarritasuna da, bereziki eta batez ere, errespetua, ingurumenarekiko eta gizakienganako eta bai batean zein bestean asko kostatzen zaigu bestearekin lankidetzan aritzea.

San Kristobal eta Angiozar auzoetara herribusa

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Angiozarko auzotar talde batek Bergarako Udalari egindako eskaera baten ondorioz, herribusak Angiozar eta San Kristobal auzoetako bizilagunei ere eskainiko die zerbitzua aurrerantzean.

Astelehenetik egubakoitzera eskainiko da zerbitzu hori, eta, orokorrean, arratsaldeko ordutegia izango du. Dena dela, egubakoitzetan goizez ere egongo da, eta, hala, egubakoitz goizetako taxi zerbitzua ordezkatuko du.

Ordutegia

Astelehenetik egubakoitzera bitartean Agiozartik irteera 16:50ean izango da eta Bergaratik, 19:25ean. Egubakoitz goizetan, bestetik, 09:00etan irtengo da Angiozartik eta 11:30ean, Bergaratik.

Bedelkarren

Gabonetako zozketako zenbaki irabazleak

Bergarako merkatarien elkar-teak hainbat sari zozketatu ditu Gabonetan, eta zenbaki irabazleen berri eman du. Sari potoloa, 500 eurokoa, 24.613 zenbakiak irabazi du. Horrez gain, 200 euroko bost sari banatuko dituzte eta honakoak dira zenbaki sari-tuak: 4.763, 13.326, 39.057, 41.658 eta 63.890. Informazio gehiago, Bedelkarko dendetan.

Plaza libreak Migel Altuna Institutuaren zenbait ikastarotan

Gaur bertan hainbat ikastaro hasiko dira Migel Altunan. Langabeendako dagoeneko ez dago plaza librerik, baina langileentzat bai. *Fundizio eta forjarako molde eta ereduak diseinurako materialak, ACCES, Soldatak, kotizatzea eta diru-bilketak* dira ikastarotak. Informazio gehiago nahi izanez gero, honako telefono-ra deitu: 943 76 70 49.

Floren Aoz kartzela zaharrean izango da urtarrilaren 24an

Angiolillo Liburutegiak gonbidatuta Bergarako gaztetxean izango da urtarrilaren 24an, eguena, 19:00etan. *Mas allá de 1512. Memoria, política y hegemonía* liburua aurkeztera etorriko da Bergarara. Liburua Nafarroako Erreinua konkistatu zuten garaira bidaia da, gertakari hori mende hauetan nola kontatu den aztertuta.

Kaleko ontziak aldatzen hasi dira sailkatuta batzeko

Gaur egun herrian barrena dauden zaborrontziak –mila inguru– ordezkatu egingo dituzte, pixkanaka

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Zero zabor filosofia ardatz hartuta eta herritarrek kalean daudela sortzen dituzten hondakinak gaika jaso eta birziklatu ahal izateko, Udalak herriko kaleetan dauden zaborrontzi txikiak ordezkatu dituzte asteetan. Hori horrela, egungo zaborrontzi beltz bakarria desagertu egingo da eta lau koloretako ontziei egingo die tokia.

Hain zuen ere, ontzi urdina papera jasotzeko izango da; marroia, hondakin organikoentzako; horia, plastiko eta edu-

kiontzientzako; eta grisa, errefusa jasotzeko.

Egungoak aprobetxatuta

Herrian 1.000 inguru puntutan dauden zaborrontziak pixkanaka kenduz joango da Udala, gero ontzi berauek berriztatu, koloretatu eta berriz kalean jartzeko.

120na ontzi aldatuko dituzte aldi bakoitzeko. Hau da, aldi bakoitzean 120 ontzi kendu, berriztatu eta birkokatuko dituzte. Era berean, auzoen eta zonaldeen arteko oreka mantenduko da auzo guztietan egon dadin beti

hondakinak botatzeko aukera. Beraz, inoiz ez dira auzo bereko ontzi guztiak batera kenduko. Aldaketa horiekin guztiz bukatzean, hondakinak sailka jasotzeko 250 bilketa gunegun izango dira herrian. Aurrera begira, sor daitezkeen beharren arabera, bilketa gunegun gehituko dira.

4 ontzi, 4 kolore

ONTZI URDINA

Papera jasotzeko izango da.

ONTZI MARROIA

Hondakin organikoak botatzeko izango da.

ONTZI HORIA

Plastikoarendako eta edukiontzientzako izango da.

ONTZI GRISA

Ontzi urdin, marroi eta horira bota ezin den errefusa botako da horra.



Irudian Antzuolako gaikako kaleko ontziak. | GOIENA

Agorrosingo erabiltzaileek oso ondo baloratu dituzte kiroldegiko ikastaroak

Hobetu beharreko zereginen artean dago, besteak beste, itxaron zerrenden kudeaketa

XABIER URTZELAI | BERGARA

Agorrosingo erabiltzaileak, oro korrean, oso gustura daude Agorrosin kiroldegia eskaintzen dien ikastaro zerbitzuarekin. Emaiza hori jaso dute abenduan egindako ikastaroen asebetetze inkestetan; herritarrek 7,4ko nota eman diete. Guztira, udal kirol ikastaroetan parte hartzen duten 1.034 ikasle erantzun dituzte inkestok; hau da, ikasle kopuru osoaren %23ak.

Datuak bi modutan bildu dituzte. Alor zehatz batzuetan, letik 10erako puntuazioa eskatu dute, hain zuzen, arlo hauetan: jardueren iraupena, ordutegia, saio antolaketa, monitore lana, materiala edota puntualitatea, besteak beste. Hala, balorazio onena jaso du 3. adineko ikastaroak (9.20), eta baxuena helduen igeriketak (6.35). Eta alorrez alor egindako datu bilketaren ara-

bera, okerren baloratzen duten alorra izan da itxaron zerrenden kudeaketa (6.44). Eta, ondoen baloratu duten alorra, begiraleen lana (8.13).

Hobetu beharrekoak

Emaizak oso onak izan arren, inkestekin ikusi ahal izan dute non hobetu behar duten. Esaterako, epe motzean hobetu beharreko gaiak dira: material eta espazio baliabideen antolaketa –material gehiagoren premia dagoela adierazi dute erabiltzaileek. Itxaron zerrenden kudeaketa –Agorrosingo kudeatzaileendako lehentasuna izan du gai honek, eta aparteko ahalegina egin dute itxaron zerrendak murrizteko. Hala ere, arlo horrek 5.95eko nota jaso du.

Bada, arlo bakoitzeko ikastaroen notak Agorrosingo iragar taulan jarriko dituzte.



Jakiunderen eskutik polimeroak hizpide

Jakiundeko Maria del Carmen Mijangos eta Jose Maria Asua kimikariei polimeroei, energia berriztagarri eta plastikoari buruzko hitzaldia eskaini zuten Migel Altunan egubakoitz goizean. Egunerokotasunean polimeroek duten garrantzia azpimarratu zuten eta batez ere gazteak ikerketara animatzea izan zen hitzaldiaren helburua.

Zabalotegi aretoan gaztetxoendako 14 DJ jaialdi izango dira

Zabalotegiko urte osoko DJ jaialdien egutegia zehaztuta dago. Aurten 14 saio izango dira, ohi bezala, zapatuetan, 18:30etatik 21:30era. Hilero saio bat edo bi egongo dira, udan izan ezik; uztaile eta abuztu ez da egongo. Musika jartzen Amaia Txintxurreta eta Humberto Esnaola arituko dira.

TAO guneko egoiliarren pegatinak berritzeko azken eguna: hilaren 31

Abenduan 2013ko TAO guneko egoiliarren pegatinak postaz igorri zituen Udalak, 2012koak ordezkatzeko. Udaltzaingotik gogorarazi dute urtarrilaren 31 baino lehen jarri behar direla pegatina berriok autoetan. Data horretatik aurrera salaketa jasoko dute pegatinarik gabe dauden ibilgailuek.

'Mistoak' izeneko erakusketa ikusgai dago Nahikari tabernan

Herriko zazpi margolari eta bi eskultoreren erakusketa dago ikusgai Nahikari tabernan otsailaren 3ra bitartean. Honako artistena, hain zuzen: Pello Alberdi, Junajo Altuna Akizu, Ramon Arantzabal, Antton Arrillaga, Ricardo Azkargorta, Bingen de Pedro, Xabier de Zerio eta Jabi Ugalde.

Mendekotasuna dutenen zaintzaileentzat ikastaroa

Emozioen kudeaketa lantzeko dohaineko ikastaroa izango da eta lau saio izango ditu

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Udaleko Ongizate Sailak, Aldundiaren laguntzarekin, ikastaroa antolatu du mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileei zuzenduta, emozioen kudeaketa lantzeko. Lau eguneko iraupena izango du eta debalde izango da.

20 bat plaza daude

Ikastaroa lau saiotan banatuko da –14:30etik 17:00etara– eta urtarrilaren 22an, 24an, 29an eta 31n egingo dira, Aitonetako erabilera askotariko gelan. Irakaslea Lahar elkarteko Silvia Camio izango da. 20 bat plaza izango dira eta parte hartzeko beharrezkoa da aurrez izena ematea Udaleko Gizarte Zerbitzura deituta (943 77 91 65) edo ongizatea@bergara.net helbidera idatzita. Ikastaroa, Sendian programaren barruan antolatuta dago; hau da, mendekotasuna daukaten pertsonen zaintzaileei zuzendutako programan.

Aspektu ugari landuko dira

Emozioen kudeaketari buruzko aspektu ugari landuko dira ikas-

taroan. Lehen saioa *Emozioen funtzioa zainketan eta autozainketan* izango da eta honako gaiak landuko dituzte: emozioak zer diren, emozioen funtzioa zainketan, emozio-mota ezberdinak eta zainketa, arriskuak, zainketaren mugak eta auto-zainketaren garrantzia.

Bigarren saioan *Dolua* landuko dute: galerak eta dolua, dolu-motak, etapak eta dolu-prozesuan laguntzea.

Hirugarren saioaren helburua *Autoestimua indartzea* izango da eta honako aspektuak landuko dituzte: zer den autoestimua, autoestimua eta adimen emozionala, autoestimua indartzeko jarraibideak, enpatia eta asertibotasuna.

Laugarren saioa *Hondamen emozionalaren prebentzioa*-ri buruzkoa izango da, hala nola ongizatea nola sustatu, depresioa eta horren sintomak nola prebenitu, antsietatea nola prebenitu eta estresa nola kontrolatu landuko dituzte.

Ikastaroan izena emateko epea urtarrilaren 21ean bukatuko dela aurreratu dute Ongizateetik.



Joan den urtean egindako odol-ateratzea. | MIREIA BIKUÑA

Gazteak dira herriko odol-emaile berri asko

Odol-ateratzeak Txantxiku ikastolan egiten dituzte, 17:30etik 19:30era

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatiko odol-emaileen kopurua gora doa poliki-poliki, ia hilabete guztietan ematen dute hiruzpalau herritarrek izena odol-emaile izateko. "Emaile berri izatea erabakitzen duten gehienak, gainera, gazteak dira, eta asko poztzen gaitu horrek. Dena dela, emaile guztiekin gaude pozik. Fin-fin etortzen dira hileroko odol ateratzera, eta eskerrak eman gura dizkiegu guztiei", adierazi du odol-emaileen elkarteko Pili Irazabalek.

Zortzi kide taldean

35 bat urte daramatza Irazabalek odol-emaileen taldean. Gogoan du orduan bizpahiru ateratze egiten zituztela urtean, eta egun,

ia hilean behin. Bost erizain eta mediku bat etortzen dira hileroko ateratzera, eta ohiko azterketak egiten diete emaile guztiei. Herriko odol-emaileen elkarteko lagunek ateratzea antolatu, prestatzen lagundu eta horren osteko merienda prestatzen dute.

ESANAK

"Eskertu gura ditugu emaile guztiak, fin-fin etortzen dira"

PILI IRAZABAL | ODOTL-EMAILEEN TALDEKOA

2013KO DEIALDIAK

- ▶ Otsailaren 15ean
- ▶ Martxoaren 8an
- ▶ Apirilaren 19an
- ▶ Maiatzaren 17an
- ▶ Ekainaren 14an
- ▶ Uztailaren / Abuztuaren, ez
- ▶ Irailaren 13an
- ▶ Urriaren 11n
- ▶ Azaroaren 15ean
- ▶ Abenduaren 13an

ITURRIA: OÑATIKO ODOTL-EMAILEAK

Lau herritarrek asmatu dute Txandaren leihaketakako prezio zehatza: 2.315 euro



Pisu eta prezio zehatza asmatu duten lagunak. | IMANOL SORIANO

O.E. | OÑATI

Oñatiko Txanda dendarien elkarteak Atzeko kaleko 28an jarritako erakusleihoko produktuen prezio zehatza 2.315 euro da eta lau asmatzaile egon dira. Pisu zehatza, bestalde, 26,136 kilo da. "Parte-hartzea oso handia izan da, eta pozik gaude", adierazi dute elkarteko ordezkariak.

Banatu egingo dute

Ekhiñe Iza, Mari Karmen Eskarza, Elena Iparragirre eta Mari Jose Gavian izan dira erakusleihoko produktuen prezio zehatza asmatu duten lau pertsonak, eta saria lauren artean banatuko dute. Pisu zehatza gehien gerturatu dena, bestalde, Rosa Igartua izan da: 26,125 kilo izan da haren apustua. Egubakoitzean egin zuten sari banaketa Atzeko kalean, erakusleihoko egon den tokian.

Atez ateko sistemarentzat "aukera bat" eskatu dute 300dik gora oñatiarrek

Herrikideak animatu dituzte gaur hasita auzoz auzo egingo diren parte-hartze prozesuetara

JULEN IRIONDO | OÑATI

"Hondakinen arazoaren parte garen heinean konponbidearen parte izan behar garela pentsatzen dugu", zioen Amaia Diaz de Monasterioguren dietistak eta Arantzazu Ibarrondo liburategiko arduradunak irakurritako oharrak, atzean kondizio askotariko herritarrek zituztela -340 lagun inguru batu ziren denera-.

Azkenean erre egingo direnez bereizi beharrik ez izatea omen dakarren eta ondorioz "baliabideen xahutzea" eragiten duen ereduaren aurrean, "%80ko birziklatze tasa" lortzen duen eta hondakinak ekoizpen zirkuituan mantenduz "lehengaiei ahalik eta bizi luzeena" ematen

dien sistemari aukera emateko eskatu zuten agerraldian. Hondakinak erretzeak ingurumenean eta osasunean ondorioak dituela ere adierazi zuten.

Bestalde, animatu zituzten herritarrek Udalak antolatutako bileretara: "Atez atekoa era ezberdinetan egin daiteke eta guztientzako eroso, estetiko eta erabilerraza izan dadin beharrezkoa da denon parte-hartzea". Ugarkalde eta San Lorentzoko bizilagunekin -gaur- eta Olakuakoekin -bihar- ETEOn egingo dute bilera, 10:00tan eta 19:00tan, eta eguaztenean Mendiko kale, Bakardadeko Ama eta San Anton kaleetan bizi direnendako -ordu berdinetan, kultura etxean-.



Zinema aretoa beteta -kanpoan ere geratu ziren-, barikuan. | IMANOL SORIANO

Udaleko Euskara Sailak ateratzen dituen egutegiak salgai daude Turismo Bulegoan euro baten

Urtero legez, Oñatiko Udaleko Euskara Sailak egutegia kaleratu du, eta Turismo Bulegoan dago salgai, euro baten truke. Poster tamainako orri bakarreko egutegia da. Euskararen Egunean, abenduaren 3an, ateratako argazkiak eta *Euskaraz bizi gara* leloa agertzen dira aurtengo egutegian, egun horretako mezua urteko egun guztietan baliagarri dela gogorarazteko.

Aloña Mendik zapatuan egingo du urteko lehen mendi irteera: Etxegarartetik Arantzazura

Aloña Mendik zapatuan, hilak 19, egingo du urteko lehen mendi irteera. Etxegarate gainean hasiko dute ibilbidea, eta Arantzazun bukatu. Guztira, 21 kilometro izango dira, 1.000 metroko desnibelarekin. Arantzazuko auzo-etxean egingo dute bazkaria; 35 pertsonarendako tokia egongo da. Eguaztena aurretik eman behar da izena Aloña tabernan. Irteera postetxe parean da, 08:00etan, betiko moduan.

Kubako punk mugimenduari buruzko argazki erakusketa zabalduko dute gaur gaztetxean

Punk mugimendua Kuban izeneko argazki erakusketa zabalduko dute gaur Antixena gaztetxean. Zapatuan, *Punka Kuban* izeneko dokumentala eskainiko dute, eta ondoren solasaldia egongo da egilearekin, Josu Truebarekin. Bihar, berriz, *Ziztadak* dokumentala eskainiko dute gaztetxean bertan, 19:00etan. Desobediencia zibiliar buruzko dokumentala da *Ziztadak*, eta gai horren inguruko hitzaldia ere antolatu dute biharko.

ESKORIATZA

Herrian bizi diren 26 nazionalitateetako banderei alegazioak aurkeztu dizkiete

EAJk horren gaineko mozioa aurkeztu zuen azken osoko bilkuran; atzera bota zuen udalbatzak

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Espainiako banderaren auziarekin bueltaka dihardute Eskoriatzako Udalean. Azken osoko bilkuran "inposizio" horren aurrean neurriak hartzea gonbita egiten zuen mozioa aurkeztu zuen EAJko udal taldeak. Aitor Urrutia jeltzalearen eta Bilduko Beñat Herce alkatearen aldeko botoak baino ez zituen izan proposamen horrek; atzera bota zuten Bildu, PSE eta Ezker Anitzako zinegotzien botoekin. Betiko moduan, Elizateetako ordezkariak abstenitu egin ziren.

Mozio horretan eskatzen zen Eskoriatzako udalbatzak, "inposizio" hori desagertu artean, herritarrek ikusi ahal izango duten toki publikoetan plaka bat

jartzea, testua ondoan zuela. Testu horretan, besteak beste, gogoraraziko zen Espainiako Auzitegi Gorenak Eskoriatzako Udala Espainiako bandera jartzera behartzen duela, herritarren borondatearen aurka.

Eskoriatzarren nahiaren kontra Sinboloa "zigor mehatxupean" ezarritakoa dela aipatuko zen, "eskoriatzar gehienon nahiaren aurka eta beren ordezkarien erabakimenaren kontra". Azken horren harira, honakoa ere gaineratuko zen plaka horretan: "Herritarren borondatearekiko errespetu falta da, askatasunez erabakitze eskubidearen ukapena. Horra bada bandera, egotzaren ikur, jarri duenak berak



Alegazioak jarri dizkiote Eskoriatzan bizi diren nazionalitateetako banderak jartzeko erabakiari. | JOSETXO ARANTZABAL

jarri nahi ez duen oihal. Haizeak ironiaz darabil".

Mozio horren ezbaidan, alkateak Urrutiari eskatu zion auzia amaitu artean, mozioa mahai gainean uzteko. Udaletxeko balkoian eta osoko bilkuren aretoan Eskoriatzan bizi diren 26 nazionalitateetako banderak daude jarrita azaro amaieratik; tartean, Espainiako ere badago. Espainiako epaitegiak legea betearaz-

tera eta bandera jartzera behartzearen ondotik dator ekimena.

Alegazioak

Horren harira, alkateak jakinarazi zuen ez dakitela horrek legea betetzen duen edo ez, eta Espainiako Gobernuak erabaki horri alegazioak aurkeztu dizkiola. Hori argitu bitartean, mozioa mahai gainean uztearen alde agertu zen; dena dela, esan zuen bat

egiten zuela EAJk aurkeztutako mozioaren "edukiarekin" eta hortaz, Urrutiak alkatearen eskoari uko egiten bazion eta mozioarekin aurrera egitea erabakitzen bazuen, alde bozkatuko zuela.

Zinegotzi jeltzaleak ez zuen mozioa bertan behera utzi, Espainiako Gobernutik iritsitako alegazioak eta plakak ez zutela loturarik esanez: "Gauza batek ez du bestea kentzen".

Otsailerako gura dute Kirol teknikari lanpostua martxan jarri

M.B. | ESKORIATZA

Kirolari bultzada emateko lanean buru-belarri dihardute azkenaldian Eskoriatzako Udaleko Kirol Zerbitzuan. Herrian kirola egiten bada ere, kiroldegiko instalazioak ez direla behar beste erabiltzen eta han antolatzen diren kirol jardueretara jende "larregik" ez duela izenik ematen uste du Kirol zinegotzi Igor Ezpeletak.

Hori dela eta, kiroldegiko atekak zabaldu zituzten joan den urtarrilaren 3an eta 4an. Asmoa: hango instalazioak eta eskaintza ezagutu, hainbat jarduera deialde pro-

batu eta, gustuko izanez gero, izena eman.

Ekintza horrekin batera, egotzari buelta emateko, Kirol teknikariaren beharra ikusi dute Udalean, eta horretan dihardute azken hilabeteotan. Horren harira, honakoa dio Ezpeletak: "Azken urteotan Eskoriatzan ez dugu Kirol teknikaririk izan, eta iruditzen zaigu lanpostu hori garrantzitsua dela kiroldegia hobetzeko, eta bereziki, Eskoriatzako kirol esparru osoa hobetzeko".

Lanpostu horretara aurkeztu diren dokumentazioa aztertzen

dabilta orain, eta hilabete baten buruan erabakia hartuta izatea espero dute. Otsailaren hasierarako langile hori lanean izatea gura du Kirol zinegotziak.

KPIren igoera

Herrian dauden kirol instalazioak erabiltzeko gonbita ere egin du Ezpeletak. Horren harira, gogorarazi du urte berriarekin batera tarifa gehienek KPIren igoera izan dutela.

Askotariko tarifak daude, erabiltzaile bakoitzaren beharretara egokituta. Banakako abonuari

dagokionez, 18 urtetik gorakoena 103,55 euro balio du urte osorako. Ikasleek, Eskoriatza kirol elkarreko federatuek eta langabeek 53,65 euro ordaintzen dituzte. Familia abonua, oster, 141,45 euroren truke eskura daiteke; eta familia ugariena, 70,45 euroren truke. Urte erdi eta hiru hilabeteko abonua egiteko aukera ere badago.

Horretaz gainera, kiroldegiko kantxa ere aloka daiteke, 43,85 eurogatik argiarekin eta 37,25 argi barik; baita pilotaleku txikiak ere, 4,75 euroren truke.

Eguenean amaitzen da termalismo lehen txandarako izen-ematea

Dagoeneko zabalik da Imersoren bidez nagusiendako antolatzen duten termalismo programan izena emateko epea. Otsail eta abuztu arteko txandarako izen-ematea eguenean, urtarrilak 17, amaitzen da.

Bi bide daude eskaerak egiteko: Udal Gizarte Zerbitzuetara joanda edo 943 71 31 36 telefono zenbakira deituta; edo Imersorekin harremanetan jarrita, 901 10 98 99 telefono zenbakira deituta.

ARETXABALETA

Aratusteetako kartel lehiaketan izena eman daiteke eguenera arte

Aretxabaleako Kultura Sailetik jakinarazi digute Arkupen oraindik ez dutela jaso aurtengo Aratusteetarako kartelik, eta, horren harira, gogorarazi gura izan dute eguenean, urtarrilak 17, amaitzen dela lanak aurkezteko epea. Kartelak kultura etxera eron behar dira.

Edonork har dezake parte Kultura Sailek antolatutako kartel lehiaketan. Teknika libre izango da; baldintza bakarra da honako testua izatea: *Aratusteak, Aretxabaleta 2013*. Irabazleak 200 euro jasoko ditu. Epaimahaiaren erabakia egubakoitzean jakinaraziko da.

Zirku tailerra egingo dute zapatuan Arkupen, 11:00etan

Xabier Larrea malabarista ezagunak gidatuta, zapatuan, hilak 19, zirku tailerra egingo dute Aretxabaleako Arkupe kultura etxean, 11:00etatik 12:30era.

Hilean behin egiten da tailer hori, zapatu goizetan. 8 urteko neska-mutikoei zuzenduta dago, eta gaur egun hamar bat umek parte hartzen dute. Besteak beste, malabareak erabiltzen, trapeziara igotzen eta oreka ariketak eta akrobaziak egiten ikasten dute saio horietan. Kultura Sailetik azaldu dute izen-ematea zabalik dagoela, eta horretarako nahikoa dela Arkupera joatea.

TXALOK ETA TXISTUAK

Guardia Zibilen ibilgailuak berdegunean



Guardia Zibila Aretxabaleako Markole auzoa bisitatu zuen

eguzten gauean. Bizilagun batek salatu duenez, ez zuten denbora luzerik galdu euren ibilgailuak behar bezala aparkatzen, berdegunean utzi zituzten-eta horiek guztiak. Horrekin batera, aipatu du gainerako herritarrek bueltak ematen ibili behar dutela autoa txarto aparkatu eta isuna jaso gura ez badute; eta beste batzuek, oster, ez omen dituztela araudiak bete behar.





Zapatuan, osoko bilkuren aretoan egindako bilerarekin, amaitu zen parte-hartze prozesua. | JOKIN BEREZIARTUA

ARAMAIO

2013ko aurrekontuak: Udalak, iaz baino %20 gehiago Aramaio kudeatzeko

Herritarren proposamenak aintzat hartzeko parte-hartze prozesua zapatuan amaitu zen; orain, hilaren 30eko osoko bilkuran onartu beharko da zirriborroa

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Udalak 2013ko aurrekontua onartzeko lehenengoz abiatu duen parte-hartze prozesua zapatuan amaitu zen. Orain, hilaren 30eko osoko bilkuran onartu behar da. Udalak Aramaio kudeatzeko iaz baino diru gehiago izango du, %20 gehiago. Igoera hori Diputazioaren ekarpenaren gorakada -FOFEL delakoa- eta basoetatik jasoko den diru kopurua hazi egin delako dator batez ere. Horri gehitu behar zaio aurten gastuak nabarmen murriztu direla. Izan ere, iaz auzoetan inbertsio handiak egin ziren, Etxaguengo saneamendu obrak kasu.

2013ko proiektu nagusiak dira Muruko saneamendu lanak, Ibarako argiteria publikoa berritzea, Berdintasun Plana, ABB fundazioa bultzatzea, webgune berria abiaraztea, eskolako baranda berritzea, artxibo berria martxan jartzea eta Uema Eguna antolatzea. Zapatuko bileran Ramon Ajuria alkateak, batzorde bakoitzeko sarre- eta gastuak zehazteaz gain, herritarrek egindako proposa-

menen artean onartu direnak eman zituen aditzera. 111.000 euro inguru gastatuko ditu Udalak eskaerok erantzuteko.

| DATUA |
|--|
| 2 |
| MILIOI EURO BAINO GEHIAGO |
| Aurten, 2.191.365 euroko aurrekontua; oraindik osokoa onartu behar da. |

| ESANAK |
|--|
| "Eredu bat finkatu dugu kudeaketa lana hobetzeko" |
| RAMON AJURIA ALKATEA |

Herritarren eskaerei erantzun

Onartutako eskaeren artean dade, besteak beste, kiroldegiko gimnasioa egokitzea (42.000 euro) eta aldagelak berritzea (35.000 euro), auzoetako eskaerarako partida (21.800 euro), Sastiñarako eta kiroldegirako berogailu sistema jartzea (3.200 euro) gazte-txean konponketak egitea (2.000 euro), Aramaio Basarri Barri fundazioarendako eguna antolatzea (2.000 euro), Bidezko merkataritzaren aldeko eguna antolatzea (1.000 euro) eta Kultur etxean berritze lan txiki batzuk egitea (1.400 euro). Hala, Udalak bi milioi euro pasatxo -2.191.365,65 euro, hain justu- izango ditu Aramaio kudeatzeko.

Bestalde, alkatea pozik dago parte-hartze prozesuak izan duen erantzunarekin: "Zinegotzien, herritarren, auzo alkateen eta eragile ezberdinen inplikazioa nabarmendu beharra dago. Lan handia egin dugu, eredu bat finkatu dugu datorren urterako. Noski, helburua kudeaketa hobetzen joatea izango da".

ELGETA

Karramarroendako pozoiak Asentzioko arrainak kaltetu ditu

Kontuak zeresana eman du, batez ere putzuaren jabegoa duen Angiozarko bailaran

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Aurreko astean zerbaitek kalte egin zien Asentzioko putzuko arrainei. Ur azalean zeuden asko eta asko, eta bat baino gehiago tripaz gora. Kontuak zeresana eman du, tartean putzuaren jabea den Angiozarko bailaran.

da elkarlanean aritzea", esan du Mikeok. "Ez da gure asmoa harremana gaitzotzea, baina horrelakoak eginda...".

Mikeoren esanetan, arrainak horrela ikusteak beldurdu egin du jendea, eta galdetzen du ea nork bota duen pozoia. Horrelakoak biologo edo teknikari baten kontrolarekin egin behar direla uste du.

Angiozarren, minduta

Galdetuta, Angiozarko auzo-alkate Jose Angel Mikeok adierazi du Elgetako Udalak hanka sartu duela: "Ez diote Angiozarko bailarari inongo abisurik eman, eta ez dute pozoia dosia ondo neurtu. Elgetako Udalak eta Angiozarko bailarak lan mahai bat dugu osatua Asentzioko gaiak lantzeko, eta asmoa

Udala, jarraipena egiten

Udalak dio Diputazioarekin elkarlanean bota dutela pozoia, eta arrainak bizirik daudela. Lanak egiten ari dira Asentzian, eta Angiozar tratamendua botatzekotan zirela jakitun zela esan du Erostarbek. Udalak jarraipena egingo duela esan du.



Eguen eguerdian putzuan tripaz gora zegoen arrainetako bat. | L.Z.

ANTZUOLA

Sahararen aldeko kanpaina abian da

Urtarrilaren 21era arte jasoko dira Saharara bidaltzeko elikagaiak herriko zenbait gunetan

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Aurten ere, Saharar Herriaren Lagunen Euskal Elkarteek kanpaina jarri dute abian. Eskolak, Udalak eta Anelkarrek bultzatzen dute kanpaina hori Antzuolan: *IX Piztu Itxaropena*. Eta laguntza hori bideratzeko asmoz, elikagaiak batzeko kanpaina jarri dute abian.

Kanpaina urtarrilaren 21era arte har daiteke parte. Ondorengo elikagaiekin lagun daiteke: hegazuak eta sardinak oliotan; arroza, azukrea, pasta, lekaleak, helduentzako fardelak eta konpresak. "Horiek biltzea proposatu dugu; izan ere, horiek dira sahararrentzako elikadura osagarria biltzeko estatu mailan egin den banaketan Euskadiri egokitu zaizkion elikagaiak", azaldu digu Anelkarko Jabi Etxaniz kideak.

Elikagaiak Herriko Eskolan, Aixan, Eroskin eta Kalebarren denda jasoko dira.

2012an, 564 kilo elikagai batzea lortu zuten antzuolarrek; guztira, 41 kutxatan batu zuten: azukrea 48 kilo; atuna 38 kilo; konpresak 60 kaxa (20 unitatekoak); lentejak 118 kilo; arroza 181 kilo; pasta 66 kilo; garbanzuak 36 kilo; babak 17 kilo; eta olio 60 litro. 2.000 euro ere batu zituzten.

Aurrekontuen aurkezpena

Bihar, jendaurrean aurkeztuko ditu 2013ko aurrekontuak Udalak, 18:30ean, Olanen. "Prozesu parte-hartzaile baten emaitza dira aurtengo aurrekontuak", gogoratu dute. Bertan izango dira, besteak beste, Ima Beristain alkatea eta Mikel Jauregi Ogasun zinegotzia.

LEINTZ GATZAGA

Udal zerga eta tasen igoerak aplikatzen hasi dira urte berriarekin

Pilotalekuko argiaren fitxa 3,10 euro da eta ehorzteagatik ordaindu beharrekoa 76,81 euro

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Herritarren aurrean erreklamazioak aurkezteko ikusgai egon ondoren behin betiko onartu zituzten abenduaren 31n udal zerga eta tasak. Hortaz, urte berriarekin batera aplikatzen hasi dira.

Udalbatzak azaroan egindako osoko bilkuran erabaki zuen zer-

ga eta tasa gehienei %3ko igoera ezartzea. Horixe aplikatuko diote ondasun higiezin gaineko zergari -hutsik dauden ohiko etxebizitzak ez direnei %50eko gainkarga ezarriko diote- eta jarduera ekonomikoaren gainekoari; baita etxeko obra txikien tasari eta komertzioak zabaltzeko baimenei ere. Ibilgailuei dago-

kien udal zerga ere %3 igoko dute, automobilen kategoriako lehenengo hiru tarteei izan ezik -potentzia baxuena duten autoak-; horiena %1,5 igoko dute.

Ura eta estolderia zerbitzua ere %3 igoko dituzte; eta hondakinen kudeaketa zerbitzua, ostera, %2,80.

Ehorzte zerbitzuak ere %3ko igoera izan du eta orain 76,81 euro ordaindu beharko da. Pilotalekuko argiaren fitxa, ostera, 3,10 euro.

Horien guztien eta beste hainbaten berri eman zuten abenduaren 31ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta egunotan Udalaren webgunean iragarriko dituzte.

Bazkideentzat abantaila eksklusiboak



Eraman ezazu beti txartela aldean!



DESKONTUAK



Ninika Loradenda
Ramon Maria Lili, 8 - Bergara

- %10eko deskontua artikulu guztietan.



Alzu, S.L
Arantzazuko Ama, 2 - Oñati

- Arropetan %10eko beharpena.



Naren Fisioterapia Zentroa
Belorrieta 5 behea - Aretxabaleta

- %15a zerbitzu guztietan.



Esko Sport
Intxaurtxueta 5, Eskoriatza

- Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.



Jaixak
Bidekurutzeta 7 - Bergara

- %10eko deskontua*, 20 eurotik gorako erosketetan.

* Liburuetan izan ezik.



Estacion Servicio Arrasate
San Andres 7 - Arrasate

- % 2a gasolindegian erregaia erosit.
- % 2a dendako produktuetan.



Begiondo Optika
Belorrieta, 11 - Aretxabaleta

- %15eko produktu guztietan.
- Kontsulta doan.



Etxe-Aundi Hotela/Jatetxea
Torreazuo Auzoa 10 - Oñati

- %10eko deskontua menu berezian (asteburuetakoan) eta kartan.



Gahir Fisioterapia/Osteopatia
Aranburuzabala 6 behea - Eskoriatza

- %50eko deskontua lehenengo kontsultan.



Gaes
Otalora 18, Arrasate
Zurradero 10 Bergara

- %10eko deskontua*.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.



Multiópticas
Juan Carlos Guerra, 1 behea - Arrasate
Ibargarai, 16 Bergara

- %15eko deskontua*.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.



Arrikruz Kobak
Arautz Auzoa - Oñati

- %10eko deskontua sarreran*.

* Topea bost pertsona.



Imprespal, C.B Imprimategia
Komenio 2 - Bergara

- %5eko deskontua egiten den edozein lan edo erosketetan.







Kuttuna Estetika
Aranburuzabala 19, behea - Eskoriatza

- %5eko deskontua* zerbitzu guztietan.

* Beste promozio batzuk izan ezik

ZOKZETA ETA PROMOZIO BEREZIAK



URTARRILEKO SARIK ETA PROMOZIOAK

- Pamiela: **Liburuak:** Joxe Mari Iturrallderen "Frantzian je táime esaten dute" Patxi Zubizarretaren "Hiru gutun Iruñetik"
- **Erremeixuak** DVDa
- Argiako jokua: **Nairobotarra**
- Goiena: **Pendrive**
- **Arrikruz** Kobetarako sarrerak
- Amaia antzokian: "Printzea eta Ahatea" **antzerkia**. 2 sarrera (urtarrilaren 28an)
- Espaloia Kafe Antzokian: **Ernesto Sevilla** "Monologo Coconut" 4 sarrera.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZA mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzue datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezteztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

Parte hartzeko

SMS: KLUBA [sariaren izena]
[bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05
E-postaz: kluba@goiena.com
WhatsApp bidez: 688 69 00 08 zenbakira, saria adieraziz

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.
- Zozketa eta promozio berezietan parte hartzeko aukera.



Urteko kuota: **50 €**.
Tel.: **943 25 05 05**
kluba@goiena.com
goienakluba.com

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



KIROLA



Aitor Perezek lehen zatiko korner baten aukera ona izan zuen gola egiteko baina errematea larregi gurutzatu zuen, goiko irudiak ondo deskribatzen du atzoko partidua: nahi, baina ezin. | JOSETXO ARANTZABAL

OHOREZKO ERREGIONALA

Baloia jabe, baina ezin golik egin

- Atzoko partidua, giroa bezain hotza: joko sakonik ez, erritmo motela eta aukera gutxi
- Hernanik galdu egin zuen eta, beraz, aukera ederra galdu du UDAk aldea murrizteko

EMAITZA

ARETXABALETA

0-0

BETI GAZTE

FITXA TEKNIKOA

Aretxabaleta: Agiregabiria, Gorosabel (Amutxastegi 66.min), Garcia, Arroitauregi, Arriaran, Igartua, Eraña, Perez (Urzelai 45.min), Agirre (Arrizabalaga 70.min), Hernandez (Fernandez 45.min) eta Badillo.

Beti Gazte: Fontan, Zamorano (Migueltorena 73.min), Etxegarai, Irazoki, Olaizola, Maia (Biorrarena 84.min), Gurrutxaga, Maia (Maritzalar 88.min), Saralegi (Arriola 91.min), Ordoki eta Irazoki.

JOKIN BEREZIARTUA | ARETXABALETA
Aretxabaletak ez zuen denboraldiko partidua jokatu atzo, inondik inora. Giro hotzak zerikusia izan zuen UDaren jokoan, antza. Izan ere, erritmo motela eta sakontasun gutxi jarri zioten jokoari Alberto Albistegiren mutilek. Beti Gaztek bere partidua egin zuen. Atzean ondo jarrita eta lerroak bata bestea-rengandik oso gertu. Horren ondorioz, Aretxabaletako joko-

lariek atzerantz egin behar izan zuten askotan. Horrek, ohikoa denez, jarraitzaileen haserrea piztu zuen, amaieran batez ere.

Lehen aukera, 30. minutuan

Lehen minutuetan bi taldeak atzealdea ondo zainduta izateko asmoz irten ziren. Minutuek aurrera egin ahala nagusitzen joan zen Aretxabaletako taldea, baina benetako arriskurik ez zuen sortu 30. minutura arte: Aitor Perezek aukera ederra izan zuen pase eder bat jaso ostean, eta baloia atezainaren gainetik maisuki loratu arren baloia gutxiagatik joan zen kanpora.

Hurrengo minutuan Beti Gazteko aurrelariak beste aukera garbi bat izan zuen, baina area barruan egindako jaurtiketa erdira irten zitzaion. Atsedendira heldu aurretik ez zen beste jokaldi aipagarriarik izan.

Hegaletatik abiadura sartu

Bigarren zatia beste era batera planteatu zuen etxeko taldeak. Ander Fernandez eta Jokin Urtzelai zelairatu zituen Albistegik, hegalei abiadura emateko asmoz.

Eta, batez ere Fernandezi esker, lortu zuen helburua; bigarren zatiko hasierako minutuetan arrisku handia sortu zuen erdilariak. Haren hegaletik eto-

rri ziren Oinatz Agirre aurrelariak jarraian izan zituen bi aukerak. Hala ere, Lesakako taldeak UDaren erasoko jokoa gelditzen jakin zuen; bigarren zatian argi eta garbi geratu zen berdinketaren bila irten zirela. Horrek ez du esan nahi lan mardula egin ez zutenik. Baloia etxeko taldeari utzi bai, baina zelaian oso ondo jarrita eta taldeko lan ederra egin ostean. Horrek eragin zuen bigarren zatiko lehen minu-

tuen ostean, UDAk ezin izan zuela bere jokoa egin. Behin eta berriz atzera jokatu behar izan zuten Albistegiren mutilek, eta Beti Gazteren atera hurbiltzen zirenean azken pasean kale egiten zuten gehienetan. Hala, hainbat minututan ez zen beste aukerarik izan. Aurkariaren nekea eta arriskurik ez sortzearen etsipena ondo aprobetxatu zuten nafarrek; gainera, 82. minutuan 0-1ekoa egiteko aukera eder bat

ere izan zuten. Partiduak ez zuen gehiagorako eman; porrotaren zaporea duen berdinketa eta Hernanirengandik hurbilago egoteko alferrik galdutako aukera ederra.

Datorren jardunaldian hasiko da bigarren itzulia; Mondraren aurkako derbia tokatzen da. Biek nahikoa ez den puntu bakar bat lortu dute jardunaldi honetan eta beraz, puntuak lortzeko behar-rekin helduko dira zitara.

JULEN ERAÑA | ARETXABALETAKO JOKALARIA

"Aurkaria atzean sartuta jokatzera irten da eta guk ez dugu jakin horri erantzuten"

Atsekabetuta zegoen UDAko erdilari partidua amaieran. Saiatu bazen ere, ez zuen arratsalde onena izan. Puntu bat irabazi baino bi puntu galdu izanaren sentsazioarekin zegoela aitortu zigun.

Nahi baina ezin.

Bai, gaur [atz] ez dugu zortetik izan. Aurkaria atzean sartuta jokatzera irten da eta guk ez diogu jakin horri erantzuten. Lehen zatian gaizki irakurri dugu partidua, baloi luze larregi sartu ditugu. Bigarren zatian hobeto aritu gara, baloia behetik jokatzen saiatu gara. Hau da, gure jokoa egiten saiakera egin dugu behin eta berriz, baloia jokatzearen aldekoak gara-eta. Hala heltzen



gara aurkariaren atera. Baina azken metroetan ez dugu eguna izan.

Baloia jabe bai, baina ez dituzue aukera garbi larregi sortu.

Egia esan, ez. Azken minutuetan

izan ditugu garbienak akaso, azken txanpara bi taldeak nekatuta heldu garenean. Euren ere ez dute gauza handirik egin. Ondo jarrita egon dira baina aurrealdean apenas sortu dute arriskurik.

Berdinketa ez da ona izan, ezta?

Ez da nahikoa. Puntu bat baino gehiago merezi izan dugu. Gainera, Hernanik galdu egin du eta aukera ederra izango litzateke liderrarengandik gertuago egoteko. Orain, hurrengo partidua irabazi beharra dago.

Hurrengo jardunaldian Mondraren bisita izango duzue. Derbia, eta ezinbesteko hiru puntu igoeraren ametsari eusteko.

Argi dago partidu gogorra izango dela. Edonori jokatzea gustatzen zaion partidua dira. Derbi baten osagai guztiak izango ditu; lehia borrokatua izango da, ziur.

FUTBOLA

Ondarroatik puntu bat ekartzea lortu du Mondrak (2-2)

Nahiz eta markagailuan bi aldiz aurreratu, Mondrak ezin izan zuen Aurrera menderatu eta Lutxo Iturrinoren muti-lak puntu bakar batekin bueltatu ziren Arrasatera. Talde zuri-moreak partidua osoan zehar baloiaren jabetza izan zuten baina bi kontraerasoetan kale egin eta ondarrutarrek ondo baino hobeto aprobetxatu zuten bi gol egiteko.

FUTBOLA

Lagun Onakek erraz menderatu zuen Aloña Mendi (1-0)

Azkargortaren mutilek partidua txarra jokatu zuten Lagun Onaken zelaian. Oñatiarrak lehenengo zatia lo hasi zuten eta 12. minutuan partiduko gol bakarra jaso zuten. Bigarren zatian, berriz, Aloña hobeto jokatu zuen, hala ere, ez zuen gol aukera garbirik egin. Oñatiarrak sailkapeneko 10. postuan bukatu dute ligaren lehenengo itzulia.

FUTBOLA

Bergara baino askoz gehiago izan zen Hondarribia (4-1)

Nahiz eta lehenengo zatian ondo jokatu, bigarren zatian arbitroak eta zorte txarrak bergararrak hondorotzea lortu zuen: arbitroak berdinketarekin penalti argi bat ez zuen adierazi eta beranduago, mahoneroek beraien atean gol bat sartu zuten. Arbitroak amaiera adierazi zuenean, bergararrak haserre eta burumakur bukatu zuten.

FUTBOLA

Antzuolak berdindu egin zuen zapatuan Ilintxaren aurka

Aranaren falta jaurtiketa on bati esker, 5. minuturako Antzuola nagusi zen Ilintxaren zelaian. Markagailua alde zuela, gustura zegoen Antzuola, baina lehenengo zatia bukatzeko minutu batzuk geratzen ez zirenean Legazpiarrek berdinketa lortu zuten. Bigarren zatian, berriz, jokalarik bat kaleratu eta emaitzari nola edo hala eutsi zioten.

EMAKUMEEN FUTBOLA

Mondra esku hutsik bueltatu da Paularren zelaitik (1-0)

Barakaldoko Paularrak sailkapeneko hirugarren postuan zergatik dauden erakutsi zuten atzo, izan ere, Mondraren aurka ondo baino hobeto landutako garaipena lortu baitzuten. Nahiz eta atzo galdu, atzean dituen bi taldeek ere galdu egin zuten, Andoni Ezkurraren neskek jaitsiera postuetatik puntu bakar batean jarraitzen dute.



Norgehiagoka trabatua izan zen atzo Kanpanzar Arrasate eta Kantabriako Unibertsitateak jokatuakoa. | JOSETXO ARANTZABAL

ERRUGBIA

Kanpanzar Arrasatek ezin izan du Kantabriako Unibertsitatea gainditu

- ▶ Kantabriarrek joko motela eginez menderatu zuten talde morea (18-24)
- ▶ Nahiz eta galdu, bonus puntuari esker, arrasatearrek lider jarraitzen dute

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Kantabriako Unibertsitateak Kanpanzar Arrasateri eskua hartu diola dirudi, izan ere, bi taldeek jokatuak azken hiru partidua irabazi dizkio. Kanpotarrek 15 jokalarik bakarrik ekarri zituzten Mojategira –ez zuten aldaketarik egiteko aukerarik –, baina etxeko taldeak ezin izan zuten hori aprobetxatu.

Talde morearentzat ondo hasi zen partidua, entsegua eta transformazioa egin ostean markagailuan 7-0 hasi baitziren. Hasierako minutuetan etxeko taldea nagusi izan zen, baina jokaldi batean Ander Herizek mina hartu eta zelaia utzi behar izan zuenean suspertu zen Kantabriako

Unibertsitatea eta etxeko taldeak faltan bota zuen kapitain ohia.

Nahiz eta arrasatearrek joko azkarra egiten hasi, kantabriarrek gutxinaka partidua moteltzea lortu zuten, Kanpanzar Arrasate taldeko jokalariek euren sarean erori ziren. Hala, kontraeraso azkarrak eginez, Kantabriako Unibertsitateak bi entsegu egin eta markagailuan buelta ematea lortu zuen. Baina arrasatearrek, lehenengo zatiko azken minutuetan erreakzionatu eta Lezamizek bi zigor kolpe sartu ostean atsedendira markagailuan puntu bakar bategatik galtzen joan ziren (13-14).

Bigarren zatian ere Kanpanzar Arrasateko jokalariek nagusi



Andy Wosniak. | JOSETXO ARANTZABAL

sitasuna erakutsi zuten, baina kantabriarrek markagailuko alde handitzea lortu zuten. Igor Isasiren mutilek ez zuten zigor kolpe bat aprobetxatu eta estrategiako jokaldietan ere ez ziren fin ibili.

Kantabriarrek etxeko taldea blokeatuta zegoela aprobetxatu eta 10 puntu gehiago egitea lortu zuten. Abantaila horrekin kanpoko taldeak partidua nola edo ala moteltzea lortu zuten. Partiduaren azken minutuetan, etxeko taldeak duen erasorako gaitasuna erakutsi eta entsegu bat egitea lortu zuten. Nahiz eta partidua irabazteko balio ez izan, entsegu horri esker, arrasatearrek bonus puntua lortu zuten.

IGOR ISASI | KANPANZAR ARRASATE ERRUGBI TALDEKO ENTRENATZAILEA

"Jokalarien jarrerarekin pozik nago, taldea gorantz doa"

Nahiz eta partidua galdu, taldeak azken partiduetan erakutsitakoarekin pozik dago Igor Isasi.

Pena bat da gaur irabazi ez izana. Bai, kantabriarrek 15 jokalarirekin etorri dira eta aldaketarik egiteko aukerari ez dute izan. Gu berriz, 22 jokalarik ekarri ditugu eta nagusitasun hori ez dugu aprobetxatu. Joko azkarra egiten saiatu gara, gure nagusitasuna aprobetxatzeko asmoz, baina kantabriarrek behin eta berriz jokoa galditzen saiatu dira eta bigarren zatian hori lortu egin dute.

Nahiz eta ia partidua osoa euren zelaian jokatu, ez duzue nagusitasun hori erakutsi.

Taktikoki ez gara oso fin ibili eta gure nagusitasuna ez dugu erakutsi. Alda-



A.M.

ketak egin arren, gure aukerak ez ditugu behar bezala aprobetxatu. Bigarren zatia euren zelaian pasatu dugu, baina ez dugu irabazteko behar genuen bizkortasuna lortu.

Badirudi Kantabriako Unibertsitateak eskua hartu dizuela...

Bai, euren aurka jokatu ditugun azkeneko hiru partidua galdu egin ditugu. Hala ere, hiru partidua horietan ez digute alde handirik atera: iaz puntu bategatik irabazi ziguten, aurrekoan hiru-rengatik eta gaur sei puntuko alde atera digute.

Azken minutuetan alde murriztea lortu duzue eta horri esker bonus puntua lortu duzue.

Bai, errugbian garrantzitsua da partidua zazpi puntu baino gutxiagorengatik galtzea. Denboraldi bukaeran puntu hauek garrantzi handia dute.

Porrot honekin sailkapena estutu egiten da.

Bai, porrot honekin Kantabriako Uni-

bertsitatea puntu bakar batera gertatzen da eta Uribealdeak irabazi ezkerorekin berdin dezake...

Bigarren itzuli ona egiten ari zarete.

Bai, nahiz eta bigarren itzuli honetan igoera eta jaitsiera ez jokatu, guretzat oso garrantzitsua da denboraldia multzo honetako lehenengo edo bigarren-go postua lortzea. Horrela, egonkortasuna lortu eta hurrengo denboraldian taldearen mailak gora egiteko balioko digu.

Beste urte batzuetan ez bezala, aurtengo jokatzeko jokalarik asko dituzue.

Jokalarien jarrerarekin oso pozik nago, taldea gorantz doala uste dut eta hori oso positiboa da.

EBA LIGA

Eguberrietako bonboiek ez diote batera kalterik egin Natra Oñatiri

- ▶ Galtzen hasi arren bigarren laurdenean defentsa hobetu eta saskiratzeak ere heldu ziren
- ▶ Jarraian sartutako hiru hirukok eta kontraerasoek erabaki zuten lehia hirugarrenean

EMAITZA

NATRA OÑATI

73-53

ARDOI

FITXA TEKNIKOAK

Natra Oñati: Zeziaga (6), Gartzia (14), Cavada (12), Xabier Osa (10), Iñigo Biain (8) –hasierako bostekoa–, Gamarra (3), Zabaleta, Kintana, Lizarralde, Ibai Osa eta Odriozola (20).

Ardoi: Campos (4), Narros (12), Davila (9), Aietxu (6), Calvo (7) –hasierako bostekoa–, Cadenas (1), Almendros (4), Janices (7), Narvaez, Aranaz (3) eta Gueye.

Laurdenetako emaitzak: 11-15 lehenengoan; 32-23 atsedendian; 58-45 hirugarrenean; 73-53.



Ander Gartzia jaurtiketa. | IMANOL SORIANO



Imanol Zeziaga buruz burukoan. | I.S.



Xabier Odriozola jaurtiketa librea egiten. | I.S.

JULEN IRIONDO | OÑATI

Motel hasi zen partidua oñatiarrentzat, erasoan sartu beharreko eremu barruko hiruzpalau jaurtiketatan asmatu ezinda. Lehen hamar minutuen osteko lau puntuko desabantaila, baina, laster zuzendu zuen EBA ligako liderrak. Lehen huts egindakoen antzerakoetan asmatzeaz bat, defentsako lana ere hobetu eta nafarrei asko kosta zitzaien saskiratzeak egitea: zortzi puntuan geratu ziren bigarren laurdenean, eta etxeok 21 egin zituzten, atsedendira partidua bideratu-

ta joateko (32 eta 23).

Eta bigarren laurdenean bideratuta koari hirugarrenean eman zioten segida. Ander Gartzia jarraian egindako bi hirukok eta Xabier Osaren hirugarren batek, kontraerasoan egindako beste zenbait

saskiratzerekin batera, hogeit puntura eraman zuten aldea.

Laurdenaren amaieran, dena den, beste bi hirukorekin erantzun zuten kanpokoek, eta saskiratze osteko jaurtiketa libre batean errebotea hartu eta lau puntuko

jokaldia eginez hamahirura gerturatu ziren berriro, baina hori besterik ez. Azkeneko berriro handitu zuen aldea Natrak.

Nabarmenezkoa oraingoan Xabier Odriozolak egindako lana, hogeit punturekin.

ENEKO BLANCO
ENTRENATZAILEA

"Beste martxa bat sartu dugu bigarren laurdenean"

Gustura zen oñatiarren entrenatzaile lehian amaieran.



Galtzen hasi arren, bizkor eta ondo erreakzionatu duzue.

Joko lasaia egiten dute eurek normalean, eta gu ere kutsatu egin gaituzte. Bigarren laurdenean sartu diogu, bai, beste martxa bat.

Eta atsedendia ostean erabaki.

Hirugarren laurdenean bukatuta egon behar zen partidua, baina bizitza eman diegu eta azkeneko hitz egin dugu ez genuela despisterik izan behar, bagenekielako gaizki pasa genezakeela eurak partiduan sartuz gero.

EHU Arabaren kontrahurren goa, berriz ere etxean.

Oso talde gaztea da, bizia, korrika asko egiten duena. Baskoniak utzitako jokalariek ditu. Lasai jokatu beharko dugu, jokaldiak ondo adierazten, eta ikusiko da badakigula era desberdinetan jokatzen.

LEHENENGO MAILA

Partidu ona jokatu arren MU-k ezin Lizuan.com-en kantxan irabazi

- ▶ 64 eta 57 nagusitu ziren azpeitiarrak oso norgehiagoka borrokatuan

J.I. | ARRASATE

Sailkapenean zortzi garaipenekin berdinduta zeuden bi taldeek horixe erakutsi zuten kantxan ere, parekotasun handia. Oso lehia gogorra jokatu zuten Azpeitian Lizuan.com-ek eta Mondragon Unibertsitateak, oso fisikoa, intentsitate handikoa.

Azpeitiarrak erasoan barruraino sartzen ahalegintzen ziren –kanpoko jaurtiketa ez da euren indargunea–, baina arrasatearren defentsa gogorrarekin egin zuten

topo. MU ere ez zen, ordea, beste batzuetan bezain fin ibili erasoan. Kontrarioaren atzealdeko lan onari punteria falta gehituta, ohikoak dituzten 80 puntuetatik urrun geratu ziren.

Markagailuko diferentziak txikiak izan ziren beti, batzuen zein besteen aldekoak, eta azken bi minutuetan erabaki zen partidua. Lizuan.com-eko jokalariek bi hiruko sartu zituzten jarraian eta sei puntuko aldea hartu. MUkoek, oster, jaurtiketa libreen

marratik izan zuten alde hori berriro orekatzeko aukera, baina ez ziren fin ibili, eta zortzi ahaleginetik bakarra gauzatuta partidua ihes egin zuten Arrasatekoek. 64 eta 57 amaitu zen. Markagailuko aldea ahalik eta txikiena izan zedin saiatu ziren azken unera arte, halako liga parekatuan tanteoak ere garrantzitsu izan baitaitezke amaieran.

Hurrengo partidua zapatuan, 20:00etan, Araberriren kontra jokatuko dute, Iturripen.

PROBINTZIAL MAILA

94 eta 55 galdu zuen Soraluze BKEk Atletico S. Sebastianen kantxan

Jipoi handia hartu zuten bergarrek Donostian. Defentsako lanean ondo hasi zuten partidua, baina donostiarrek asko asmatu zuten kanpoko jaurtiketetan. Lehenengo eta bigarren laurdenean markagailuan urruti gabe izan zituzten bergarrek kontrarioak, baina atsedendira hobei puntukoa zen aldea. Azken bi laurdenean bikoiztu egin zen. Donostiako presioaren ondorioz hainbat baloi galdu zituzten Soraluzeok, eta epaileen lanarekin ere ez zuten gustura amaitu. Partidutik kanpora erabat, bigarren erdian oso alde handia ateratzeko gai izan zen Atletico SS.

EMAKUMEZKOAK

Garaipen bikaina lortu zuen Eskoriatzak Murkil Zasten kontra

Fase berriko aurreneko partiduan 53 eta 44 hartu zuen mendean Eskoriatzak Murkil Zast talde zarautzarrak. Oso partidua ondo jokatu zuten Fernando Rasoren neskek. Zarauzkoak hasi ziren irabazten, alde politarekin gainera, baina lehenengo laurdenean amaitzerako berdinduta zeuden berriro gauzak. Eta parekotasun horri eutsi zion partidua amaierara arte. Bi minutu falta zirela erakusten zuen markagailuak etxeokozko aldetxo, sei puntuko. Azken txanpako hiruko bat eta jaurtiketa libreetan asmatzea gakoak izan ziren partidua irabazteko.



Andoni Bernal gola egiten; ezkerrekin duen jaurtiketa indartsuari esker gol garrantzitsuak egin zituen. | IMANOL SORIANO

ESKUBALOIA

Ford Mugarri garaile, oso partidu txarra eginda ere

Bigarren zatiko erreakzioari esker, urteko lehen garaipena arrasatearrendako

EMAITZA

FORD MUGARRI

28-23

URDULIZ

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Sailkapeneko beheko postuetan dabilen Urdulizen bisita izan zuen Ford Mugarrik zapatuan. Sailkapeneko postuei erreparatu

gero, lehiaren aurretik ez zirudien Arrasateko taldeak arazo larregi izango zuenik garaipena lortzeko. Eta bi taldeen artean dagoen aldea ikusita hala izan beharko luke. Baina azken urteetan errepikatzen ari dena pasa zen zapatuan ere: Gabonetako geldialdia asko igarri zuten Pablo Garciaeren mutilek; halaxe azaldu zigun Juan Luis Isasmendi laguntzaileak: "Urte hasieran beti jasaten dugu Gabonetako ajea-edo. Ez dakit

zer gertatzen den, arazoa psikologikoa dela esango nuke. Dakidana da urteko lehen partidua oso zaila izaten dela beti". Ohi baino eskasago aritu ziren arrasatearrak, defentsan zein erasoan. Oso partidu txarra egin zuten arrasatearrek: "Taldeak duen maila baino askoz okerrago aritu da gaur [zapatua]; partidua nola joan den ikusita, ez nuen inondik inora espero irabazi egingo genuenik", adierazi zigun

ESANAK

"Partidua nola joan den ikusita, ez nuen inondik inora espero irabazi egingo genuenik"

JUAN LUIS ISASMENDI | FORD MUGARRI

Isasmendik lehiaren amaieran. Izan ere, hainbat minututan azpitik izan zen etxeko taldea markagailuan. Baina atzetik ikusi eta apur bat estutu zutenean, aurretik jarri ziren.

Bigarren zatian, erreakzioa

Hasieratik galtzen joan zen Ford Mugarri eta atsedenaldira ere atzetik heldu zen markagailuan (12-14). Bigarren zatiko hasieran are gehiago estutu zuen Urdulizek eta aldea egin zuten markagailuan (12-15/13-16). Baina defendatzeko estrategia aldatu -bost eta batekoa beharrean, sei eta hutsekoa- eta Urdulizek arazo latzak izan zituen gola egiteko. Arrasateko taldearen erreakzioa heldu eta markagailuari buelta ematea lortu zuten. Joko gogorra izan zen tarteka eta tentsio umeak ere bizi izan ziren; Ford Mugarrik ondo sufritu behar izan zuen urteko lehen garaipena lortzeko. Onena, garaipena eta bi puntu gehiago lortu izana. Azken emaitza, 28-23.

Pablo Garcia gidari

Ane Herrero kanpoan dagoenez Pablo Garcia entrenatzaile oñatiarra saiatu beharko da taldea mailaz igotzen.

ESKUBALOIA

Soraluce BKE garaile Gure Auzuneran aurka (38-40)

J.B. | BERGARA

Ondo borrokatu behar izan zuen Soraluce BKEk atzo Gasteizko Gure Auzune taldearen aurka garaipena lortzeko: "Boladaka ibili gara partidu osoan zehar. Hori bai, lehen zatiko azken hamar minutuak oso onak egin ditugu eta horregatik alde ona lortu dugu", adierazi du Josetxo Muniategik. Atsedenaldira 17-22 heldu ziren eta bigarren zatian hasieran ere alde hori mantendu zuten mahoneroek.

Erasoan bai, defentsan ez

Hala ere, lehiako azken minutuetan gasteiztarrek gol bakar batera jartzea lortu zuten eta berdintzeko aukera ere izan zuten. Baina asmatu ez, eta bergararrek bi goleko aldea lortu zuten; hala amaitu zen partidua (38-40). Muniategiren arabera, bi taldeak hobeto aritu ziren erasoan defentsan baino: "Defentsako lana ez zait gustatu baina garaipena baloratu beharra dago, oso zaila egiten zaigu-eta Gasteizen irabaztea".

ESKUBALOIA

Aloña Mendi Urnieta baino askoz gehiago izan zen (26-11)

J.B. | OÑATI

Aloña Mendiko eskubaloit taldeko neskek garaipen erraza lortu zuten zapatuan Zubikoan (26-11). Markagailua kanpokoek estreinatzen den etxekoak berehalatu egin ziren norgehiagokaren jabe: "Hasieratik gailendu ginen. Atsedenaldira 10-5 heldu ginen, baina bagenekien askoz hobeto egin genezakeela. Hala, bigarren zatian hobeto irten ginen eta aldea handiagotu genuen berehala", esan zigun Ainhoa Unamunok.

Urnieta, talde ahula

Oñatiarrek bazekiten zapatukoa irabazteko partidua zela, "argi eta garbi". Izan ere, Urnieta oso talde ahula da Aloña Mendiren ondoan: "Alde handia dago bi taldeen artean", uste du Unamunok. Alde hori sailkapenean ere islatzen da; bi talde daude bereizita, Unamunoren arabera: "Hainbat partidu daude ziur dakigula irabaziko ditugula eta beste batzuk, berriz, galdu egingo ditugula". Kontuak kontu, Oñatiko taldea pozik egon daiteke urtea ondo hasi duelako.

PILOTA

Zabalik dago Dorletako Ama txapelketan izena emateko epea, otsailaren 24ra arte

Finalak, urtero moduan, Gatzagako jaietan: irailaren 8an eta 9an, hain zuzen

J.B. | LEINTZ GATZAGA

Dagoeneko eman daiteke izena Dorletako Ama pilota txapelketan. Otsailaren 24ra arte egongo da irekita izen-emate epea, eta pilo-

tari bakoitzak 15 euro ordaindu beharko ditu. Izena emateko honako telefono honetara deitu beharra dago: 605 724 096 (Mauri Zubillaga). Martxoaren 3an hasi-

ta, hileko domeka baten egingo dira partiduak, 09:00etatik aurrera. Eta noski, ohitura denez, final guztiak Gatzagako jaietan jokatuko dira, irailaren 8an eta 9an,

hain justu. Haur, gazte zein beteranoendako txapelketak bost urte beteko ditu aurten eta dagoeneko Leintz Gatzagan antolatzen den pilota txapelketarik garrantzitsuena da.

12 herritako pilotariak

Parte hartuko duten klubei erreparatu, aurten ere, Mauri Zubillaga antolatzaileak aurreratu duenez, 12 herritako pilotariak batuko dira Leintz Gatzagan: Arrasate, Bergara, Aretxabaleta, Aramaio, Otxandio, Legutio, Azpeitia, Azkoitia, Altsasu eta Gasteizko Zaramaga, Lakua eta Adurza. Bikoteka jokatuko da.

Ez dira lesioen kargu egingo

Kategoriei dagokienez, pre-benjaminak, gazte mailakoak eta senior mailakoak izango dira batetik. Bestetik, beteranoek ere izango dute aukera pilotaz gozatzeko. Zubillagak aurreratu duenez, lehen mailako beteranoek "punpako pilota goxoekin" jokatuko dute, eta bigarren mailakoek, ordea, "pilota oso goxoekin".

Gainera, antolatzaileek argi utzi gura izan dute ez direla lesioen kargu egingo.



Iazko Dorletako Ama pilota txapelketako partidu bat. | ARTXIBOIA

MENDIA

Mendirako eta eskiatzeko aukera izango da asteburuan bailarako elkarteen eskutik

Besaidek, Pol-Polek eta Aloña Mendik prest dituzte hurrengo irteerak

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Urte berriarekin batera prest dituzte Arrasateko Besaide elkarteak, Bergarako Pol-Polek eta Oñatiko Aloña Mendiko mendi sailak kirol jarduera berriak. Aurrenekoak asteburu honetan bertan izango dira, hilaren 19an eta 20an.

Eskia Besaideren eskutik

Arrasatetik, mendi eskia egitera joango dira Petit Fachara-Bachimañako aterpean igaroko dute gaua. Izena gaur-astelehena-edo bihar eman beharko da, Besaideren egoitzan, 19:30etik 20:30era.

Bestalde, asteburu berean, alpetar erako eskia egitera ere joango dira Formigalera. Autobusa zapatuan-hilak 19-irtengo da, goizeko 05:00tan, eta buelta, berriz, domekan izango da, arratsaldeko 16:00tan. Arrasateko bazkideek 60 euro ordaindu beharko dituzte irteeratik; gainontzeko bazkideek, ostera, 65 euro. Bazkide ez diren artean, berriz, Arrasatekoak 75 euro eta gainontzekoak 90 euro. Prezioaren barruan autobusa eta Nievesol hotelean pentsio erdiko gau bat sartzen dira. Izena eman daiteke astelehen, martitzen eta eguaz-



Mendi eskia egiteko aukera izango da asteburuan Besaiderekin. | IÑAKI IDIGORAS

tenean, 18:30ak eta 19:30ak bitartean.

Pol-Polekoak Zurizara

Pol-Polekoak ere badute mendi eski irteera datorren astebururako. Zuriza aldera izango da, zapatuan Atxeritora eta domekan Petretxemara igotzeko asmoarekin. Gainera, irteera biak egin beharrean bakarria egin nahiko balu inork, litekeena da aukera egotea, egun berean joan-etorria egiteko taldea osatzen saiatuko dira-eta. Izena emateko azken eguna bihar da.

Aloñarekin mendira, oinez

Aloñakoek mendi irteera egingo dute zapatuan, Etxegarate gainean hasi eta Arantzazura arte. Bertako auzo-etxean bazkalduko dute gero. Bazkideek bederatziko euro ordaindu beharko dituzte eta ez direnek hamabi (bazkaria aparte). 21 kilometro inguru izango dira, 1000 metroko desnibelarekin. Irteera goizeko 08:00etan izango da, postetxe paretik eta izena emateko epea urtarrilaren 16ra artekoa izango da -Aloña Mendi tabernan-. Bazkarirako lekuak mugatuak dira.

MENDI LASTERKETAK

Zegama-Aizkorri mendi lasterketako hamabigarren ediziorako izen-ematea gaur zabaldu dute

Maiatzaren 26an egingo da Zegama-Aizkorri mendi lasterketaren hamabigarren edizioa. Izena emateko epea ireki da dagoeneko eta otsailaren 1era arte egongo da zabalik. Izena emateko modu bakarria www.kirolprobak.com webgunearen bitartez izango da, bertako galdetegiarekin. Ezingo da telefonoz edo posta elektronikoki bidez eskaerarik egin. Otsailaren 22an, berriz, zozketa egingo da, 19:00etan Zegamako udaletxean. Zozketa publikoa izango da, beraz, edonork izango du bertara joateko aukera. Dortsala egokitu zaien partaideen zerrenda otsailaren 23an argitaratuko da, hurrengo egunean, webgune berdinean.

MENDI LASTERKETAK

Antzuolako 8 Miliak mendi lasterketarako izen-emate epea hilaren 17an zabalduko dute

Antxintxika Triatloi Taldeak lehen mendi lasterketa antolatuko du. Otsailaren 17an izango da, Antzuolan, goizeko 10:30ean. Hala, lasterketarako izen-emate epea urtarrilaren 17an irekiko dute, datorren egunean, eta otsailaren 14ra arte egongo da zabalik. Parte hartzeko www.kirolprobak.com bitartez egin ahaliko da. Zailtasun maila ertainekoa izango da lasterketa eta ibilbidearen distantzia 13,46 kilometro izango da. Lasterketa egiten duten bitartean gaztetxoentzat ere egongo da entretenimendua, molto mini-motorren proba egingo dutelako.

MENDI ESKIA

Euskal federazioaren zeharkaldirako eta Gipuzkoakoaren ikastarorako izena eman daiteke

Urtarrilaren 26 eta 27an egingo dute Pirinioetan mendiko eski ikastaroa. Igoaldietarako hastapen ikastaroa eta zeharkaldiatarako trebakuntza egongo dira aukeran. Parte hartzeko pistako eskian eskarmentua edukitzea ezinbestekoa da. Jaisteko teknikak, larruak erabiltzekoak eta norabide aldaketak, bilaketa eta erreskate teknikak, askotarikoak landuko dituzte ikastaroan. Prezioa 110 euro da federatuentzat eta 133 gainerakoentzat. Eta dagoeneko izena eman daiteke, baita ere, Euskal federazioaren Mendiko Eskiko XXXVI. Zeharkaldirako. Martxoaren 3an izango da, Zuri-za bailaran. Informazio gehiago, federazioen webguneetan.

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK

| | |
|-------------------------|-----|
| Trintxerpe-Oiartzun | 1-3 |
| Aretxabaleta-Beti Gazte | 0-0 |
| Real Union-Zarautz | 2-1 |
| Aurrera-Mondra | 2-2 |
| Ostadar-Touring | 3-1 |
| Lagun Onak-Aloña Mendi | 1-0 |
| Hondarribia-Bergara | 4-1 |
| Berio-Hernani | 3-1 |
| Urola-Tolosa | 2-3 |

SAILKAPENA

| TALDEA | P | J |
|----------------|----|----|
| 1 Hernani | 39 | 17 |
| 2 Real Union | 39 | 17 |
| 3 Aretxabaleta | 33 | 17 |
| 4 Oiartzun | 32 | 17 |
| 5 Berio | 29 | 17 |
| 6 Hondarribia | 29 | 17 |
| 7 Bergara | 29 | 17 |
| 8 Touring | 25 | 17 |
| 9 Tolosa | 24 | 17 |
| 10 Aloña Mendi | 20 | 17 |
| 11 Mondra | 18 | 17 |
| 12 Lagun Onak | 18 | 17 |
| 13 Aurrera | 17 | 17 |

| | | |
|---------------|----|----|
| 14 Zarautz | 17 | 17 |
| 15 Beti Gazte | 17 | 17 |
| 16 Trintxerpe | 17 | 17 |
| 17 Ostadar | 16 | 17 |
| 18 Urola | 13 | 17 |

HURRENGO JARDUNALDIA

| | |
|-----------------------|--|
| Berio-Tolosa | |
| Hondarribia-Hernani | |
| Lagun Onak-Bergara | |
| Ostadar-Aloña Mendi | |
| Aurrera-Touring | |
| Aretxabaleta-Mondra | |
| Trintxerpe-Beti Gazte | |
| Oiartzun-Zarautz | |
| Urola-Real Union | |

ERREGIONAL PREFERENTEA

| | |
|------------------|-----|
| Ilintxa-Antzuola | 1-1 |
|------------------|-----|

1. ERREGIONALA

| | |
|-----------------------|-----|
| Aretxabaleta-Vasconia | 3-0 |
| Soraluze-Bergara | 4-2 |
| Zumaiako-Arizmendi | 2-4 |

GAZTEEN EUSKAL LIGA

| | |
|-----------------------|-----|
| Indartsu-Aretxabaleta | 4-1 |
|-----------------------|-----|

OHOREZKO GAZTEAK

| | |
|---------------------|-----|
| Beasain-Bergara | 3-1 |
| Aurrera-Aloña Mendi | 3-1 |
| Mondra-Euskalduna | 2-0 |

GAZTEEN 1. MAILA

| | |
|----------------------|-----|
| Urnieta-Aretxabaleta | 3-1 |
| Arizmendi-Zestoa | 1-2 |
| Idiazabal-Bergara | 4-0 |
| Soraluze-Aloña Mendi | 2-2 |

OHOREZKO KADETEAK

| | |
|----------------------|-----|
| Aloña Mendi-Eibar | 1-3 |
| Bergara-Aretxabaleta | 1-1 |
| Ordizia-Arrasate | 4-2 |

EMAKUMEEN 2. MAILA

| | |
|-------------------|-----|
| Pauldarrak-Mondra | 1-0 |
|-------------------|-----|

GAZTE EMAKUMEAK KOPA

| | |
|----------------------|-----|
| Mondra-Amaikak Bat | 1-1 |
| Amara Berri-Bergara | 2-3 |
| Oiartzun-Aloña Mendi | 2-1 |

ESKUBALOIA

LEHEN NAZIONALA

| | |
|--------------------------|-------|
| Gure Auzune-Soraluze BKE | 38-40 |
| Ford Mugarri-Urduliz | 28-23 |

EUSKADIKO TXAP. EMAK.

| | |
|---------------------|-------|
| Aloña Mendi-Urnieta | 26-11 |
|---------------------|-------|

GIPUZKOAKO 1. MAILA

| | |
|--------------------|-------|
| Aloña Mendi-Tolosa | 27-27 |
|--------------------|-------|

GIPUZKOAKO 2. MAILA

| | |
|------------------|-------|
| Amenabar-Bergara | 29-28 |
| Tolosa-Arrasate | 27-20 |

JUBENILAK, GIZONEZKOAK

| | |
|----------------------|-------|
| Elgoibar-Aloña Mendi | 35-22 |
| Bergara-Eibar | 21-36 |

KADETEAK, GIZONEZKOAK

| | |
|-----------------------|-------|
| Elgoibar-Aloña Mendi | 30-31 |
| Elgoibar-Soraluze BKE | 18-32 |

KADETEAK, EMAKUMEZKOAK

| | |
|-----------------------|-------|
| Bera Bera-Aloña Mendi | 11-28 |
|-----------------------|-------|

SASKIBALOIA

EBA LIGA

| | |
|-------------------|-------|
| Natra Oñati-Ardoi | 73-53 |
|-------------------|-------|

LEHEN NAZIONAL MAILA

| | |
|---------------|-------|
| Lizuan.com-MU | 64-57 |
|---------------|-------|

SENIOR GIZONEZKOAK

| | |
|--------------------------|-------|
| Take Orbelu-MU | 65-57 |
| Atletico SS-Soraluze BKE | 94-55 |

SENIOR GIZONAK, 2. MAILA

| | |
|---------------------|-------|
| Aloña Mendi-Donosti | 52-37 |
|---------------------|-------|

SENIOR GIZONAK, 3. MAILA

| | |
|-----------|-------|
| Tecnun-MU | 78-36 |
|-----------|-------|

SENIOR EMAKUMEZKOAK

| | |
|------------------------|-------|
| Eskoriatza-Murkil Zast | 53-44 |
|------------------------|-------|

GAZTEAK ERRENDIMENDUA

| | |
|------------|-------|
| Easo 96-MU | 63-39 |
|------------|-------|

GURE KIROLA

GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK | ASTELEHENERO, 20:03, 23:56



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA **goiena**

TXIRRINDULARITZA

Markel Uriarte | Enduroko eta jaitsieretako txirrindularia

"Enduroan lehiatzeko kanpora joan beharra izaten dugu, modalitate berria da gurean"

- ▶ Aretxabaletakoari igartzen zaizkio gaztetatik trialsinean egindako urteak
- ▶ Enduroak mendi bizikletaren eta jaitsieren ezaugarri politenak batzen dituela uste du

JAGOBA DOMINGO | ARETXABALETA

Txirrindularitzarekin lotutako modalitate ezberdinetan iaioa da gure gaurko protagonista. Markel Uriarte aretxabaletarra ume koxkorra zenetik bizikleta gainean ikusi izan dute herrikideek, eta, denbora pasatu ahala, esperientzia hartu eta trialsin, enduro eta jaitsiera modalitateetan Euskadi mailan bere lekua egin du. Gaur egun enduro eta jaitsiera modalitateetan dihardu gogor, baina, horrez gain, Aretxabaletan urtero egiten duten mendiko bizikleta martxako antolatzailetako bat ere bada.

Enduro eta jaitsiera modalitateekin buru-belarri zabilta, baina orain dela urte gutxira arte trialsina zen zure modalitate nagusia.

Hala da, baina trialsina iaz utzi nuen alde batera. Orain arte 12 urtez ibili naiz modalitate horretan lehiatzen, 8 urte nituela hasi nintzen eta iaz arte horretan ibili naiz. Kontua da hainbeste modalitate egiteak denbora falta dakarrela eta modalitate ezberdinetako lasterketa asko egun berberean egiten dituztela. Beraz, beste modalitate batzuetan zentratzeko asmoz, trialsina alde batera uztea erabaki nuen.

Gaur egun enduro modalitatean lehiatzen zara, batez ere, baina, tarteka, jaitsierak ere egiten dituzu, ezta?

Bai, oraintxe bertan batez ere enduroan zentratuta nago, baina, horrez gain, mendiko bizikletako zein jaitsiera lasterketa batzuetan hartzen dut parte. Izan ere, enduroko lasterketan prestatzeko oso ondo datorkit bi modalitate hauean lehiatzea.

Hala ere, bizikleta gainean ikusten zaitugunean, trialsinetik zatozela segituan igartzen da.

Azken finean, trialsina betidanik praktikatu izan dut, eta motorrean ere ibili izan naiz. Beraz, bizi-



Markel Uriarte malda behera jaisten. | MARKEL URIARTE

kleta gainean hori ikusi egiten da, abilezia asko lantzen da trialsin modalitatean.

Aspaldian, lasterketak egiteaz gain, bideoak egiten ikusi zaitugu.

Orain dela 4 bat urte, beste txirrindulari batzuen bideoak ikusten hasi nintzen, eta, oso gustuko nituenez, bideokamera bat erosi eta bideoak grabatzeari

"Jaitsiera lasterketak oso ikusgarriak dira, baina kolpeak ez dira hain larriak"

ekin nion. Emaitza polita izaten da eta jendeak bideoen jarraipena egiten du; beraz, pozik.

Ze ezaugarri ditu enduroak?

Azken finean, mendiko bizikletaren eta jaitsieraren arteko nahastea da, bi modalitateen ezaugarri onenak batzen ditu.

Gurera orain indarrez heltzen ari den modalitatea da.

Bai; berez, txirrindularitzako beste modalitate bat da, baina motorreko endurotik dator, karre-formatuak oso antzerakoak direlako. Ibilbideak 30-50 kilometro ingurukoak izaten dira, baina bi tarte ezberdin bereizten dira. Alde batetik, lotura tartekak; eta, bestetik, tarte kronometratuak. Azken hauek dira lasterketan puntuagarriak, gehienetan jaitsierak, baina lotura tartekak denbora jakin batean egin behar ditugu, bestela zigortuak izaten gara-eta. Beraz, enduroak fisikoki nahiko ondo egotea eskatzen du, tarteka ibilbide luzeak igo behar ditugulako, ez dira jaitsierak soilik.

Hala ere jaitsierako lasterketan ere hartzen duzu parte.

Bai, modalitate honetan zirkuitu bakar bat egoten da eta hau oso ondo entrenatu ondoren, askotan ibilbidea buruz ikasten dugu, ahalik eta azkarren jaitsi behar dugu. Lasterketan, jaitsierako denbora bakarrik hartzen da kontuan; beraz, azkarrak eta oso ikusgarriak izaten dira.

Errespetua emango du horrelako abiaduran jaisteak, ala?

Duda barik, baina ez da hain arriskutsua. Bizikleta bereziak erabiltzen ditugu eta gu geu oso babestuta joaten gara. Hala ere, lasterketa oso teknikoak izaten dira eta kolpeak ez dira diruditen besteko gogorrak.

Lehiatzeko nora joan ohi zara?

Enduroan lehiatzeko, esaterako, kanpora joatera behartuta egoten naiz askotan; adibidez, Madril, Frantzia, Segovia edo Galizia aldera joaten naiz, baina European ere lehiatu naiz noiz edo noiz, eta han ikusten den maila handiagoa da. Esan bezala, hemen oraindik modalitate berria da. Jaitsierak egiteko, ordea, Euskal Herrian 8-10 lasterketa ezberdin egiteko aukera dugu; hortaz, ez dago urrun joan beharrik.



Uriarte, salto ikusgarria egiten. | M. URIARTE



BECen egindako lasterketan. | IBEROBIKE



Uriarte bizikletarekin hegan. | M. URIARTE

Irene Txurruka: "Haurrak goizegi ateratzen ditugu beren mundutik"

Guraso.com atariko kolaboratzaileak ipuinak kontatzen —ez irakurtzera— animatzen ditu gurasoak, besteak beste, irakaspen handiak dituztelako

L.Z. | ARRASATE

Gaur egun, guraso gehienok daki-gu ona dela haurrei ipuinak kontatzea. Baina ez daukagu hain argi zergatik, ez eta nola kontatu, zenbat ipuin kontatu, nolako ipuinak aukeratu... Irene Txurrukak hainbat argibide eman dizkigu gaiaren inguruan Guraso.com atarian. Jakinarazten digu, lehenik eta behin, haurrak beste mundu batean bizi direla, fantasiatzeko eta ilusiozko mundu batean, eta hori elikatzearen

aldekora da Txurruka. "Gaur egun joera daukagu haurrei gauzak diren bezala —gordinki eta detale guztiekin— azaltzeko, eta ez gara konturatzen haurrak goizegi ateratzen ditugula beren mundutik", adierazi du.

Txurrukaren ustez horregatik dira hain garrantzitsuak ipuinak. Gurasoei gomendatzen die ipuinak kontatzeko, ez irakurtzeko. Eta ahal den neurrian marrazkiak erakutsi beharrean haurrari aukera emateko irudi

horiek bere irudimenean sortzeko. "Kontatzen dugunean haurrak gure hitza besterik ez du euskarriztat, eta orduan ipuina bere barruan birsortzeko aukera ematen diogu; alegia, irudia sortzeko. Marrazkidun ipuin bat erakusten diogunean edo pelikula bat jartzen diogunean ez du lan hori egiten, ez du mundu hori bere baitan birsortzen".

Ipuin klasikoak

Oso modan egon ez arren ipuin klasikoak defendatzailea da Txurruka. "Gaur egun ohitura dugu ipuin horietako asko itxuraldatzeko, bortitzeziak edo matxistak edo dena delakoak iruditzen zaizkigulako. Baina galduta dugun leku batetik edo ikusteko modu batetik hitzegiten dute, eta zerbait aldatzen badiegu beren zentzua galtzen dute".

Adin bakoitzak bere ipuinak dituela dio Txurrukak, eta artikuluan azalpen gehiago ematen ditu, baina dio ipuinek indarra ematen dutela ahalegina egiteko, mamuak gainditzeko, pasatu beharrekoak pasatu arren zerbait ona etorriko den itxaropena ez galtzeko, eta egia esateko horixe da bizitza".



Ipuin kontalari saioa. | IMAGEN EN ACCION

Goraipamena da gurasook dugun baliabide baliotsuenetakoa bat

Haurrei eskaini diezazkiekegun opari hoberenak sari ez-materialak dira

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Nola saritu behar ditugu gure haurren jokaera on edo lorpenak? Gurasook gure buruari sarri egiten diogun galdera da. Gaiaren inguruan

artikulu interesgarria jaso dute *Ttiklik.com* atarian. "Goraipamena da gurasook dugun baliabide baliotsuenetakoa bat, baina hau ondo erabiltzen jakin behar dugu era

ginkorra izatea nahi badugu", irakur daiteke.

Arrisku nagusia haurrak xantaiagile bihurtzea da, horregatik aholkua da sari ez-materialak lehenestea. Goraipamena da aukera bat, baina eraginkorra izateko zintzoa, berezkoa eta neurrian egindako behar du. Beharrezkoa da, baita ere, zer saritzen den ondo azaltzea: "Oso ondo!" beharrean, "Ze ondo ari zaren eraikin horrekin jolasean!", esaterako. Hala, euren auto-estimua ere lantzen dugu.

"Beti bezala burua erabiltzea da hobereana", diote artikuluan. "Helburua gure seme-alabak portaera ona dutenean gustura eta harro sentitzea da". Ez hori bakarrik: "Etorrizun batean ondo portatzen jakitea ondo eginga dagoela jakinda, ez sari baten truke".



Haurra sukaldean nagusi baten laguntzarekin. | BELAMBRA CLUBS



Gema Bikuña. | MIREIA BIKUÑA

Gema Bikuña: "Negu partean umeak 7-8 bider gaixotzen dira"

Mendaro Ospitaleko erizain oñatiarrak gurasoendako hainbat gomendio eman ditu

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Oñatiko Txantxiku ikastolak *Txikitxoek Jardunaldiak 2013* ditu martxan, eta hilaren 9an hitzaldia egin zuen Gema Bikuña erizainak. Umea gaixotzen zai-gunean nola jokatu behar dugun jakiteko gomendio interesgarriak eman zituen.

Sukarra da haurra gaixotzen denean lehen sintoma?

Bai. Sukarra agertu bezain laster joan ohi gara gurasoak sendagilearengana. Beharrezkoa da jaioberrieekin, baina bestelakoetan gertatzen zaigu sendagileak ez digula botikarik ematen, eta horrek zapuztu egiten gaitu. Jakin behar dugu sukarra beste zerbaiten adierazle dela. 24-48 ordu behar izaten dira sukarra zerk eragin duen argitzeko. Izan daiteke otitis bat, angina batzuk, katarro bat... Horrelakoetan, sukarraren eboluzioa, eta umearen egoera orokorra kontrolatu behar ditugu, eta ibuprofenoa eman. Horiek eginda ikusten badugu sukarra ez dela jaisten eta haurra makal dagoela, orduan sendagilearengana joan behar dugu. Baina jakin lehenengo orduetan pediatrik sekuruenik ezingo duela esan haurrak zer duen.

Eta normala da sarri gaixotzea?

Normala da negu partean umeek 7-8 gaixotasun episodio edukitzea. Katarroa, eztula, mukiak, gastroenteritisa... Haurra esko-

lara joaten da, eta kontaktuan dago beste umeekin. Prozesu horiek irauten badute 7-8 egun, eta neguko hiru hilabeteetan 7-8 bider gaixotzen badira, pentsa! Baina jakin behar dugu normala dela. Gurasoendako desesperagarria da, baina azkenean, immunizazioa horrela egiten da. Zer egin? Ba pazientzia, ahalik eta ondoen eraman, eta horrelako gauzak.

Batzuetan pediatri botika bat errezetatzea eskatzen diogu.

Guraso askok antibiotikoa eskatzen dute kontsultan, baina jakin behar dugu beharrezkoa denean bakarrik hartu behar dela. Gorputzak badaki antibiotikoari erresistentzia egiten, eta ikasi egiten du. Beharrezkoa ez denean hartzea gure kalterako da. Beste akats bat da antibiotikoaren tratamendua ondo ez amaitzea. Hori ere gaixoarekin kalterako da.

Eta ze eragin du haurra eskolara gaixorik bidaltzeak?

Ez da komenigarria. Sukarrekin ezin da bidali, baina nahiko barneratuta daukagu hori. Gertatzen dena gehiago da haurra pattal egotea, eta norekin utzi ez dugulako botika eman eta eskolara bidaltzea. Arriskuak bi dira: alde batetik gainerako haurrak gaixotzea, eta bestetik gure haurrak beste edozein gaixotasun hartzea une horretan defentsak baxu dituelako. Arduraz jokatu behar dugu.

KULTURA



Betagarrik emanaldi bizia eskaini zuen egubakoitz gauean. | IMANOL SORIANO

Festa eta ska gaztelekuan

- ▶ Gasteizko Betagarri taldeak kontzertu bizia eskaini zuen egubakoitzean Oñatin
- ▶ Taldearen 20. urteurrenean, 'Zorion Argiak' diskoa zuzenean aurkezten dihardute

FITXA

MUSIKA

ZOOM ETA BETAGARRI

Estiloa: Indie, rock; eta ska, reggae.

Non: Oñatiko gaztelekuan.

Eguna: Egubakoitza, urtarrilak 11.

Iraupena: 3 ordu inguru.

Ikusleak: 150 pertsona inguru

ANDER MONEDERO | OÑATI

1993. urtetik ska, reggae eta rock doinuak lantzen dituen Betagarri taldeak kontzertua eskaini zuen egubakoitz gauean Oñatiko gaztelekuan. Talde gasteiztarrak 2012ko urrian *Zorion Argiak* izeneko lana kaleratu zuen eta, orain, zuzenean aurkezten dihardu.

Betagarrik, aurten, oholta gainean 20 urte beteko ditu eta hori ospatzeko, ondoen dakitena egiten ari dira: oholta gainean beraien abestiak jo eta ska, rock eta reggae doinuekin publikoa dantzan jarri. Urrian kaleratutako lan berriaren abestiak ez ezik, taldeak bere ibilbidean egindako abestiak ere jotzen dituzte kontzertuetan.

Gaueko 23:30ak aldera igo ziren zazpi musikariak gaztelekuko oholta gainera. Emanaldia *Zorion Argiak* lanaren hiru abestirekin hasi zuten, eta nahiz eta abesti berriak izan, taldearen jarraitzaile gazteenek ondo baino

hobeto zekizkiten hitzak. Horren ostean, taldearen abesti ezagunagoekin jarraitu zuten: *Bidea gara* eta *Sweet Mary*. Abesti horiekin, taldearen jarraitzaileak kontzertuan sartu ziren eta taldeak momentu hori aprobetxatu zuen lan berriko beste abesti sorta bat jotzeko, tartean, Bilboko Errekalde auzoko Kukutza gaztetxeari eskainitako *Udazkenarekin batera*.

Emanaldiak aurrera egin ahal, taldearen klasikoak jotzen hasi ziren eta publikoa animatu eta mugitzen hasi zen. Betagarrik

oholtza gainetik ikusleari transmititzen dion alaitasuna kutsakorra dela esan daiteke.

'Zorion Argiak'

20 urte eta maketa bat eta bederatzi diskoren ostean, ez da ohikoa 23 abesti berriz osatutako lana kaleratzea. 23 kantu horietan, taldeak 20 urte hauetan egindako lagun laguntza izan dute. Horrela, *Zorion Argiak* lanean, besteak beste, Soziedad Alkoholika-ko Juan, Doctor Deseo-ko Francis, Tonino Carotone, El Drogas, Gari edo Mareako Kutziren ahotsak

entzun daitezke. Ez hori bakarrik, Euskal Herriko pailazo ezagunek ere parte hartu dute: Pirritxek eta Porrotxek *Lagunak* kantuan abestu dute.

Azken lan hau soinu anitzeko diskoa da, taldearen betiko estiloaz aparte, lagunek parte hartzen duten abestiek Betagarriren soina aldatu egiten dute: Gari abestutako abestiak, *Koloreen jabe*-k, Hertzainaken ikutu garbia du, Kutzik abestutako *Presaka* kantua ere Marearen ikutu garbia du eta zer esanik ez Pirritx eta Porrotxek abestutakoak.

IÑAKI O. DE VILLALVA BETAGARRI

"Disko anitza atera dugu, desberdina, lagunez inguratutakoa"

2012ko urrian 'Zorion Argiak' izeneko diskoa kaleratu zuten eta lan berri honen aurkezpen bira egiten hasita dira dagoeneko.



Lan berria kaleratu berri duzue eta, orain, zuzenean aurkezteko momentua da. Bai, *Zorion Argiak* lanak harre- oso ona izan du eta orain zuzenean aurkezten hasi gara. Aurten 20 urte betetzen ditugu eta, guretzat, erronka bat da horrelako diskoa kalera- tzea.

'Zorion Argiak' 23 abestiz osatutako lana da, eta horiek kantatzeko 11 abeslariaren laguntza izan duzue.

Musika aldetik disko anitza atera dugu, desberdina da, lagunez inguratutakoa, eta egindako lanarekin oso pozik gaude.

Zoom-en doinu dantzagarriak

Egubakoitz gauean Betagarri zen protagonista nagusia, baina ikusleak berotzeko ardura Durangoko Zoom taldearena izan zen. Nahiz eta Zoom-en soina ska eta reggae doinuek urrun egon, ikusleek arretaz jarraitu zituzten taldearen indie-rock doinu dantzagarriak.

Musika bakarrik ez, taldeak taula gainean duen presentzia ere nabarmentzekoa da: hiru musikariek lerro bakar bat osatu eta energiaz beteriko kontzertua eskaini zuten.



Zoom taldeak emanaldi bizia eskaini zuen. | A.M.



Unai Azkarate gitarrarekin, alboan Los Cretinoseko Jaime abesten duela. | IMANOL SORIANO

Lagun artean zuzeneko gozatua

- ▶ Azkater Peloxek 'Zamburleiker 6.0' aurkeztu zuen
- ▶ Los Cretinos taldekoak batu zitzaizkien sorpresaz

JON BEREZIBAR | BERGARA

Azkater Pelox, bandaren eta lagunaren gaua izan zen ostiralekoa Zabalotegin. Taberna giroko saltsan sarriago eta gustura ikusi ohi den taldearentzat oso bestelakoa da Bergarako areto serioak ekar dezakeen planteamendua. Diskoa aurkeztu zuten eta konpainia ezin hobean egin zuten gainera *Zamburleiker 6.0* lanaren aurkezpena. Diskoan makina bat musika kolaboratu dute eta espero izatekoa zen Zabalotegin oholtzan ere koadrilla ederra batzea. Baina, ezustekotxoak ere egon ziren. Los Cretinoseko Jaime izan zen luxuzko bisita horietako bat. Arrasateko taldeak Lainon egin zuen kontzertua eta Azkarate eta Jaime aspalditik dira kide eta lagunak. Bisita

musikala beraz, ia derrigorrezkoa izan zen herrian bertan egonda. Rolling Stones-en abesti kuttun bat jo zuten elkarrekin.

Hala ere, Azkater Peloxek oraingoan banda osoa igo zuen oholtzara bateria, baxu, gitarra armonika eta ahotsetan Amaia

Aspiazuren laguntzarekin. Jo eta jo dabilta Pelox eta banda eta errodate handia dute. Geratzeko asmorik ez daukate baina ostiralekoak ukitu berezia eta berezituia izan zuen; lagunengatik, lekuarengatik ala aurkezpena izanagatik.

UNAI AZKARATE | AZKAITER PELOX

"Izugarri poztu ninduen Los Cretinos-ekoek eginiko bisitak"

Lagunak oholtzara igota berezia izango zen kontzertua, ezta?

Ikaragarri poztu ninduen bisitak. Jaime, Zaba eta Juanjo etorri ziren jotzera eta izugarria izan zen. Aspalditik gara Jaime eta biok lagunak; bakarlari moduan hasi ginenetik, ni Azkater Pelox moduan eta hura Jim TNT. Kamerinoko atea zabalik utzi genuen eta handik sartu ziren.

Gaua, beraz, luzatu egingo zitzaizuen.

Noski, ze guk gero bisita itzuli genien Los Cretinos-ekoei eta Lainora joan ginen kontzertura.

Esan dugu aurkezpena izan zela baina diskoarekin badaramazue denbora bat, ezta?

Bai, eta Bergaran ere jota gaude disko berriarekin. Etxagin jo genuen eta oso ondo egon zen. Zabalotegiko beste gauza bat da: areto bat, fokuekin ondo argizatuta,



IMANOL SORIANO

soinua ere oso ona. Leku bakoitza diferentea da. Guk asko jotzen dugu.

Eta hala jarraitzeko asmoarekin, ez?

Urtea nahiko betea aurkezten zaigu baina hasiera baten behintzat emango ditugun kontzertuak Baby Blues formatuan eskainiko ditugu. Hala ere, jotzea da beti gure asmo nagusia.

Herriko artisten erakusketa inoiz baino aberatsagoa Aroztegin

J.B. | BERGARA

Urtarrilaren 20ra bitartean egongo da Zabalik Aroztegi aretoan Beart elkartaren erakusketa. Herriko artisten elkarreko 42 lan ipini dituzte aurtun.

Denetariko teknikak

Aurtengoa inoizko erakusketarik osatuena dela diote elkartetik, modu nabarian igartzen ei delako herriko margolarien jasandako garapena eta hobekuntza. Inpresionismoa, akuarelak, akrilikoak, olioak eta

teknika mistoak ikus daitezke erakusketan, guztiak taldean bertan aurki daitezkeen aniztasunaren erakusgarri. Gaur egun elkartea 80 bazkide inguruk osatzen dute. Umeendako eskolak ere eskaintzen dituzte eta edonorentzako dago zabalik.

Aretoa astelehenetik egu-bakoitzera 18:00etatik 20:00etara, zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era eta domeketan 12:00etatik 14:00etara dago zabalik. Hurrengo erakusketa Mikel Mitxelen errenteriarrena izango da.



Olioan egindako lanetako bat. | IMANOL SORIANO



Erakusketan aurki daitezkeen lanetako bat. | IMANOL SORIANO




Teknika mistoarekin egindako lana. | IMANOL SORIANO



Erakusketako margolan bat. | IMANOL SORIANO

FITXA



ZAMBURLEIKER 6.0

AZKAITER PELOX

Estiloa: Blues-rock.

Egilea: Unai Azkarate (Bergara).

Abesti kopurua: 10.

Diskoetxea: Autoekoiztua.

Banaketa: Kontzertuetan eskuratu daiteke.



Donostiako Transistores 50 talde bateranoak zapatuan joko du; ikuskizuna bermatuta dago. | ARTXIBOA



Fat Lizzy, 360 aretoan. | IMANOL SORIANO

Itxungi Rock aste bukaeran, Itxungi irratia itzali ez dadin

Jaialdiaren laugarren edizioan zortzi taldek joko dute, talde hasiberriek zein eskarmentu handikoek

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Itxungi Irrati librearen aldeko Itxungi Rock jaialdia izango da aste bukaeran Arrasateko gaztetxean. Iaz ez zen egin, baina 2009an lehenengoz antolatu zenetik –irratia bera sortu zenetik– jaialdi indartsuak antolatu dituz-

te gaztetxeko barraren gainean dagoen irrati librearen alde. Beraz, aurtengoa laugarren jaialdia izango da. Ohiturari eutsiz, egubakoitzean eta zapatuan izango dira kontzertuak eta, rocka oinarri, talde hasiberriak zein eskarmentu handikoak pasako

dira agertokitik; egubakoitzean hiru taldek joko dute eta zapatuan, berriz, bost taldek. Egubakoitzeko kontzertuak 22:00etan hasiko dira. Zapatuan, ordea, 18:00etan hasiko dira emanaldiak. Taldeei dagokienez, Arrasate ordezkatzear arduratuko dira disko berria aurkezten diharduen Los Cretinos eta Thin Lizzy talde mitikoaren bertsioak maisuki egiten dituen Fat Lizzy taldeak.

Dirua bildu eta ezagutarazi

Itxungi irratia posible egiten duten kideen arabera, proiektua osasuntsu dago: "2009an martxan jarri zenetik gora behera asko izan dituen arren, gaur egun sekula izan duen osasun egoera

ITXUNGI ROCK JAIALDIA

EGUBAKOITZA, HILAK 18

Metralleta.

Psicoterror.

Bar Remigio.

ZAPATUA, HILAK 19

Los Cretinos.

Fat Lizzy.

Disaster People.

Papalagi.

Transistores 50.

Egubakoitzeko sarrera hiru euro da. Zapatukoa, berriz, bost euro. Biltzen den dirua Itxungi irratia librearendako izango da.

onena du irratiak. Bere jarraipenerako beharrezkoa den dirua lortzeko antolatu dugu jaialdia eta baita, bide batez, Itxungi Irratiaren jarduna jendartean aurkezteko ere". Jaialdiaren aurkezpena egingo dute bihar gaztetxean bertan, 11:00etan.

Hiru irratsaio, eta berriei zabalik

Orain hiru irratsaio ditu Itxungi irratiko programazioak: *Noise and Distortion* musika saioa –punka eta hardcorea hizpide–, *Saguxarran kobazuloa* magazin politikoa eta *Karpetazoa!* saio kulturala. Saio berri bat egin gura duenak idatz dezala mezua itxungi@gmail.com helbidera. Itxungi irratia entzuteko, jo gaztetxearen web orrira edo FMko 107.0-era: "107 eta punto".


Martxan da Mikel Essery lehiaketaren bosgarrena

J.B. | ARRASATE

Mikel Essery bidaia kontakizun lehiaketaren bosgarren edizioa abian da dagoeneko. Nazioarteko lehiaketa da eta euskaraz, gazteleraz, galegoz eta katalanez aurkez daitezke lanak. Deitzaileek euskararen presentzia indartu gura dute edizio honetan eta horregatik dei egin diete bidaian doazen euskaldunei euren kontakizunak aurkeztu ditzaten. Informazio gehiago gura duenak www.mikelmunduan.net web orria bisita dezake. Kontuan izan behar da lehiaketaren laugarren edizioan Miguel Gutierrez-Garitano gasteiztarra izan zela garaile, *Viaje a los ojos de Wanda* lanari esker.

Essery, bidaiari nekaezina

Mikel Essery Donostiako ikastola bateko euskara irakaslea zen. Bidaiari nekaezina, zihoan lekura zihoala bertakoekin harreman estua egiten saiatzen zen beti. 2007ko uztailaren 2an hil zuen Al Kaedak, Yemenen turistaren aurka egindako atentatu baten.



Mikel Essery. | GOIENA

Los Cretinos Laino tabernan, "etxean moduan"

Arrasateko laukoteak *Addictus Sonitus* disko berria aurkeztu zuen egubakoitzean Bergarako Laino tabernan. Taldea, gustura: "Etxean moduan sentitu ginen". Iggy Pop-en No Fun kantuekin amaitu zuten kontzertua. Zapatuan, berriz, Gasteizko Hell Doradon jo zuten, The Flestones talde ezagunarekin batera. Sarrera guztiak agortu ziren.



IMANOL SORIANO



DESKONTUAK

gauza GUZTIETAN

eta GUZTIONTZAT

centrocomercialgorbeia.com



IMAGENET

GURE MUSIKA TALDEAK

SCREAMERS
&
SINNERS

Screamers & Sinners taldea, zuzeneko baten. | SCREAMERS&SINNERS

"Gure gustuko musika estiloak batzen dituen zakua da 'psychobilly'-a"

Lehen lana kaleratzeko 12 kantu dituzte eginda; orain, urtarrilean, abesti horiek perfektionatu eta grabatu gura dituzte S&S-ko mutilek

MAIDER ARREGI | ARRASATE

2012an Euskal Herrian sortutako *psychobilly* taldea da Screammers & Sinners. Dagoeneko, baina, makina bat zuzeneko eskaini dute euren lehen *demoa* astintzeko. Beldurrezko kontuak, punka eta rockabillya batzen dituzte. Bailaran ez duzue topatuko halako talderik. *Carlote* eta Jagobarekin egon gara.

Orain arteko ze balorazio egiten duzue?

Daramagun denborarako ezin gara kexatu. Harrera ona izan dugu; otsaila ezkerko zuzenekoak

ere eman ditugu. Egindako abesti nahikotxo ditugu, gainera.

Rockabilly azkarra egiten duzue? Influentzia asko sartzeko aukera eman digu: punkarena, beldurrezko gaiena eta rockabillyarena. Surfarekin ere badu fusioa gure *psychobilly* taldeak.

Zer esan dizuete zuzenekoetan? Jendeak ondo pasatzen du, barre ere egiten dute, kar-kar. Agertokitik publikoa aho zabalik ikusi dugu guri begira eta pentsatzen... "Baina hauek zertan dabilta?". **Izan ere, zuen estetikak harrera pizten du agertokian.**

Maskara eta guzti igotzen gara; egia da arreta ematen dugula; gainera, kontrabaxuarekin... gure irudiak zeresana ematen du, bai hasiera batean, ez da dena!

Zer da zuzeneko psychobilly-a? Gustatzen zaigun musika estilo asko batzen dituen zakua da guretzako. Gogo handia dugun lagunak elkartu gara proiektu honetan. Bakoitza estilo batetik gatzoz eta influentzia ezberdinak ditugu, berea gehituz.

Nork bere begiekin ikusiko zaituzte, ezta?

Bai; azkenean, publiko zabala da

gurea: skinak, rockabillyak, gure gurasoak... askotariko jendea da gure publikoa. Batzuek *makarrregia*, beste batzuek *rockabillyegia* da. Egun, estilo asko barneratzen ditugu eta entzuten ditugu. Jendeak musika beste era batera apreziatzen du eta, gainera, begiak zabaltzen ere laguntzen diegu bete estilo bat ezagut eta entzun dezaten.

Berehala sartzen dira zuen kantuak, Ramonesenak bezala.

Hori asko esatea da! Guri barrutik irteten zaiguna egiten dugu eta hori da emaitza. Sei abestiak ezberdinak dira: garagea, surfa, punka, countrya... denetarik. *Alien* kantuak, esaterako, eskemak apurtzen ditu. *Misfits*-en bertsioa sartu dugu. Jende askorengana heldu nahi dugu.

Noizko diskoa?

12 bat kantu ditugu, eta urtarrilean kantu horiek perfektionatzen hasiko gara, grabatzeko. Make-tako kantuak ere sartuko ditugu, noski. Saxoaren kolaborazioarekin ere bagabiltza.

Ze proiektu esku artean?

Gure asmoa da Euskal Herritik ere irtetea. Madrilen eta Alacanten dagoeneko zuzenekoaren bat lotzea lortu dugu.

Dena ingelesez abesten dugu eta horrek atzerrian ateak zabalduko dizkigula uste dugu. Hasi gara kontaktuak mugitzen eta diskoa esku artean dugunean errazagoa egingo da, agian.

Gure musikarekin dibertsioa eta geldirik ez egoteko formula topatuko dute.

ZERTZELADA



DEMOS FROM THE GRAVE

Estiloa: Psychobilly.

Egilea: Screammers & Sinners (Aretxabaleta, 2012).

Argitaletxea: Autoekoizpena.

Iraupena: 24 minutu.

Musika estiloak lurpetik atera eta berpiztu

Rockabillyek 50eko hamarkadara jotzen dute rock-and-roll puruenaren bila beru lastozko kaxan gordetzeko. Psychobillyek, berriz, 50eko hamarkadara jotzen dute oinarriko rock-and-rola berpiztu eta zenbait estilo bizi, zikin eta gordinekin interpretatzeko. Hala egiten dute Neallta Fola, Los Galerna eta beste hainbat taldeetako kideek osatutako proiektuan. Oinarriko rock-and-rola, punka, garagea, countrya, surfa eta folka lantzen dituzte, reverb bereziko gitarra eta erritmoaren pisua biderkatzen duen kontrabaxuarekin. Entzuleak buruz irekiak izanez gero, gutxienez punk, skin eta rock-and-roll zaleak liluratuko dituzte. Dena dela, hobe duzue taldea zuzenean ikusi.

IKER BARANDIARAN

Bidaieen Wikipedia abiatuko du Wikimedia Fundazioak

- ▶ 'Wikivoyage' egitasmoak bidaiarien erreferentzia izatea bilatzen du
- ▶ Izaera librea eta parte-hartzailea ditu eta irabazi asmorik gabekoa da

JON BEREZIBAR | ARRASATE

The Wikimedia Foundation erakundearen ekimenez oraingo asteen abiatuko da ofizialki Wikivoyage egitasmo berria, *Wikivoyage.org*. Bidaien inguruan sarean aurki daitezkeen blog, webgune, sare-sozial eta orotariko informazio berez oparora osatzera etorriko da Wikipediaren *kide* berri hau. Labur, bidaiez jardungo duen Wikipedia izango da Wikivoyage. Abiatze data zehatza ezarri ez den arren, bihar, urtarilaren 15a, da ituri gehien arabera irekiera eguna.

Sei hilabete lanean eman eta gero azken hilabeteetan *beta* modura bistan egonda webgunea funtzio ia guztiak erabilgarri dituela. Itxura eta baita politika aldetik ere Wikipediaren funtzionamendu antzerakoa izango du erreferentzia gune berri honek. Izaerari dagokionean, arduradunek behin eta berriz ukatu dute atzean negozio moduren bat ezkutatzeko denik. *Wikitravel.org* guneak ekindako bidea jarraitzen



Atariaren irudi bat. | WIKIVOYAGE.ORG

du Wikivoyagek eta leku eta hirien informazio, historia, ezinbesteko jakingarriak eta leku interesgarrien informazio osoa dakar. Proiektuaren izaera ezagututa, momentuz informazio hutsune handiak daude baina behin azken

proben *beta* fasetik irtetea, aste honetatik aurrera, litekeena da erabiltzaileek kolaborazio bitartez milaka eta milaka artikulugotzea, Wikipedian gertatu izan den moduan. Elikatze masiboak espero dira.

Bide beretik, bilatzaileetan hain ondo funtzionatzen duen Wikipediak bezala, emaitzen lehen postuetan Wikivoyagen informazioa agertzen hasiko da. Bidaiei buruzko informazioan gehiegi eta nahasiegi agertzen da informazio erabat komertziala, eta horren aurrean erantzuna ere emango du gune berriak. Wikitravel irabazi asmorik gabeko proiektua dela berretsi dute Wikipediako arduradun nagusiek eta iragarkirik ez da sartuko orrietan. Edukiei dagokienez, erabiltzaileek sortutakoak izango dira guztiak, Wikipediaren ohiko moderazioarekin batera.

Izaera libre eta irekia

Wikimedia Fundazioaren filosofia bete betan hartuko duenez, Wikitravel-ek eskainiko dituen tresna irekiak izango dira, edizio, eguneratze eta sortze aukera irekiekin. Helburua bidaietan ere ezagutza partekatzea da. Hizkuntzei dagokienez, ingelesez eta germanieraz daude eduki gehienak baina gunea bera zortzi hizkuntzatan aurki daiteke dagoeneko. Diseinu eta eduki antolatari dagokionez Wikipediaren estilo eta antolaketa berdina da eta portadan hileko helmugak, ordena antolatua eta informazioaren bilaketa zehatza dator. Leku eta helmuga turistikoei buruzko zerrenda eta baliabide aukera lurtza ere badakar Wikivoyage-en lehen bertsioak. Euskal Herriari dagokionez oso informazio gutxi dator.

Informatikari euskaldunen bilkuran, telefonoak

J.B. | ARRASATE

Aurtengoan, bilkuren gai nagusitzat telefonia hartu dute. Telefonoek Internetekin eta informatikarekin hartu duten olatua hartu nahian, sakelako telefonoen erabilera askotarikoa, smartphone-etarako aplikazioen programazioa, IP telefonia, mezularitza, geolokalizazioa, eskura dauden tresnak eta sistema eragileak, web-zerbitzuen erabilera, euskaraz dauden aplikazioak landu nahi dituzte. Ohi bezala, arlo horretan izandako esperientzien eta garatutako softwarearen berri ematea da antolatzaileen asmoa eta deialdia egin dute aurkezpenetan izena emateko. Euskaraz garatutako edozein klaseko software-produktuak aurkezteko aukera ere emango dute, urtero bezala, bilkuran. Aipatutako gaietan izandako esperientziaren bat aurkeztu nahi izanez gero, edota euskarazko softwarea ekoizten baduzu, parte hartzeko gonbidapena luzatzen dute. Aurkezpen bakoitza egiteko hamabost bat minutu izango dira, eta beste bost galdera-erantzunetarako.

Laburpenak bidaltzeko azken eguna otsailaren 11 izango da eta egileei onarpena jakinaraziko zaie hilaren 22an. Informazio guztia bilkuren blogean aurki daiteke: <http://www.unibertsitatea.net/blogak/ieb2013>.



ENGADGET

'Flower power' mugikorretik

Joan den asteen egin zuten CES 2013 teknologia erakustazoko entzutetsuan pantaila erraldoiak izan dira nagusi baina bitxikeriatarako lekua ez da falta izan. Horien artean Parrot-en etxeko landareak zaintzeko bluetooth bidezko sistema dago.

Mark Zuckerbergi Facebook-etik mezu bat bidaltzeko aukera, 100 dolarren truke

J.B. | ARRASATE

Mark Zuckerberg Facebook sare sozialaren sortzaileari zuzenean mezu bat bidaltzeko aukera ematen du Facebook-ek 100 dolar ordainduta. Facebook-etik bermatzen dute Zuckerbergi irakurri egingo dituela mezuak baina ez da erantzunik egongo dela esaten. Facebookek eskaintzen du dagoeneko modua

"lagunen" artean aurkitzen ez den bati mezua bidaltzeko baina ordaintzea berria da.

'Premium' zerbitzua

Aspalditik dabil Facebook ordainpeko erabiltzaileentzako "premium" zerbitzua eskaini guran. Mezu mota berri hau horren aukeratako bat izan daiteke.

Niagarank albistegi automatikoa sortu dute Sustatu-kotik abiatuta

J.B. | ARRASATE

Sustatu-rako sortu zuten albistegi automatikoaren oinarria hartuta Eibarko Code Syntax enpresakoek *Niagarank.es* sortu dute. Espainiarako, gaztelaraz eta albistegi automatiko hori baino 40 aldiz zabalagoa.

Albistegi automatikoak tuitleriek gehien diharduten albistegi buruzko informazioa batzen du eta horren arabera albiste zerrenda osatu. Tuiterrren gehien hitz egiten den horri buruzko zerrenda egiten du albistegiak. Euskarazkoa sortu eta orain gaztelarazkoa egin dute Code Syntaxekoek. Ez da, gainera, jatorrizko garapena moldatzen duten lehen aldian. Bizikleta denda baten-

tzako albistegi berezitua egin zuten eta Nestoria etxe bilatzaile britainiararentzako ere egin dute bat ingelesez.

Gaiak

Gaztelarazko bertsioan 40 gairi buruzko zerrendak egiten dira eta edukien detekzioan ere gaia identifikatzen da. Erabiltzaileei dagokienez, detektatu eta *rank* edo sailkapen baten arabera sailkatzen dituzte. Eta erabiltzaile horietan, 5.000 gehienez jarraitzen dituzte edukien detekzioarako. Erabiltzaileek nabarmenekin zerrenda egiten dute, beste era batera azalduta. Gaiaren RSS jarria ere aurki daiteke edukien jarraitpenerako.



Niagarank-en orrietako bat. | NIAGARANK

iTunes Store-ek ere milioika mila euroko irabaziak

J.B. | ARRASATE

Apple-en eduki digitalen denda birtualaren datuak aztertu ditu Wall Street-eko analista batek eta batuketa osotik urteko 12 mila milioi dolarreko irabaziak sortzen dituen negozioa dela atera du. Zifra horrek orain arteko espekulazio guztiak gaitzen ditu. iTunes Store-en filmak liburuak, telesailak eta musika saltzen dira. Irabaziak ez dira Apple-entzat soilik, sortzaile eta garatzaileentzat azken bost urteetan 24 mila milioi dolarreko irabaziak sortu dira edukien salmentak eraginda eta azken lau urteetan ia %38 koa izan da Store-en hazkunde maila. Mantenu lanetan 3,5 mila milioi dolar erabiltzen dituzte urtean Horace Dediua analistaren arabera.

TELE-BEGI

OIHAN
VEGA

'La gula del norte'

Iragarri bat: elitezko bi futbolari agertzen dira pantailan, betiko arerioak diren taldeetan jokatzeko dute eta susmagarria den baserri eskaldun batean elkartzen dira bakar-bakarrik, Xabi Alonso eta Carles Puyol. Zertarako? Elkarrekin afaltzeko.

Hauek duten dirutzarekin batek baino gehiagok pentsa lezake Errusiako kabierra edo benetako angula sorta (700/kiloa) afalduko dutela, baina horren ordez, tolosarrak angula itxura duen Alaskako arrainen soberakinak jartzen dizkio mahai gainean gonbidatuari: eguzki-lore olioarekin egindako glutamato monosodiko, arrautza hauts, azido laktiko eta aroma artifizialez osaturiko produktu kaltegarri bat: *La Gula del Norte*. Hori gutxi balitz, Alonso produktu hori sukaldatzen (?) ari den bitartean, Puyolek atea jotzen du, eta, egundoko gosearekin egongo balitz bezala, ia agurtu barik esertzen da mahaiari, hori bai, Kataluniako cava merke bat eskuan duela. Eta orain dator iragarkiko esaldi handia: "Partidu onenak ez dira soilik futbol zelaian izaten" (kar, kar, kar). Ze demontre ikasten dute publizitateko ikasleek unibertitatean? No comment.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 14



'Berriak' saioa

Asteburuak gure babilan utzi dizkigun albisteak jasoko ditugu albistegiaren saioan eguerdian. | 14:45

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Zorion Agurrak
13:20 Onein
13:40 Gipuzkoa kultura
14:10 Ekogune
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Zorion Agurrak
15:18 AsteON
15:58 Erreportajea
16:28 Zorion Agurrak
16:33 Ikusmira
16:43 Berriak
17:08 Eguraldia
17:11 Onein
17:41 Berbetan
18:23 Ekogune
18:51 Goierri Creation Center
19:24 Erreportajea
19:50 Berriak
20:15 Eguraldia
20:17 Magazinea
21:00 Gurean gaur
21:30 AsteON
22:00 Harmailatik
22:45 Berriak
23:05 Eguraldia
23:08 Magazinea
23:53 Harmailatik
00:38 Berriak
00:58 Eguraldia

MARTITZENA, 15




Goiena i-Rent

Ibilgailuak alokatzeko zerbitzua da Goiena i-Rent eta bertako Jon Obeso izango da azalpenak ematen. | 20:15

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Zorion Agurrak
13:22 Harmailatik
14:07 Ekogune
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:07 Eguraldia
15:10 Harmailatik
15:55 Onein
16:17 Berbetan
16:59 Berriak
17:19 Eguraldia
17:22 Esatea libre
18:37 Harmailatik
19:20 Gipuzkoa kultura
19:50 Zorion Agurrak
19:53 Berriak
20:13 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Gurean gaur
21:30 Goierri Creation Center
22:03 Berriak
22:23 Eguraldia
22:28 Magazinea
23:13 Bizitegia
23:41 Berriak
00:01 Eguraldia

EGUAZTENA, 16



Txotx denboraldia

Arabako Sagardo Berriaren Eguna ospatuko da eguenean eta txotx denboraldiaz arituko gara. | 20:15

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Hamaika.bit
13:45 Erreportajea
14:15 Bizitegia
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Hamaika.bit
15:41 Onein
16:08 Harmailatik
16:53 Berriak
17:13 Eguraldia
17:15 Goierri Creation Center
17:48 Zorion Agurrak
17:53 Beranduegi.tv
18:15 Bertso saioa
19:50 Berriak
20:12 Eguraldia
20:14 Magazinea
20:59 Gurean gaur
21:34 Erreportajea
22:00 Berriak
22:20 Eguraldia
22:25 Magazinea
23:10 Harmailatik
23:55 Berriak
00:00 Eguraldia

EGUENA, 17



'Planik bai?'

Asteburuak planik bai? Arantzazu Ezkibeleg emango dizkigu bailarako kultura hitzorduak. | 18:05

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Erreportajea
13:41 Hamaika.bit
14:11 Onein
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Hamaika.bit
15:41 AsteON
16:21 Erreportajea
16:47 Berriak
17:07 Eguraldia
17:10 Onein
17:32 Hamaika.bit
18:05 Planik bai?
18:25 AsteON
19:05 Zorion Agurrak
19:10 Berriak
19:30 Eguraldia
19:36 Beranduegi.tv
19:56 Planik bai?
20:17 Magazinea
21:00 Gurean gaur
21:30 Taula gainean
22:00 Planik bai?
22:20 Berriak
22:40 Eguraldia
22:43 Magazinea
23:28 Erreportajea
23:54 Berriak
00:14 Eguraldia

EGUBAKOITZA, 18



'AsteOn'

Erreportajea, inkesta, kolaboratzaile baten iritzia eta albisteen errepaso jasoko dugu AsteOn saioan. | 21:48

12:00 Planik bai?
12:20 Magazinea
13:05 Zorion Agurrak
13:10 Gurean gaur
13:40 Onein
14:17 Bizitegia
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Planik bai?
15:28 Erreportajea
15:58 Taula gainean
16:28 Beranduegi.tv
16:48 Zorion Agurrak
16:53 Berriak
17:13 Eguraldia
17:16 Planik bai?
17:36 Erreportajea
18:02 28.Klip
18:34 Beranduegi.tv
18:58 Zorion Agurrak
19:02 Berriak
19:22 Eguraldia
19:25 Planik bai?
19:45 Goierri Creation Center
20:18 Taula gainean
20:48 Gurean gaur
21:18 Bizitegia
21:48 AsteON
22:38 Eguraldia
22:41 Esatea libre
23:56 AsteON
00:26 Planik bai?
00:46 Berriak
00:06 Eguraldia

ARRASATE IRRATIA

Xabi San Sebastianen kontzerturako sarrerak ditugu zozketan

Kooltur ostegunak egitasmoaren barruan, aste honetan Xabi San Sebastian izango da Arrasateko gaztetxean kontzertua ematen. Bertara joateko sarrerak nahi? Hartu parte zozketan 943 25 05 05 telefonora deituta edo irratia@goiena.com helbidera mezu bat bidalita. Zorte on.

Leire Aperribai psikologoa hilerokoari buruz berbetan

Gaurko elkarrizketan Leire Aperribai arrasatearra elkarrizketatuko dugu, hilerokoaren aurreko nahaste disforikoa detektatzeko tresna bat garatu baitu amaitu berri duen tesian. 11:00etan izango da elkarrizketa hori, 107.7ko uhinnetako *Igo autobusera!* irratia saioan.

Zapatuko urteko lehenengo baseritarren azoka

2013. urteko lehenengo azoka egingo da zapatuan, hilak 19, Arrasaten. Horri buruz hitz egingo dugu *Igo autobusera!* irratia saioan Marga Garmendia Enplegu teknikariarekin. Hark kontatuko dizkigu aurtengo azokaren xehetasunak zeintzuk diren. Horri buruzko informazioa eguazteneko irratia saioan jasoko duzue.

TELE-ALBISTEAK

Askotariko gaiak landuko ditugu 'Magazinea'-n

Gaur, astelehena, gobernari zuzendutako MUko kurso berri bati buruz hitz egingo dugu, 20:17an



Txomin Madina, Magazinea saioa aurkezlea. | A.T.

AMAI TXINTXURRETA | ARRASATE
Aste honetako Magazinea gai ugariz josita dator.

Gaur, astelehena, gobernari zuzendutako erakundeak zuzentzeko kurtsoa izango dugu hizpide, eta ondoren, tertulian, Mariasun Pagoaga eta Karlos Etxaniz izango ditugu Txomin Madina aurkezleak gidatutako saioan.

Martitzeneko ekonomia tar-tean, berriz, Goiena i-Rent ibilgailuak alokatzeko zerbitzua izango dugu hizpide Jon Obeso enpresako kidearekin.

Eguazteneko osasun tar-tean, oster, Aretxabaletako GSR Debagoiena izeneko zaharren etxea izango dugu hizpide, bertan boluntarioek egiten duten lana oinarri hartuta.

Egueneko saioan, berriz, gazte mugimenduaren metamorfosiari buruz hitz egiten duen *Txi-meletak* izeneko dokumentala izango dugu berbagai. Iratiz Salegi bergararra da proiektuan murgildutako gazteetako bat eta hura izango dugu gazte mugimenduko kide batekin batera Magazinea saioan.

'Harmailatik' kirol saioa gaur 22:00etan

A.T. | ARRASATE

Asteburuak emandako kirol hitzorduen errepaso egingo du Xabi Urtzelai aurkezleak gaur Harmailatik-en.

Aretxabaletak Beti Gazte taldearen aurka etxean jokatutako partidua izango dugu hizpide, batetik.

Bestetik, 2013ko liga oraingo asteburuan hasi duten bailarako talde batzuek egindakoa ere ikusiko dugu saioan: Oñatiko Natra saskibaloitaldeak Ardoiren aurka jokatutako partiduan gertatutakoez, eskubaloian Ford Mugarrik Urdulizekin egindakoaz eta Arrasateko errugbi taldeak Kantabriako aurka egindako lehiaz disfrutatuko ahal izango da gaur, 22:00etan, Goiena telebistan.

'Peter Pan' musikalaren DVDa

A.T. | ARRASATE

Gabonetan Bergarako musika eskolako *Peter Pan* musikal magikoa aurkeztu du. Bada, Goiena telebistako kamerak bertan izan ziren eta musikal guzti-guztia grabatu zuten, hasieratik bukaerara arte.

Orain, lanean gabilta musikalaren DVDa prestatzen; audioko azken ukituak egin eta laster izango da DVDa salgai. Modu horretara, edonork etxean gozatu ahal izango du bergarar gazteek egindako euskarazko musikalaz.

Bada, gogoratu beharra dago Aitor Garitano 12 urteko bergararrak egin zuela Peter Pan protagonistaren papera, eta, gainera, eskaini zituzten ikuskizun guztiek arrakasta itzela lortu zuten.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Malen Artetxe Arregi
Urtarrilaren 20an, 9 urte. Olerki laburrenaren bertsorik politenak bi hitz baino ez ditu: Maite zaitugu. Zorionak eta ondo pasatu zure egunian, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Manex Gomez Gomez
Urtarrilaren 19an, urtebete. Zorionak, Manex! Oso ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzean! Muxu handi bat guztion, eta bereziki, Oihanen partetik!



ESKORIATZA
Alyn Cabeza Davila
Urtarrilaren 17an, 4 urte. Egun ederra ospa dezazula desio dizugu etxeko guztiok. Muxu mordera zuretak!



BERGARA
June Arando Salaberria
Urtarrilaren 16an, 9 urte. Zorionak, txori txiki! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta jaso patxo potolo-potolo bat



OÑATI
Irati Mugarza Aurre
Urtarrilaren 14an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Segi zaren modukoa izaten. Asko maite zaitugu. Muxu handi bat danon partetik.



ARRASATE
Alazne Canales Losa
Urtarrilaren 14an, 5 urte. Zorionak, maitia! Bost urte... Zelako handi egiten ari zaren! Ondo pasatuko dugu merendolan larunbatean. Patxoa!



OÑATI
Uxue Igartua Kortabarria
Urtarrilaren 14an, 6 urte. Zorionak, maitte! Ondo pasatu zure eguna. Sei patxo handi familixaren partetik.



ARETXABALETA
Haizea Duandikoetxea Otxoa
Urtarrilaren 13an, 6 urte. Zorionak, maitia! Etxeko guztion eta lagunon partetik. Muxu handi bat!



OÑATI
Jon Ugarte Anakabe
Urtarrilaren 13an, 8 urte. Zorionak, Jon! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat familiaren partetik.



ARRASATE
Irati Zaitegi Manzanos
Urtarrilaren 13an, 6 urte. Zorionak, Irati maittea! Oso ondo pasatu zure egunian. Asko maite zaitugu, printzesa! Muxu handi bat etxekoen, eta bereziki, Alaitzen partetik!



OÑATI
Xabi Santa Cruz Murua
Urtarrilaren 12an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo handi bat etxeko danon partetik.



BERGARA
Elene eta Oier Uzin
Elenek urtarrilaren 11n eta Oierrek 16an. Zorionak, bikote! Batek 2 eta besteak 6 urte. Zelako handiak jada. A ze bikote ederra! Ondo-ondo pasatu urtebetetzean eta erregalo asko hartu. Zorionak danon partetik eta txokolatzeko patxo handi bat biondako, batez ere Izar eta Ekaitzen partetik.



OÑATI
Beñat Odriozola Igartua
Urtarrilaren 11n, 5 urte. Zorionak etxeko danen partetik! Aittita-amama, osaba-izeba, aitatxo-amatxo... eta Anderren partetik zorionak, txapeldun!



OÑATI
Eneko Mugarza Aurre
Urtarrilaren 10ean, 6 urte. Zorionak, maitia! Ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat asko maite zaitugun familixa eta lagunon partetik.



ESKORIATZA
Karmele Varo
Urtarrilaren 10ean, 18 urte. Zorionak, Koro! Ondo pasatu zure egunian. Pintxopotia galduko dozu ikasten zazelako, baina animo! Patxo handi bat danon partetik!



ARRASATE
Gorka Armendia Zallo
Urtarrilaren 9an, 9 urte. Zorionak, Gorka! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo handi bat etxeko guztion partetik!



OÑATI
Malen Galdos Zuaire
Urtarrilaren 9an, 7 urte. Zorionak, Malen! Egun on-ona pasa dezazula eta patxo handi bat gure polittari, etxeko guztien partetik.



ANTZUOLA
Lide Etxezortu Gabilondo
Urtarrilaren 8an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Imanol, Laida, Oier, Maider eta Gariren partetik.



BERGARA
Malen eta Mireia Etxaniz
Malenek urtarrilaren 7an, 6 urte eta Mireiak abenduaren 26an, 3 urte. Zorionak, printzesak. Etxeko guztien partetik.



OÑATI
Uxue Ugalde Urkiola
Urtarrilaren 6an, 10 urte. Gure mendizale trebeak 10 urte bete ditu jada. Txindokira igo ondoren, noiz goaz Aizkorriara?



ARETXABALETA
Yuli Corres Zubillaga
Urtarrilaren 5ean, 9 urte. Zorionak, maitia. Bederatzi urte! Neskatila pinpirina zara, eh! Ondo-ondo pasatu eguna! Zorion pila bat eta muxu potolo bat danon partetik, bereziki Maddi, Sarah, Danel eta Oxelek.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaituzte *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituzte Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Izaro Arbizu Zabaleta

Arrasate. 4 Kilo. Urtarrilaren 4a. Gurasoak: Ainhoa eta Xabier. Argazkian, Izaro jaioberria amarekin.



Oier Perez Moto

2,760 Kilo. Urtarrilaren 7a. Gurasoak: Oksana eta Oscar. Argazkian, Oier aitarekin eta amarekin.



Mairi Lejarreta Telletxea

Berriz. 2,960 Kilo. Urtarrilaren 7a. Gurasoak: Naiara eta Iñaki. Argazkian, Mairi jaioberria amarekin.



Naia Letamendi Narraspe

Oñati. 4,140 Kilo. Urtarrilaren 8a. Gurasoak: Maider eta Arkaitz. Argazkian, Naia gurasoekin eta ahizparekin.



Aner Miguel Sanchez

Eibar. 3,250 Kilo. Urtarrilaren 9a. Gurasoak: Elena eta Alex. Argazkian, Aner jaioberria amarekin.



Izaro Irizar Fernandez

Antzuola. 2,790 Kilo. Urtarrilaren 10a. Gurasoak: Izaskun eta Iker. Argazkian, Izaro amaren besoetan.



Lier Montero Sanchez

Bergara. 2,670 Kilo. Urtarrilaren 10a. Gurasoak: Sandra eta Oscar. Argazkian, Lier sehaskan lo.



Iker del Palacio Orellana

Arrasate. 3,080 Kilo. Urtarrilaren 10a. Gurasoak: Viviana eta Mikel. Argazkian, Iker amarekin eta aitarekin.



Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batara.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

| | | | |
|---------------------------|--------------------------|------------------------|----------|
| | Hitz egiteko erraztasuna | Kriskitina | Biarnoko |
| Euritako | Elokoak | Errep., fruitu mota | |
| * Gaika bitzeko hondakina | | | |
| Gerrmaniaoa | | | |
| Bizi, jasan | Donostiako auzoa | Röntgen | |
| Sobera dena | Ipar EH-n, txapel | Ito beharrean | |
| Errep., txori mota | Itoarazi | | |
| Mingots, min | Su bizi | Ogi, hitz elkartzetean | |
| | | Gar | |
| Egoskin mota | Azpila | | |
| Mutrikuko | Bokala | | |

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| R | A | U | K | I | R | T | U | M |
| A | S | K | A | S | E | A | T | E |
| O | T | R | A | G | A | N | I | M |
| O | T | A | I | R | A | Z | O | S |
| N | I | N | K | I | R | E | B | E |
| R | S | O | S | G | R | A | N | |
| A | I | O | A | L | O | I | K | |
| I | E | R | K | I | A | T | E | |
| B | T | E | | | | | | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | I | K | A | V | L | O | S | E |
| U | N | N | N | N | N | N | N | N |
| I | N | L | I | X | I | W | I | A |
| O | L | J | L | O | A | L | R | A |
| O | L | Z | M | T | R | O | Z | G |
| O | O | F | O | K | N | C | O | |
| P | L | G | Z | O | A | L | G | L |
| A | M | O | L | D | A | V | I | U |
| B | I | E | L | O | R | Y | U | M |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 8 | 1 | 2 | 5 | 3 | 7 | 4 | 9 |
| 5 | 4 | 3 | 7 | 2 | 9 | 6 | 1 | 8 |
| 6 | 5 | 9 | 1 | 8 | 4 | 7 | 3 | 2 |
| 7 | 4 | 1 | 8 | 5 | 3 | 6 | 2 | 9 |
| 4 | 2 | 9 | 8 | 6 | 7 | 1 | 3 | 5 |
| 7 | 3 | 6 | 5 | 9 | 4 | 2 | 8 | 1 |
| 8 | 1 | 2 | 3 | 7 | 6 | 9 | 5 | 4 |
| 5 | 7 | 4 | 3 | 2 | 8 | 9 | 6 | 1 |
| 3 | 9 | 8 | 6 | 4 | 1 | 5 | 2 | 7 |

SUDOKUA

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 8 | | 1 | | 2 | | 3 |
| | | | 2 | 8 | | | |
| | 2 | | 6 | | 5 | 4 | 8 |
| 3 | | | 4 | | 8 | | 7 |
| | 9 | 8 | 7 | | | | |
| 7 | | | | | | | |
| 6 | | | 8 | | | | |
| | | 7 | 2 | | | | 5 |
| 8 | 2 | 5 | | 7 | 4 | 9 | |

HIZKI SALDA


Topa itzazu Ekialdeko Europako bost herrialde.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| B | I | E | L | O | R | Y | U | M |
| U | M | O | L | D | A | V | I | A |
| L | G | Z | O | A | U | L | G | P |
| G | L | D | F | O | K | N | C | O |
| A | V | Z | M | T | R | O | Z | L |
| R | K | L | E | O | A | L | J | O |
| I | L | U | N | M | I | X | I | N |
| A | U | K | R | A | N | N | L | I |
| E | S | L | O | V | A | K | I | A |

EZETZ IGARRI!

Hil batzuek 31 egun dituzte; beste batzuek, berriz, 30. Zenbatek dituzte 28?

—
Aneri eraztuna erori zitzaion kafez betetako kikara betara, baina eraztuna ez zen busti. Nolatan?



Ezetz igarri!
Denek / Kafea-bihak zegen.

AI, ENE!

Bi zerbitzu baten trukean

Sudoku zaleentzat aukera bikaina da hau komunean ez aspertzeko. Pena da, ondo edo gaizki egin, leku berean bukatuko duela...
www.quelovedan.com



AHOBERO

"Zuek nire langileak zarete, ez Diputazioaren langileak".

JOSE LUIS BALTAR | POLITIKARI ERRETIRATUA

Ourenseko Diputazioko presidentek ohiak apirilean esan zituen hitzok; orain epaitegietan dago ustez 115 senide eta alderdikide zuzenean kontratatzeagatik. Langileak bereak izango ziren; ordaindu baina, ourensetar guztiek ordaintzen zituzten.
www.elpais.net

EGURALDIA



Max. 6°
Min. 2°

Zaparradak ugariak izango dira eta zenbait tokitan ia etengabe botako du.
euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2013-01-14

HAMARREKOA

Patxi Alonso Ekoizle exekutibo moduan aurretik ere *El conquistador del fin del mundo* saioari lotuta egon arren, aurten debatarei aurpegia jarri dio lehen aldiz Bilboko kazetariak | TXOMIN MADINA

"Madrilen, saturatuta nengoen kazetaritzaren egoerarekin"

1. Ez dirudi lan erraza Iñaki Lopez ordezkatzek...

ETBk eta Txema Montoya zuzendariak animatu egin ninduten, ekoizle exekutibo moduan formatua ondo ezagutzen nuelako. Erosoago bizi nintzen kanpotik ikusten, baina oso pozik nago.

2. Orain arte ere programan egon zara, baina kamara atzean.

Berdin segitzen dut; aurkezle izan arren nire lan nagusia ekoizle exekutiboa izatea da. Argi dut protagonistak lehiakide, kapitain eta ikusleak direla; ez da autore programa.

3. 28 lehiakide. Geratu al da casting-a gainditu ez duenik?

Casting-era hainbeste jende aurkeztuta, abantaila da errezago dela aukeraketa indartsua egitea. Helburua da era guztietako jendea egotea, etxeko ikusleak senti dezala berak ere parte har dezakeela.

4. Asko kostatu al da Korta itzultzeko konbentzitzea?

Ez, fenomeno bat delako. Iazkoaren ostean pentsa genezakeen ez zuela nahiko eta berak esan zigun ez zuela espero gure deirik. Baina harreman pertsonal oso zuzena dugu eta tandem ona egiten dugu Kortarekin; Juanitorekin ere bai.

5. Egun uler daiteke reality bat sare sozialen parte-hartze gabe?

Gurea ez, hartu duten indarra oso handia delako. Askotan ezin kontrolatu arren, gozatu egiten dugu jendearen interakzioarekin.



EITB

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"ETB, lehiakorra eta errespetuarekin"

"Zuzendaritza aldaketarekin EITBn hastear dagoen eta ilusionatzen nauen etapa garrantzitsuan, kontziliatuko nuke telebista nazional eta era berean lehiakorra langileen eskubideekiko eta ekoizpen etxe pribatuekiko errespetuarekin; azken hauek dira-eta murrizketak sufritzen ari direnak".

6. Urtero, bi hilabete oporretan Argentinan!

Grabazio garaia gogorra da zuzendari, ekoizle eta teknikoentzat; ordu askokoa. Hilabeteetako prestatketen ostean, lehiakideek aurreikuspenak hautsi ditzakete; hori da tele-errealitatearen politena, baina erantzuten jakin behar da.

7. ETBko aurpegi berriz ere. Madrilen, ez da giro?

Hemen legez, zail dago. Aurkezleen merkaturia erorita ikusita, erraz jarri zidaten: etxetik urrun eta bizi kalitatea galtzen bazaude etekin ekonomiko handi barik, etxera! Kazetaritzaren egoerarekin ere saturatuta nengoen: bizpahiru politiko eta enpresariaren eskuetan dago.

8. Zenbat eragin du Salvame-k kirol kazetaritzan?

Tonua gustatu ahal zaizu edo ez; benetako arazoa da kazetaria ez dela independentea, ezin duela esan nahi duena. Eta krisiarekin, "dena balekoa da" diotenei erraz jartzen zaizkie gauzak.

9. Kamara aurrean, zer egiteke?

Aspaldion buru-belarri nabil produkzio exekutiboan: ideiak sortu, taldeak osatu... Horretan jarraitzea gustatuko litzaidake, eta ETB1erako zerbait indartsua egitea.

10. Egin ahal zaizu elkarrizketa bat Athleticez galdetu barik?

Deseatzen nago, baina ez da gertatzen! Bielsaren aldekoa naizen arren, taldea erdipurdi ikusten dut: denboraldia udan galdu zen.

BIHARAMUNA

MARKOS BALENTZIAGA



Maitasunez, maitasunez

Interneteko itsasoan bala-bala ibili den kontu bat dakart gaurkoan.

Bada Madrilen *bachillerato de excelencia* deritzona eskaintzen duen institutu bat. Nota bikain-bikaineko ikasleak baino ez ditu hartzen institutu horrek.

Bada, Gabonak baino lehentsuago eskolako zuzendariak gurasoengana jo zuten, gomendatuz, oporretan seme-alabek ahaztu zezatela Internet, eta aparta zitezela sare sozialetatik eta amodio-kontuetatik.

Bikaintasun-batxilergoko zuzendari jaunak, besterik gabe, Internetetik edota (maiteminarekin) sareetatik kanpo nahi ditu 17-18 urteko gazteak?

Nik Wert ministro neofrankistaren zurrumbilo-hotsa hartzen diot kontuari.

Zuzendariak ahaztua ote du bera ere ibilia dela -ibiliko ahal zen!- amodio-min, amets beti bera bihurkin, errenditu ezin, gau eta egun berdin?

Institutuko zuzendari horrek ondo asko egingo luke gogoan hartuko balu datorren astean 84 urte beteko dituen Jeanne Moreau artista frantziarrak maitasun adinako sen onaz esandakoa: "Adinak ez du maitasunetik babesten; maitasunak bai, ordea, adinetik".

Bejondeiela gazteei.



Hipermerkatuak



zurekin

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

www.grupoeroski.es